2023
URTEKO TXOSTENA
INFORME ANUAL

Gipuzkoako Foru Ogasuna • Hacienda Foral de Gipuzkoa

















Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

URTEKO TXOSTENA
GIPUZKOAKO FORU OGASUNA
2023
INFORME ANUAL
HACIENDA FORAL DE GIPUZKOA



AURKIBIDE LABURTUA / ÍNDICE RESUMEN

Aurkezpena / Presentación

LEHENENGO ZATIA: ZERGEN AZTERKETA / PRIMERA PARTE: ANÁLISIS DE IMPUESTOS

1. PFEZ / IRPF
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

2. Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga / Impuesto sobre la riqueza y las grandes fortunas
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

3. Sozietateen gaineko Zerga / Impuesto sobre Sociedades
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

4. Sozietateen zerga pizgarriak / Incentivos Fiscales de Sociedades
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

5. BEZ / IVA
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

BIGARREN ZATIA: ZERGA ETA FINANTZA JARDUERA / SEGUNDA PARTE: ACTIVIDAD FINANCIERA Y TRIBUTARIA

6. Ogasuneko organoen kudeaketa / Gestión de Órganos de Hacienda
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

7. Zerga itunduen bilketa / Recaudación de tributos concertados
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

8. Aldundiaren jarduera ekonomiko-finantzarioa /Actividad económico-financiera foral
   • Testua / Texto
   • Estatistika eranskina / Anexo estadístico

ERANSKINAK / APÉNDICES

A.1. Udalen estatistikak / Estadísticas municipales
A.2. Arauzko xedapenak / Disposiciones normativas

AURKEZPENA

Datozen orrialdeotan "Gipuzkoako Foru Ogasunaren Urteko Txostena" aurkezten dizuegu, 2023ko ekitaldiari dagokiona. Beste urteetan bezala, zergadunei, gizarte eragileei eta, oro har, gaian interesatuta dauden guztiei Ogasuneko eta Finantzetako Departamentuak zerga eta finantza arloan egin duen jardunaren berri laburbilduta ematea du helburu. Txosten honen argitalpenarekin, legegintzaldiaren ildo nagusietako bat gauzatzen da: Departamentuaren informazio gardentasuna.

Departamentuaren eginkizunik behinena da herritarrek egiten dituzten kontribuzioak modu arduratsuan biltzea herri zerbitzuak finantzatzea posible izan dadin, lurraldeko ekonomiaren hazkundeari lagunduz eta aberastasuna birbanatuz, herri finantzen kudeaketa eraginkor eta garbia dela medio.

Txosten honetan aztertzen diren zenbait zergaren datuak 2022. ekitaldi fiskalari dagozkio (2023. urtean aurkeztuak); esaterako, Errenta Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga.

Eskainitako informazioaren egiturak homogeneotasuna gordetzen duenez aurreko ekitaldietan erabilitakoarekin, errazago gertatzen da magnitude nagusien denborazko segidak prestatzea. Gainera, txostenak zehatz-mehatz aztertzen ditu datuak, eta horien analisirako kontuan hartzekoak diren aldagaiak ere jorratzen ditu.

Argitalpen honen azken helburua da departamentuak finantza eta zerga alorrean egin duen jarduna gehiago ezagutaraztea. Komunikazio eta informazioaren teknologia berrien erabilerak duen garrantziaz jabeturik, eta aurreko urteetan bezala txostena Departamentuaren interneteko web gunean jartzeaz gain, Estatistika Ataria izeneko atalean txostenean agertzen diren datu guztiak ipini dira modu elkarreragilean, erosoan eta azkarrean kontsultatu eta deskargatu ahal izateko. Bestalde, atal horretan datu-banku bat ere badago, eta bertan, 1995. urtetik aurrerako serie historikoak kontsultatzeko eta deskargatzeko aukera dago.

PRESENTACIÓN

El "Informe Anual de la Hacienda Foral de Gipuzkoa" del ejercicio 2023, que presentamos a continuación, tiene como objetivo poner a disposición de las personas contribuyentes, de los agentes sociales y, en general, de cualquier persona interesada en la materia, un resumen de las actuaciones tributarias y financieras desarrolladas por el Departamento de Hacienda y Finanzas. Con la publicación de este informe se plasma una de las principales líneas de actuación de la legislatura: la transparencia informativa del Departamento.

La principal misión del Departamento es realizar una recaudación responsable de las contribuciones ciudadanas para financiar los servicios públicos, favoreciendo el crecimiento de la economía territorial y la redistribución de la riqueza, con una eficiente y saneada gestión de las finanzas públicas.

Algunos de los datos analizados en este informe corresponden al ejercicio fiscal 2022, (declaraciones presentadas en 2023), como es el caso del IRPF, el Impuesto sobre Sociedades y el Impuesto de Patrimonio.

La estructura de la información ofrecida es homogénea con la de ejercicios precedentes, con lo que se facilita la elaboración de series temporales de las principales magnitudes. Además, contiene un pormenorizado análisis de los datos que se proporcionan, analizando diferentes variables a tener en cuenta a la hora de abordar su estudio.

El objetivo último de esta publicación es facilitar y fomentar el conocimiento de la actividad desarrollada por el Departamento en sus funciones financieras y tributarias. Conscientes de la importancia de la aplicación de las nuevas tecnologías de la comunicación y la información, además de ofrecer este Informe, al igual que en años anteriores, en la página web del Departamento, en el apartado del Portal de Estadísticas, se pueden consultar y descargar todos los datos que aparecen en el informe de una manera interactiva, sencilla y rápida. En dicho apartado existe un banco de datos, dónde se pueden consultar y descargar series históricas desde 1995.

Itziar Agirre Berriotxoa
Ogasuneko eta Finantzetako Foru Diputatua ● Diputada Foral de Hacienda y Finanzas

1. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA. 2022KO EKITALDIA

1.1. SARRERA

2022 ekitaldian, guztira, 402.842 **aitorpen** aurkeztu dira, 2021ean aurkeztutako 390.988 baino %3,0 gehiago. Aurkezpen modalitateari dagokionez, igo egin dira aitorpen mekanizatuak (+%2,7), modu telematikoan aurkeztutakoak (+%1,8) eta berretsiak (+%3,8).

Lanaren errentak jarraitzen du **errenta iturri nagusia** izaten (%81,4). Bigarren lekuan, enpresa jarduerak kokatu dira (%5,6). Hirugarren lekuan ondare irabazi eta galerak datoz (%5,5).

Oinarri ezargarriaren murrizpenen artean honako hauek nabarmentzen dira: batetik, batera aitortzeagatik egindakoak, eta, bestetik, pentsio planenak, BGAEenak eta urteko mantenuarenak.

Kenkariei dagokionez, 2022an ohiko etxebizitzako kenkaria (+%5,9) igo egin da eta kenkari familiar eta pertsonalak ere gora egin dute (+%3,2).

Atxikipen nagusia lanarena da (kopuru osoaren %88,4), eta iazko aldean handitu egin da (+%9,9, 175 milioi euro gehiago). Kapital higikorraren atxikipenak garrantzi aldetik bigarrenak dira (kopuru osoaren %5,0), eta gora egin dute ekitaldian (30 milioi euro gehiago, +%37,0). Jarduera ekonomikoengatik eginiko atxikipenak eta konturako sarrerak aurreko urtearekin konparatuta jaitsi egin dira (-%0,5, hau da, 0,5 milioi euro gutxiago). Jaitsiera horrek lotura zuzena ez du jarduera ekonomikoak zergaren oinarri ezargarrian izan duen igoerarekin. Atxikipenak guztira, 2021eko zenbatekoaren aldean igo egin dira (+204 milioi euro eta +%10,1).

Itzultzeko aitorpenen kopuruak eta guztira itzulitako zenbatekoak gora egin dute (+%10,1 eta +%16,4, hurrenez hurren), eta batez besteko itzulketa, aurreko ekitaldiarekin alderatuz, igo egin da (+%5,8). Bestalde, **ordaintzeko aitorpenen**

1. IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS. EJERCICIO 2022

1.1 INTRODUCCIÓN

En el ejercicio 2022 se han presentado un total de 402.842 **declaraciones**, 3,0% más que las 390.988 declaraciones del 2021. En cuanto a la modalidad de presentación, suben las declaraciones mecanizadas (+2,7%), las presentadas por medios telematicos (+1,8%) y las declaraciones confirmadas (+3,8%).

La **principal fuente de renta** sigue siendo la del trabajo (81,4%). En segundo lugar, se han colocado las actividades empresariales (5,6%). En tercer lugar, se sitúan las ganancias y pérdidas patrimoniales (5,5%).

Entre las **reducciones de la base imponible** destacan, por una parte, las de declaración conjunta y, por otra, las que se aplican por haber aportado a planes de pensiones o EPSVs y por haber abonado anualidades.

En lo referente a las **deducciones**, en 2022 aumenta la deducción en vivienda habitual (+5,9%) y aumentan las deducciones familiares y personales (+3,2%).

La **principal retención** es la del trabajo (88,4% del total), y ha aumentado respecto a 2021 (+9,9%, 175 millones de euros más). Las retenciones de capital mobiliario son las segundas en importancia (5,0% del total) y han experimentado un aumento (+37,0% que suponen 30 millones de euros más). Las retenciones y pagos fraccionados por actividades empresariales o profesionales disminuyen respecto del ejercicio anterior (0,5 millones de euros menos, un -0,5%). Esa disminución no guarda consonancia con el aumento experimentado en la base imponible del impuesto por las actividades empresariales o profesionales. El total de retenciones ha aumentado respecto a los importes de 2021 (+204 millones de euros y el +10,1%).

Tanto el **número de declaraciones a devolver** como la cantidad total devuelta han aumentado respecto al ejercicio anterior (+10,1% y +16,4%, respectivamente), produciéndose un aumento de la devolución media (+5,8%). Por su parte, el

kopuruak (-%10,9) behera egin du eta horien zenbatekoa (+%29,1) 2021. urtean baino handiagoa da. Ondorioz, aitorpen bakoitzeko ordaindu beharreko batez bestekoa asko igo da (+%44,8).

Aurkeztutako aitorpenen %39,1a 20.400 euroko oinarri likidagarriaren azpitik dago. Oinarri likidagarri handiena 37.200 eta 66.000 euro bitarteko oinarri likidagarria duten aitorpenetan ageri da. Kuota likido handienak 66.000 eurotik gorako tarteko oinarri likidagarria duten aitorpenetan ageri da.

Karga tasa nominala %26,6koa izan da (2021eko tasa berdina) eta **karga tasa efektiboa**, berriz, %18,6koa (2021eko %18,7 baino dezima bat txikiagoa).

Aitorpenak errenta iturri nagusiaren arabera sailkatzen baditugu, ikus dezakegu ugarienak lan errentarenak direla (%88,1), eta atzetik jardueratakoak datozela. Hori dela-eta, batez besteko orokorra, bai oinarri likidagarriarena, bai kuotena (osoa zein likidoarena) eta bai karga tasarena, parekaturik dator lanaren batez bestekoarekin.

Jarduera ekonomikoen taldeko aitorpenetan, zerbitzuen sektoreak metatu du aitorpen kopururik handiena (%48,5). Ondoren, profesionalen eta artisten sektorea (%30,1) eta eraikuntzarena datoz (%14,9).

Garraioak jarduera nagusiaren batez besteko etekinik txikiena aitortu du: 14.802 euro. Txikizkako salmentak, ordea, batez bestekorik handiena aitortu dute: 30.204 euro.

Aitortutako batez besteko etekinik handiena mediku espezialistak jarduera adarrak bereganatu du: 89.034 euro. Aldiz, aitortutako batez besteko etekinik txikiena nekazaritza eta abeltzaintza adarrari dagokie 11.414 eurorekin.

número de las declaraciones a ingresar baja (-10,9%) y su importe (+29,1%) presenta mayor cuantía que en 2021. Como consecuencia la media a ingresar por cada declaración ha aumentado mucho (+44,8%).

El 39,1% de las declaraciones presentadas tienen una base liquidable inferior a 20.400 euros. La mayor cuantía de base liquidable se acumula en las declaraciones de entre 37.200 y 66.000 euros de base liquidable. La mayor cuantía de cuota líquida se acumula en las declaraciones de más de 66.000 euros de base liquidable.

El tipo nominal de gravamen ha sido el 26,6% (mismo tipo que el de 2021), mientras que el **tipo efectivo de gravamen** ha sido el 18,6% (una décima por debajo del 18,7% registrado en 2021).

Si clasificamos las **declaraciones en función de la principal fuente de renta**, obtendremos que las más numerosas son las del grupo de trabajo (88,1%), seguidas por las de actividades. Por ello, la media general, tanto de la base liquidable como de las cuotas (íntegra y líquida) y del gravamen, va pareja con la media del trabajo.

Entre las declaraciones del grupo de actividades económicas, es el sector de servicios quien mayor número de declaraciones acumula (48,5%). Le siguen los sectores de profesionales y artistas (30,1%) y de la construcción (14,9%).

El transporte declara la media más baja del rendimiento de la actividad principal: 14.802 euros. En contrapartida, el comercio al por menor declara la media más alta: 30.204 euros.

La rama de actividad con mayor rendimiento medio declarado es la de médicos especialistas: 89.034 euros. Por el contrario, el menor rendimiento medio declarado corresponde a la rama agropecuaria, con 11.414 euros.

1.2. AURKEZTUTAKO AITORPENAK

Zenbat aitorpen aurkeztu dira?


Guztira 2022ko ekitaldiari dagozkion 402.842 aitorpen aurkeztu dira, 2021ekoak baino 11.854 gehiago.

1.2. DECLARACIONES PRESENTADAS

¿Cuántas declaraciones se han presentado?

Se han presentado un total de 402.842 declaraciones correspondientes al ejercicio fiscal 2022, 11.854 más que en 2021.

GRÁFICO 1.1. GRAFIKOA
Aitorpen kopurua (urtez urte)
Evolución del número de declaraciones



Aitorpen berretsiek aitorpen guztien erdia baino gehiago suposatzen dute

Hona hemen 2022ko datuak:

- Aitorpen mekanizatuak: 89.743 (%22,3).
- Aitorpen berretsiak: 207.214 (%51,4).
- Telematikoki edo internet bidez aurkeztutako aitorpenak: 105.885 (%26,3).

2021. urtekoekin alderatuta, portzentajeak mantendu egin dira (%22,3, %51,1, eta %26,6, hurrenez hurren): aitorpen berretsiek %3,8 igo dira. Telematiko/internet bidezkoen igoera %1,8koa izan da eta mekanizatuek berriz %2,7ko igoera izan dute (aitorpen kopuruaren igoera: %3,0).

Las declaraciones confirmadas representan más de la mitad del total de declaraciones

Estos son los datos del año 2022:


- Declaraciones mecanizadas: 89.743 (22,3%).
- Declaraciones confirmadas: 207.214 (51,4%).
- Declaraciones telemáticas o internet: 105.885 (26,3%).

Los porcentajes se mantienen con respecto a los de 2021 (22,3%, 51,1% y 26,6%, respectivamente): debido a que las declaraciones confirmadas suben el 3,8%, las de internet/telemáticas suben el 1,8% y las mecanizadas aumentan el 2,7% (incremento del número de declaraciones: 3,0%).

Aitorpen berretsiak aitorpen-likidazioen proposamenak dira, behin etxera bidalita zergadunek telefonoz zein internet bidez onartu eta berretsi ditzaketenak. Ezarri zirenetik indarra hartzen joan dira eten gabe, eta gaur egun aitorpen guztien erdia baino gehiago suposatzen dute.

Las declaraciones confirmadas son propuestas de declaración-liquidación que se envían al domicilio del contribuyente y que sólo ha de manifestarse su confirmación vía telefónica o telemática. Desde su implantación han ido cogiendo una fuerza de manera constante, y hoy en día representan más de la mitad del total de declaraciones.

GRÁFICO 1.2. GRAFIKOA
Tributazio mota
Modalidad de tributación




Aitorpenaren emaitzari begiratuta, aurkeztutako guztietatik, 277.015 aitorpenei (%68,8) dirua itzultzera ateratzen zaie; iaz baino %10,1 gehiagori. Ordaintzeko aitorpenak 116.538 dira (%28,9), eta 2021. urtean baino %10,9 gutxiago. Geratzen diren beste 9.289 aitorpenetan (%2,3) emaitza negatiboa edo nulua da.

Atendiendo al resultado, del total de declaraciones presentadas, en 277.015 (68,8%) el resultado es a devolver; un 10,1% más que el año anterior. Las declaraciones a ingresar son 116.538 (28,9%), y un 10,9% menos que en 2021. En las 9.289 declaraciones restantes (2,3%) el resultado es negativo o nulo.

GRÁFICO 1.3. GRAFIKOA

Aitorpen kopurua, zergadunei itzultzekoak edo Ogasunari ordaintzekoak

Número de declaraciones, a devolver al contribuyente o a ingresar en Hacienda



Familia unitatean sartu gabekoen aitorpenek eta banakakoek gorakada izan dute, baterako aitorpenek behera egin duten bitartean

Familia unitatean sartu gabeko zergadunak 7.524 aitorpenetan gora egin dute (+%4,9), eta %39,8 hartzen dute. Gainerakoak (%60,2) bi taldetan banatzen dira: batetik, aitorpena batera aurkezten dutenak (%16,6 dira eta %3,7 jaitsi dira 2021arekin alderatuta), eta bestetik, banakako modalitatea nahiago dutenak (%43,6 dira eta %4,1 igo dira lehengo urtearekiko).


2019-2022 epealdia aztertuta, agerian jartzen da banakako aitorpenek 166.340tik 175.477ra pasa direla (+%5,5); familia unitatean sartu gabekoek +%9,6 handitu dira (146.266tik 160.355era); eta aitorpena batera aurkezten dutenak 72.528tik 67.010ra jaitsi dira (-%7,6).

Las declaraciones de los no incluidos en unidad familiar e individuales aumentan, mientras que las declaraciones conjuntas disminuyen

Los contribuyentes no incluidos en una unidad familiar han aumentado en 7.524 declaraciones (+4,9%) y representan el 39,8%. El resto (60,2%) se divide entre quienes presentan la declaración conjunta (representan el 16,6% y disminuyen un 3,7% respecto a 2021) y quienes prefieren la modalidad individual (representan el 43,6% y aumentan un 4,1% respecto al año anterior).

Si analizamos el periodo 2019-2022, apreciamos que las declaraciones individuales han pasado de 166.340 a 175.477 (+5,5%), las no incluidas en unidad familiar han crecido un 9,6% (de 146.266 a 160.355) y las que presentan declaración conjunta han bajado de 72.528 a 67.010 (-7,6%).

GRÁFICO 1.4. GRAFIKOA
Aitorpen mota
Tipo de declaración



1.3. NONDIK DATOR AITORTUTAKO ERRENTA?

Datu aipagarri gisa, esan dezakegu 2022 ekitaldiko oinarri likidagarria 12.120 milioi eurokoa izan dela, aurreko urtean baino 1.344 milioi gehiago (+%12,5). Beraz, 2021. urtean hasitako gorako joera finkatzen da.

Lanetik datozen errentak aitortutako guztiaren %81,4 dira

1.5. grafikoan ikus daiteke nola banatu diren oinarri ezargarria osatzen duten errentak.

Etekin mota hauetatik guztietatik hiru aztertuko ditugu zehatzago: lanaren errentak, kapital higiezinaren errentak, eta ondare irabazi eta galerak.

Lanaren errentak: %8,9 handitu da etekin garbia

2021. urtearekin alderatuta, lan errenten etekin gordina %8,2 igo da. Gastu kengarriak (Gizarte Segurantzaren kuotak...) %6,4 igo dira, eta hobariak, aldiz, %2,9 igo dira. Azkenean, lan etekin garbia %8,9 handitu da.

1.3. ¿DE DÓNDE PROCEDE LA RENTA DECLARADA?

Como dato destacable queremos apuntar que la base liquidable del ejercicio 2022 ha sido de 12.120 millones de euros, 1.344 millones más que el año anterior (+12,5%). Por tanto, se consolida la tendencia de ascenso que comenzó el año 2021.

Las rentas procedentes del trabajo representan el 81,4% del total declarado


Las rentas que componen la base imponible se reparten según el gráfico 1.5.

De todos estos rendimientos hay tres - las rentas de trabajo, las rentas del capital inmobiliario y las ganancias y pérdidas patrimoniales- que vamos a analizar más detenidamente.

Rentas de trabajo: ha aumentado un 8,9% su rendimiento neto

El rendimiento bruto de la renta de trabajo ha aumentado un 8,2% respecto a 2021. Los gastos deducibles (cuotas a la Seguridad Social...) han aumentado un 6,4%, mientras que la bonificación ha aumentado un 2,9%. Al final, el rendimiento neto de trabajo aumenta un 8,9%.

GRÁFICO 1.5. GRAFIKOA
Errentaren jatorria
Procedencia de la renta



Ondare irabazi eta galerak %52,0 igo dira

2021ean 105 milioi euro igo ondoren, ondare irabazi eta galeren zenbatekoa 241 milioi eurotan igo da (+%52,0 eta epealdiko maila altuena harrapatzen du. 4,0tik %5,5era pasa da, eta hirugarren errenta iturria da.

Ganancias y pérdidas patrimoniales: suben un 52,0%

Tras subir 105 millones de euros en 2021, el importe de ganancias y pérdidas patrimoniales sube en 241 millones de euros (+52,0%) y alcanza niveles máximos. Su porcentaje respecto a la base imponible pasa del 4,0% al 5,5% y es la tercera fuente de renta.

Kapital higiezinaren errentak %10,5 igo dira

Kapital higiezinaren errentak bi osagai desberdin ditu: Alde batetik, oinarri orokorrean sartzen diren errentak, orokorrean jarduera ekonomikoekin zerikusia duten ibilgetuen alokairuei dagozkienak eta, bestetik, aurrezkiaren oinarrian barneratzen direnak, ohiko etxebizitzen alokairuei dagozkienak.

Rentas del capital inmobiliario: crecen un 10,5%

Las rentas de capital inmobiliario se componen de dos elementos diferenciados: Por un lado, están las rentas que se integran en la base general, que recogen, sobre todo, las rentas obtenidas por el alquiler en actividades económicas y, por otro lado, las rentas integradas en la base del ahorro, que son las correspondientes al alquiler de viviendas habituales.

Oinarri ezargarri orokorraren barne dauden kapital higiezineko errentak igo egin dira 2021ekoekin alderatuta (+%15,6).

Aurrezkiaren oinarrira doazenak, hau da, etxebizitzen alokairuaren ondorioz lortuak, igoera txikiagoa izan dute. Hauen igoera %6,6koa izan da, 13,7 milioi euro handiagoa.

Ondorioz, kapital higiezinaren errentek %10,5eko igoera izan dute, gehienbat ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinen etekinekin zerikusia duten ibilgetuen alokairuen igoerak bultzatuta.

Las rentas de capital inmobiliario integradas en la base imponible general han aumentado respecto a 2021 (+15,6%).

Las correspondientes a la base del ahorro, es decir, las provinientes del alquiler de viviendas habituales, han experimentado un menor avance. Aumentan un 6,6%, concretamente 13,7 millones de euros.

En consecuencia, las rentas de capital inmobiliario, en su conjunto, crecen un 10,5%, sobre todo, gracias al aumento de las rentas obtenidas por bienes inmuebles que no son viviendas habituales.

Oinarri ezargarriaren murrizpenak

Murrizpenei dagokienez honako hauek dira datu nagusiak:

- Pentsio planak, BGAEak eta urteko mantenurako ordainketak: 343 milioi (+%2,0).
- Murrizpena batera aitortzeagatik: 286 milioi (+%1,8).
- Aurreko ekitaldietako etekin negatiboak: 46 milioi (-%31,7).

Pentsio planei eta BGAEei egindako ekarpenen murrizpenenak %2,0 igo dira 2022an.

Batera tributatzeagatik dagoen murrizpenaren zenbatekoa %1,8 igo da, aitortzeko modu hori aukeratu duten aitorpen kopurua igo den neurrian.

Reducciones de la base imponible

En lo que se refiere a las reducciones, estos son los datos principales:

- Planes de pensiones, EPSVs y anualidades por alimentos: 343 millones (+2,0%).
- Reducción por declaración conjunta: 286 millones (+1,8%).
- Rendimientos negativos de ejercicios anteriores: 46 millones (-31,7%)

La reducción por aportaciones a planes de pensiones y EPSVs aumenta un 2,0% en 2022.

La reducción por tributación conjunta aumenta un 1,8%, en consonancia con el aumento del número de declaraciones que optan por este modo de tributación.

Errenta iturriak oinarri likidagarriaren tarteen arabera

2022eko errenta iturri nagusiek aurreko urteko egiturari eutsi diote. Besteren konturako lanaren etekinek portzentajerik handiena ageri dute tarte guztietan, eta baliorik handienak 15.600 eta 37.200 euro bitarteko oinarria duten tarteetan lortu dute (hauetan %90 inguru izatera heltzen dira).

Beheragoko tarteetan, eta batez ere 10.800 euro bitartekoetan, errenta enpresarial eta profesionalen baliorik handienak ageri dira

Fuentes de renta distribuidas por tramos de base liquidable

Las principales fuentes de renta en 2022 mantienen una estructura similar al año anterior. Los rendimientos de trabajo por cuenta ajena son los que mayor porcentaje tienen en todos los tramos, y alcanzan sus valores máximos en los intervalos intermedios (base entre 15.600 y 37.200 euros, donde llega a representar en torno al 90%).

Es en los tramos inferiores, sobre todo hasta 10.800 euros, donde los valores de las rentas empresariales y profesionales tocan techo

(hauetan ere %15 inguru izatera heltzen dira).

Bai kapital higigarriaren errentak eta bai kapital higiezinarenak oso pisu txikia dute tarte gehienetan, eta beren portzentajerik onenak lehen eta azken tarteetan ageri dira.


Ondare irabazi eta galerak azken tartean (66.000 eurotik gorako oinarri likidagarriak) bakarrik dira esanguratsuak, oinarriaren %22,6 baitira bertan.

(llegando a representar también en torno al 15%).

Tanto las rentas de capital mobiliario como de capital inmobiliario tienen una baja representación en la mayoría de los tramos, si bien obtienen sus mejores porcentajes en el primero y en el último tramo.

Las ganancias y pérdidas patrimoniales destacan únicamente en el último tramo (base liquidable superior a 66.000 euros), dónde llegan a representar el 22,6% de la base.

GRÁFICO 1.6. GRAFIKOA
Errenta iturrien portzentajeak, oinarri likidagarriaren tarteen arabera
Fuentes de renta en % por tramos de base liquidable




1.4. KENKARIAK

2022. urtean **398** milioi euroko kenkariak egin dira guztira, aurreko urtean baino %4,7 gehiago.

1.4. DEDUCCIONES

El total de deducciones para el año 2022 ha ascendido a **398** millones de euros, un 4,7% más que el año anterior.

GRÁFICO 1.7. GRAFIKOA
Kenkariak taldeen arabera
Deducciones por grupos



Kenkari familiar eta pertsonalak hartzen dute kopururik handiena

Guztira, kenkari familiar eta pertsonalak 218 milioi eurotara heltzen dira, zenbateko osoaren %54,9.

Las deducciones familiares y personales son las que mayores importes representan

El total de deducciones familiares y personales asciende a 218 millones de euros, el 54,9% del total.


Talde honen barruan, kenkaririk garrantzitsuena ondorengo ahaideena da (119 milioi euro). Besteak honela banatzen dira:

- Urteko mantenua: 1,5 milioi (+%1,9)
- Aurreko ahaideak: 0,5 milioi (+%0,3).
- Menpekoak: 27,3 milioi (+%5,9).
- Desgaituak: 30,3 milioi (+%1,1).
- 65 urtetik gorakoak: 39,7 milioi (-%1,3).

Dentro de este grupo, la deducción más importante es la de descendientes (119 millones de euros). El resto se reparte de la siguiente manera:

- Abono anualidades: 1,5 millones (+1,9%).
- Ascendientes: 0,5 millones (+0,3%).
- Dependencia: 27,3 millones (+5,9%).
- Discapacitados: 30,3 millones (+1,1%).
- Edad +65 años: 39,7 millones (-1,3%).

GRÁFICO 1.8. GRAFIKOA
Kenkari familiar eta pertsonalak (urtez urte)
Evolución de las deducciones familiares y personales




Milioi eurokotan / En millones de euros

Banaka hartuta, **ohiko etxebizitzagatik aplikatutako kenkariak** goranzko joera erakusten dute. Honela, alokairuaren kenkaria 2021eko zenbatekoekin alderatuta igo egin da (+%5,0 eta 47,0 milioi euro iritsi da), etxebizitza kontuan inbertitzeagatik kenkaria mantentzen da eta 4,4 milioi eurotara iritsi da, eta etxebizitza erosketagatiko kenkaria %6,2 igo da eta 109,9 milioi eurokoa da.

Individualmente, las **deducciones por vivienda habitual** también muestran tendencias ascendentes. Así, la deducción por alquiler aumenta respecto a los importes de 2021 (+5,0% y llega a los 47,0 millones de euros), la deducción por cuenta vivienda se mantiene y llega a 4,4 millones de euros. La deducción por adquisición de vivienda sube un 6,2% y es de 109,9 millones de euros.

GRÁFICO 1.9. GRAFIKOA
Ohiko etxebizitzaren kenkaria (urtez urte)
Evolución de la deducción por vivienda habitual



Milioi eurokotan / En millones de euros

Jarduerak sustatzeko kenkariak %35,8 igo dira

Jarduerak sustatzeko kenkariek aurreko ekitaldiko goranzko joera mantentzen dute eta 0,9 milioi euro handitu dira 2022an, %35,8 gehiago.

Las deducciones para el fomento de actividades suben un 35,8%

Las deducciones para el fomento de actividades continuan con la tendencia alcista de años anterior y ganan 0,9 millones de euros en 2022, aumentando el 35,8%.

Dohaintzen eta lehentasunezko jardueren kenkariak %4,6 igo dira

Kenkariaren zenbatekoa 6,5 milioitik 6,8 milioi eurora pasa da (+%4,6).

Las deducciones por donativos y actividades prioritarias crecen el 4,6%

El importe de la deducción pasa de 6,5 a 6,8 millones de euros (+4,6%).

Zergapetze bikoitzaren kenkaria: %16,5 igo da

Kenkari honek goranzko joera nabarmena izan du epealdian: 2020an %16,9 egiten du gora, 2021ean %13,7 egiten du gora eta 2022an %16,5 egiten du gora (bere zenbatekoa 4,7 milioi eurotan geratzen da).

Deducción por doble imposición: crece un 16,5%

Esta deducción presenta una clara tendencia ascendente: en 2020 aumenta el 16,9%, en 2021 aumenta el 13,7% y en 2022 aumenta el 16,5%, hasta situarse en 4,7 millones de euros.

Gainerako kenkarik

Gainerako kenkariak 3,1 milioi eurotan geratu dira, eta %13,4 igo dira.

Resto de deducciones

El resto de deducciones se quedan en 3,1 millones de euros y suben un 13,4%.

1.5. ATXIKIPENAK

2022an 2.213 milioi euro atxiki dira, aurreko urtean baino %10,1 gehiago.

Atxikipen nagusia: lanarena

Hauek izan dira atxikipenen iturri nagusiak:

- Lana: kopuru osoaren %88,4.
- Jarduera ekonomikoak: %4,7.
- Kapital higigarria: %5,0.
- Kapital higiezina: %1,6.
- Ondare irabaziak: %0,3.
- IETen eta AEEen atxikipenak eta sariei dagozkienak apenas dira esanguratsuak.

1.5. RETENCIONES


En 2022 se han retenido a cuenta 2.213 millones de euros, un 10,1% más que el año anterior.

La principal retención: la del trabajo

Las retenciones provienen principalmente de las siguiente fuentes:

- Trabajo: 88,4% del total.
- Actividades económicas: 4,7%.
- Capital mobiliario: 5,0%.
- Capital inmobiliario: 1,6%.
- Ganancias patrimoniales: 0,3%.
- Las retenciones provenientes de AIEs y UTEs y de los premios son prácticamente residuales.

GRÁFICO 1.10 GRAFIKOA
Atxikipen nagusiak
Principales retenciones



Inbertsio Kolektiboetako Erakundeek eginiko atxikipenak %37,9 jaitsi dira

Inbertsio fondoetako atxikipenak (-%37,9 eta -4,1 milioi euro), jaitsiera pairatu dute eta joera aldaketa hasten da.

Lanaren gaineko atxikipenak dira kopuru absolutuetan igoerarik handiena izan dutenak (+175 milioi euro), baina igoera hori portzentajean %9,9koa da.

Kapital higikorraren gaineko atxikipenak gora egin dute, kopuru absolutuetan 30 milioi euro, +%37,0.

Gainerako atxikipenetan honako bilakaerak izan dira:

- Jarduerak: -%0,5 (-0,5 milioi).
- Kapital higiezinarenak: +%9,8 (+3,3 milioi).
- IETak eta EABak: +%100,0 (+35.000 euro).
- Sariak: +%29,6 (+44 mila euro).

Las retenciones efectuadas por Instituciones de Inversión Colectiva disminuyen el 37,9%

Las retenciones sobre fondos de inversión (-37,9% y -4,1 millones de euros), disminuyen e inician cambio de tendencia.

Las retenciones del trabajo son las que más han subido en importe (+175 millones de euros), pero dicho incremento porcentualmente representa el 9,9%.

Las retenciones del capital mobiliario han aumentado en importe 30 millones de euros, +37,0%.

El resto de las retenciones presentan las siguientes variaciones:

- Actividades: -0,5% (-0,5 millones).
- Capital inmobiliario: +9,8% (+3,3 millones).
- AIEs y UTEs: +100,0% (+35.000 euros)
- Premios: +29,6% (+44 mil euros).

Atxikipenen eta sarreren arteko erlazioa

Atxikitako zenbatekoak sarreren gainean zein portzentaje hartzen duen aztertu ondoren, honako ondorioetara iritsi gara azken lau urteotako bilakaerari buruz:

- Besteren konturako lanaren portzentajea %15,6 eta %16,1 artean mantentzen da 2019-2022 epean.

- Jarduera ekonomikoen portzentajea 2,9 puntu jaitsi da 2019tik 2020ra (%12,9) eta 2,9 puntu gora (%15,8) egin du 2021ean. 2022an behera egiten du, 1,3 puntu, eta %14,5ekoa da.

- Kapital higigarriaren portzentajea mantentzen da 2019-2022 epealdian: %18,7ko tasa eman du 2022an, eta 0,2 puntu gora egin du 2021arekin alderatuta. 2021ean epealdiko portzentajerik baxuena (%18,5) eman zen.

Relación entre las retenciones y los ingresos

Tras analizar el porcentaje que supone la cantidad retenida sobre los ingresos, llegamos a las siguientes conclusiones sobre su evolución en los últimos cuatro años:

- El porcentaje del trabajo por cuenta ajena se mantiene entre el 15,6% y el 16,1% en el periodo 2019-2022.

- El porcentaje de actividades económicas baja 2,9 puntos de 2019 a 2020 (12,9%) y sube 2,9 puntos en 2021 (15,8%). En 2022 baja, 1,3 puntos, y se sitúa en el 14,5%.

- El porcentaje del capital mobiliario se mantiene en el periodo 2019-2022, y se situa para el ejercicio 2022 en el 18,7%, habiendo subido 0,2 puntos respecto al 2021. En 2021, se da el porcentaje más bajo del periodo (18,5%).

1.6. KUOTA OSOAREN %0,7KO ESLEIPENA

Zenbatekorik handiena helburu orokorretara zuzentzen da, aukera ez delako espresuki adierazi, 12,1 milioi euro, hau da, esleitutako guztiaren %49,6. Bigarren lekuan, gizarte xedeetara zuzentzen da (8,4 milioi euro eta guztiaren %34,6). Eta azkenik, Eliza Katolikoaren aukera dago (3,9 milioi euro eta guztiaren %15,8).

Aukera desberdinek azken ekitaldietan izan duten bilakaera desberdina izan da:

- 2022an aukerarik ez dutenak adierazten zenbatekoa %17,1 handitu dute.

- Gizarte xedeetara zuzendutako zenbatekoa %4,7 igo da, 2021ean eta 2020an izandako jaitsieren ondoren (-%2,6 eta -%6,2 hurrenez hurren).

- Eliza Katolikora zuzendutako zenbatekoan %4,7 igo da 2022an. 2021ean %1,0 jaitsi zen eta 2020an %0,5 jaitsi zen.

1.6. ASIGNACIÓN DEL 0,7% DE LA CUOTA ÍNTEGRA

El mayor importe se destina a fines generales, por no hacer constar ninguna opción, 12,1 millones de euros que representan el 49,6% del total asignado. En segundo lugar se sitúan los fines sociales (8,4 millones de euros y el 34,6% del total). Y por último, se encuentra la opción de la Iglesia Católica (3,9 millones de euros y el 15,8% del total).

La evolución en los últimos ejercicios ha sido desigual para las distintas opciones:

- En 2022 el importe asignado a la opción de no constar ninguna elección aumenta un 17,1%.


- El importe asignado a la opción de fines sociales ha aumentado un 4,7%, después de la disminución del 2,6% de 2021 y de la disminución del 6,2% de 2020.


- El importe destinado a la Iglesia Católica sube un 4,7% en 2022. En 2021 bajó un 1,0% y en 2020 bajó un 0,5%.

GRÁFICO 1.11 GRAFIKOA

Erlijio eta gizarte xedeetara bideratutako kuotaren banaketa eta bilakaera

Distribución y evolución de la cuota asignada para fines religiosos y sociales





1.7. ITZULTZEKO ETA ORDAINTZEKO AITORPENAK

Itzultzeko aitorpenak

2022. urtean 277.015 izan dira itzultzeko aitorpenak. 334,6 milioi euro itzuli dira guztira: batekoz beste, 1.208 euro aitorpeneko.

1.7. DECLARACIONES A DEVOLVER Y A INGRESAR

Declaraciones a devolver

En 2022 el número de declaraciones a devolver ha ascendido a 277.015. La cantidad total devuelta 334,6 millones de euros: una media de 1.208 euros por declaración.

Ordaintzeko aitorpenak

116.538 aitorpen izan dira ordaintzekoak. Guztira, 375,1 milioi euroko diru sarrerak ekarri dituzte, batekoz beste 3.219 euro aitorpeneko.

Declaraciones a ingresar

El número de las declaraciones a ingresar ha sido de 116.538. El total han ingresado se eleva a 375,1 millones de euros, con una media de 3.219 euros de ingreso por declaración.


Itzultzeko batez bestekoa %5,8 igo da

Bai itzultzeko aitorpen kopurua (+%10,1) eta baita zenbatekoa ere (+%16,4) igo egin dira 2021arekin alderatuta. Nola zenbatekoaren igoera handiagoa izan den, aitorpeneko itzultzeko batez bestekoa %5,8 igo da.

La media a devolver aumenta un 5,8%

Tanto el número de declaraciones a devolver (+10,1%) como la cantidad a devolver (+16,4%) aumentan respecto a 2021. Debido a que el aumento del importe es mayor, la devolución media por declaración sube un 5,8%.

GRÁFICO 1.12 GRAFIKOA
Aitorpen kopurua, zergaren emaitzaren arabera
Número de declaraciones según resultado del impuesto



Ordaindu beharreko batez bestekoa igo egin da 2021. urtearen aldean

Aurreko urtearekin konparatuta, aitorpen kopuruak behera egin du eta Ogasunari guztira ordaindutako zenbatekoak gora egin du. Beraz, aitorpen bakoitzeko ordaindu beharreko batez bestekoak gora egin du nabarmen, 996 euro gehiago hain zuzen (+%44,8). Arrazoia hauxe: aitorpen kopurua %10,9 jaitsi den bitartean, zenbatekoak hazkundea izan du: %29,1.

La media a ingresar aumenta en relación a 2021

Con respecto al año anterior, ha disminuido el número de declaraciones y ha aumentado la cantidad total ingresada a Hacienda. Por tanto, la cantidad media a ingresar por cada declaración aumenta considerablemente. Esta última ha crecido en 996 euros (+44,8%). Esto se debe a que frente al 10,9% de disminución en el número de declaraciones, la cuantía ha aumentado un 29,1%.

GRÁFICO 1.13 GRAFIKOA
Zergaren emaitzaren bilakaera. Zenbatekoak, guztira
Evolución del resultado del impuesto. Importes totales





GRÁFICO 1.14 GRAFIKOA
Zergaren emaitzaren bilakaera. Batez besteko zenbatekoak
Evolución del resultado del impuesto. Importes medios



Ordaintzeko aitorpenetan joera aldatzen da

Aitorpen bakoitzeko ordaindu beharreko batez bestekoak joera finkatzen du eta igoera eman da 2021ean eta 2022an, 2020an jaitsiera garrantzitsua izan ondoren.

Cambia la tendencia en las declaraciones a ingresar

El importe medio a ingresar consolida la tendencia y aumenta en 2021 y 2022, después de una disminución importante en 2020.

1.8. BANAKETA OINARRI LIKIDAGARRIAREN TARTEEN ARABERA

Gogora dezagun oinarri likidagarriak 8 tarte hauek dituela, eurotan:


- Lehen tartea: 6.000 euroraino
- Bigarren tartea: 10.800 euroraino
- Hirugarren tartea: 15.600 euroraino
- Laugarren tartea: 20.400 euroraino
- Bosgarren tartea: 27.600 euroraino
- Seigarren tartea: 37.200 euroraino
- Zazpigarren tartea: 66.000 euroraino
- Zortzigarren tartea: +66.000 euro.

1.8. DISTRIBUCIÓN POR TRAMOS DE BASE LIQUIDABLE

Recordamos que los 8 tramos de la base liquidable son, en euros:

- Primer tramo: hasta 6.000
- Segundo tramo: hasta 10.800
- Tercer tramo: hasta 15.600
- Cuarto tramo: hasta 20.400
- Quinto tramo: hasta 27.600
- Sexto tramo: hasta 37.200
- Séptimo tramo: hasta 66.000
- Octavo tramo: Más de 66.000

GRÁFICO 1.15. GRAFIKOA
Aitorpen kopurua tarteen arabera
Número de declaraciones por tramos



Aitorpen kopurua 5. 6. eta 7. tarteetan metatu da

2022. urtean aitorpen kopururik handiena 5. 6. eta 7. tarteetan pilatu da: 228.094 aitorpen (**erdia baino gehiago, %56,6**). Eta hiru horietatik **seigarrenak** hartu du gehien: 82.248 aitorpen (**%20,4**).

Aurreko urtearekin alderatuta, aurkeztutako aitorpen kopurua tarte guztietan igo da, lau lehen tarteak izan ezik, %13,6, %4,6, %0,8 eta %3,2 jaitsi bait dira hurrenez hurren. Igoerarik handiena

El número de declaraciones se acumula en los tramos 5º 6º y 7º

En 2022 el mayor número de declaraciones se concentra en los tramos 5º 6º y 7º: 228.094 declaraciones (**más de la mitad, 56,6%**). Y, de los tres, quien más acumula es **el sexto** con 82.248 declaraciones (**20,4%**).

Con respecto al año anterior, se han presentado más declaraciones en todos los tramos, excepto en los cuatro primeros tramos, que disminuyen un 13,6%, un 4,6%, un 0,8% y un 3,2%

portzentualki eta zenbatekoan, zazpigarren tartean dago (+12.594 eta +%22,2). Igoera handiena, portzentualki eta zenbatekoan, lehenengo tartean dugu: 4.691 aitorpen gutxiago eta -%13,6.

respectivamente. El mayor aumento porcentual y en importe se encuentra en el séptimo tramo (+12.594 y +22,2%). La mayor disminución cualitativa y cuantitativa se ha producido en el primer tramo: 4.691 declaraciones menos y un -13,6%.


Oinarri likidagarri gehiena azken tarteetan pilatu da

2022. urtean oinarri likidagarriaren zenbatekorik handienak 5. eta 8. arteko tarteetan ageri dira, hau da, 20.400 eurotik gorako oinarri likidagarrietan (batera hartuta, kopuru osoaren %84,4 metatzen dute). Lau horietatik, zazpigarren tarteak pilatu du zenbatekorik handiena (37.200 eta 66.000 euro bitarteko tarteak): 3.192,7 milioiko oinarri likidagarria (zenbateko osoaren %26,3). Bestalde, azken tartea (66.000 euro baino gehiagoko oinarri likidagarria dutenak) izan da gehien igo dena zenbatekoan eta portzentualki: +674 milioi euro eta +%36,0.

En los últimos tramos se acumula la mayor parte de la base liquidable

En 2022, los tramos que mayor cuantía de base liquidable presentan son los comprendidos entre el 5º y el 8º (en conjunto acumulan el 84,4%), es decir, aquellas bases liquidables que superan los 20.400 euros. De los cuatro, el tramo que más cuantía concentra es el séptimo (entre 37.200 y 66.000 euros): 3.192,7 millones de base liquidable (26,3% del total). Por su parte, el que más aumenta en importe y en términos relativos es el último tramo (base liquidable mayor de 66.000 euros): +674 millones de euros y +36,0%.

GRÁFICO 1.16. GRAFIKOA
Oinarri likidagarriaren zenbatekoa tarteen arabera
Cuantía de la base liquidable por tramos




Kuota likidoa: %12,0ko igoera orokorra izan du

2022an, zortzigarren eta azken tartea izan da kuota likido gehien metatu duena, eta ez zazpigarrena (oinarri likidagarriaren zenbatekoarekin gertatzen den bezala): 744,5 milioi euro metatu dira tarte horretan, kopuru osoaren %33,1. Atzetik, zazpigarren tartea dator 693,1 milioi eurorekin (%30,8). Hirugarren lekuan seigarren tartea ageri da, kuota likido osoaren %20,7 pilatu baita tarte horretan. Bost lehenengo tarteetan eman da kuota likidoaren jaitsiera, eta bigarrengo tartean %40,5 jaitsi da. Zortzigarren tartea, (66.000 eurotik gorako tartea) zenbatekoan eta portzentualki gehien igo da 2021arekin alderatuta: +180,3 milioi euro eta +%31,9.

Cuota líquida: crece un 12,0%, en términos generales

En 2022 el tramo que más cuota líquida acumula no ha sido el séptimo (como ocurre con la cuantía de la base liquidable) sino el octavo y último: 744,5 millones de euros, que suponen el 33,1% del total. Le sigue el séptimo tramo con 693,1 millones (el 30,8%). En tercer lugar se encuentra el sexto tramo, en el que se concentra el 20,7% del total de la cuota líquida. Los cinco primeros tramos presentan una disminución en la cuota líquida: el segundo disminuye un 40,5%. El octavo tramo (base liquidable mayor que 66.000 euros), es el que más aumenta tanto cuantitativamente como cualitativamente, respecto a 2021: +180,3 millones de euros y +31,9%.

GRÁFICO 1.17. GRAFIKOA
Kuota likidoaren zenbatekoa tarteen arabera
Cuantía de la cuota líquida por tramos



1.9. KARGA TASAK

Karga tasa nominala: %26,6

Aurretiko kuota osoak oinarri likidagarriaren gainean duen portzentajea da. 2022an %26,6 izan da karga tasa nominala.

1.9. TIPOS DE GRAVAMEN

Tipo nominal de gravamen: 26,6%

Es el porcentaje que supone la cuota íntegra previa sobre la base liquidable. En 2022 el tipo nominal de gravamen ha sido del 26,6%.


Karga tasa efektiboa: %18,6

Kuota likidoak oinarri likidagarriaren gainean duen portzentajea da. 2022an %18,6 izan da karga tasa efektiboa.

Tipo efectivo de gravamen: 18,6%

Es el porcentaje que supone la cuota líquida sobre la base liquidable. En 2022 el tipo efectivo de gravamen ha sido del 18,6%.

GRÁFICO 1.18. GRAFIKOA
Tasa efektiboak oinarri likidagarriaren tarteen arabera
Tipos efectivos por tramos de base liquidable



Tasa efektiboen eskala: alde handiak ageri dira C taldean (25.200 eta 150.000 euro bitartekoan)

Tasa efektiboek oinarri likidagarriarekin duten progresioa aztertzeko, lau taldetan banatu ditugu oinarri likidagarriaren tarteak:

- A: 13.200 euroraino
- B: 25.200 euroraino
- C: 150.000 euroraino
- D: 150.000 euro baino gehiago.

A taldean, tasa efektiboek malda apala ageri dute. Oinarri likidagarriaren lehen tartetik bigarrenera tasa efektiboaren portzentajea 0,57 puntu gehitu da, eta bigarrenetik hirugarrenera 2,07 puntu.

Escala de los tipos efectivos: grandes diferencias en el grupo C (de 25.200 a 150.000 euros)

Para analizar la progresión de los tipos efectivos con relación a la base liquidable, hemos distribuido los tramos de la base liquidable en estos cuatro grupos:

- A: hasta 13.200 euros.
- B: hasta 25.200 euros.
- C: hasta 150.000 euros.
- D: más de 150.000 euros.

En el grupo A se observa una pendiente moderada de los tipos efectivos. Del primer al segundo tramo de la base liquidable el porcentaje del tipo efectivo ha aumentado 0,57 puntos; del segundo al tercero, 2,07 puntos.

B taldean malda hori berdina da: tasaren portzentajeak tarte batetik bestera duen aldea 1,81 eta 2,63 puntu bitartean dabil.

C taldean, tasa efektiboen malda areagotu egiten da eta oinarri likidagarriak tartetik tartera duen aldea 3,32 eta 4,75 puntu bitartean dago.

D taldeak azken bi tarteak hartzen ditu (150.000 eurotik gora). Maldak makaltzen bukatzen du: 150.000 eta 180.000 euro bitarteko tasa efektiboa 3,64 puntu igo da, eta hurrengo tartean 2,16 puntu jaitsi da.

Nahiz eta, hasiera batean, emaitza hori harrigarria gerta daitekeen PFEZ bezalako zerga progresibo batean, ez dugu ahaztu behar karga tasa efektiboari buruz ari garela hitz egiten (orokorra + aurrezpenarena). Azken maila (180.000tik gora) aurrezpenaren oinarri handiena duena denez, eta oinarri honek karga tasa finkoa duenez, ez du hainbeste igotzen edo jaisten du hor karga tasa efektiboak.

En el grupo B la pendiente se mantiene: el salto del porcentaje del tipo entre tramos de la base es entre 1,81 y 2,63 puntos.

En el grupo C la pendiente de los tipos efectivos es la más acentuada y el salto del porcentaje de tramo a tramo de base liquidable se sitúa entre 3,32 y 4,75 puntos.

En el grupo D, que corresponde a los dos últimos tramos (más de 150.000 euros), la pendiente termina moderándose: el tipo efectivo entre 150.000 y 180.000 euros sube en 3,64 puntos y en el siguiente tramo baja en 2,16 puntos.

Aunque en principio este resultado pueda sorprender en un impuesto progresivo como el IRPF, no debemos olvidar que estamos hablando del tipo efectivo de gravamen (general + ahorro). Al ser en el último tramo (más de 180.000 euros) donde se incluye mayor importe de la base del ahorro y estar esta base sujeta a un tipo de gravamen fijo, el tipo efectivo de gravamen se ralentiza o baja.

1.10. NOLA SAILKATU DIRA AITORPENAK?

1.10.1. ERRENTA ITURRI NAGUSIAK

Nola kalkulatzen da zerga?

Oro har, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak bi zati hartzen ditu kontuan: batetik, zergadunaren sarrera eta gastu guztiak eta, bestetik, ondarezko ondasunak saltzeagatik izandako galerak eta irabaziak. Beraz, zergaren oinarri likidagarria eragiketa honen emaitza izango da: (etekin positiboak – etekin negatiboak) + (ondare irabaziak – ondare galerak).

Hortaz, sarritan gerta daiteke aitorpen batek errenta iturri bat baino gehiago izatea.

1.10. ¿CÓMO SE HAN CLASIFICADO LAS DECLARACIONES?

1.10.1. PRINCIPALES FUENTES DE RENTA

¿Cómo se calcula el impuesto?

En general, el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas tiene en cuenta, por una parte, todos los ingresos y gastos del contribuyente, y por otra, las pérdidas y ganancias por la venta de los bienes patrimoniales. La base liquidable del impuesto es el resultado de la siguiente operación: (rendimientos positivos – rendimientos negativos) + (ganancias patrimoniales – pérdidas patrimoniales).

Por lo tanto, es frecuente que una misma declaración contenga más de una fuente de renta.

Errenta iturri nagusiaren arabera sailkatu dira aitorpenak

Aitorpenak sailkatzerakoan errenta iturri nagusiak bakarrik hartu ditugu kontuan, aurreko urteetan bezala.

Hau da, kanpoan geratu dira egozpenetatik eratorritako errenta, garrantzi eskasekoa izateagatik, eta ondare irabazi eta galerak, irregularrak gertatzeagatik.

Hala ere, kapital higiezinaren etekinak eta kapital higigarriarenak errenta iturri bakartzat hartu ditugu; izan ere, kolektiboen artean banaketa desberdina duten arren, oso lotuta daude elkarren artean.

Las declaraciones se han clasificado según su principal fuente de renta

Al igual que en años anteriores, hemos clasificado las declaraciones ateniéndonos sólo a las principales fuentes de renta.

Es decir, no hemos tenido en cuenta ni la renta por imputaciones dada su irrelevancia, ni las ganancias y pérdidas patrimoniales por su irregularidad.

Sin embargo, hemos considerado como una sola fuente de renta los rendimientos del capital inmobiliario y los del capital mobiliario, porque están muy relacionados, a pesar de que estén distribuidos desigualmente entre los diferentes colectivos.

Hiru dira errenta iturri nagusiak

Horren arabera, errenta iturri nagusiak hiru hauek dira:

- Lanaren etekinak.
- Jarduera ekonomikoen etekinak.
- Kapital (higigarri + higiezinaren) etekinak.

Hiru talde horietako batean ez dauden aitorpenak “aitorpen mistoak” izeneko taldean sartu ditugu.

Las tres principales fuentes de renta

Así las cosas, las principales fuentes de renta son estas tres:

- Rendimientos de trabajo.
- Rtos. de actividades económicas.
- Rtos. capital (mobiliario + inmobiliario).

Las declaraciones que no pertenecen a ninguno de esos tres grupos las hemos agrupado bajo el nombre de “declaraciones mixtas”.


Ugarienak: lanaren aitorpenak

Errenta iturri nagusitzat besteren konturako lana duten aitorpenak dira ugarienak, 355.064 aitorpen guztira. Ekitaldian aurkeztutako guztien %88,1 dira.

El grupo más numeroso: las declaraciones de trabajo

Las declaraciones cuya principal fuente es el trabajo por cuenta ajena es el más numeroso y con 355.064 declaraciones representa el 88,1% del total presentadas en el ejercicio.


GRÁFICO 1.19. GRAFIKOA
Aitorpenak errenta iturrien arabera
Declaraciones por fuentes de renta



Talde bakoitzeko etekin garbiei erreparatzean ikusten da korrelazio handia dagoela aitorpen mota bakoitzak izan dituen etekin nagusien eta etekin osoen artean. Horrela, lan aitorpenetan ekitaldian aitortutako lan errenta osoaren %98,5 metatu da. Jardueren aitorpenetan (aitorpen guztien %6,5 baino ez dira) jarduera enpresarial edo profesionaletatik etorritako etekinaren %91,4 metatu da. Azkenik, kapitalaren aitorpenak aitortutako kapital higigarri eta higiezinaren etekin guztien %55,3 dira.

Al analizar los distintos rendimientos netos contenidos en cada grupo, se observa la gran correlación que existe entre los rendimientos principales de cada tipo de declaración y los totales. Así, en las declaraciones de trabajo se concentra el 98,5% del total de la renta de trabajo declarada en el ejercicio. En las declaraciones de actividades (que sólo representan el 6,5% del total), se concentra el 91,4% del rendimiento de actividades empresariales o profesionales. Por último, las declaraciones de capital recogen el 55,3% del total de rendimientos de capital mobiliario e inmobiliario declarado.

GRÁFICO 1.20. GRAFIKOA
Etekinen banaketa aitorpen motaren arabera
El análisis de las **sociedades con base liquidable positiva según su forma jurídica** no varía en exceso del realizado para el total de declarantes. Aunque son mayoría las de responsabilidad limitada (11.920, que suponen el 84,6% del total), destacan las sociedades anónimas ya que, siendo únicamente el 9,0% de las declaraciones, acumulan el 35,3% de la base liquidable, el 37,3% de cuota íntegra y el 38,6% de ingresos en Hacienda, respectivamente.

Oinarri likidagarri positiboa izan duten sozietateei Gipuzkoako araudia aplikatu zaie batez ere (%95,2 foru araudikoak dira). Jakina, zenbateko gehienak Gipuzkoako araudia aplikatu dutenetan metatu dira.

La normativa aplicable a las sociedades con **base liquidable positiva** es sobre todo la de Gipuzkoa (el 95,2% son de normativa foral). Naturalmente, también acumulan la mayoría de los importes.

Oinarri likidagarri positiboa izan duten sozietateak eskualdeka banatzean ikusten da kopuru osoaren %32,0 Donostian helbideratuta dagoela. Era berean, hiriburuak zenbateko guztien %25a metatu du ia kontzeptu guztietan. Debagoienak batez besteko tasa nominalik txikiena du, eta arrazoia da: sozietate kooperatibo askok eskualde honetan dutela helbidea. Batez besteko tasa efektiborik txikiena ere Debagoienan dago, eta eskualdea hau izan da bere kuota osoan murrizpenik handiena izan duena: ezarpen bikoitzagatik aplikatutako kenkariek (hobariak barne) eta jarduera ekonomikoari emandako pizgarri fiskalek (kooperatiben kenkaria barne) %3,5 eta %36,6 murriztu dute, hurrenez hurren, kuota osoa.

La **distribución por comarcas de las sociedades con base liquidable positiva** muestra que es en Donostia donde están domiciliadas el 32,0% del total y donde se acumula un cuarto de los importes por, prácticamente, todos los conceptos. Debagoiena es la comarca con menor tipo medio nominal, debido a la alta concentración de sociedades cooperativas con domicilio en esta comarca. El menor tipo medio efectivo también se da en Debagoiena, y es la comarca que mayormente ve reducida su cuota íntegra: la aplicación de deducciones por doble imposición (incluidos bonificaciones) e incentivos fiscales a la actividad económica (incluido deducción por cooperativa) en Debagoiena reducen su cuota íntegra en un 3,5% y 36,6%, respectivamente.

3.1. AURKEZTUTAKO AITORPENAK

Zenbat aitorpen aurkeztu dira?


2023n 25.845 aitorpen aurkeztu dira guztira, denak ere 2022ko ekitaldiari dagozkionak, aurreko urtean baino %0,5 gehiago (25.711 aurkeztu ziren orduan). Igoera honi batu behar diogu, partzialki salbuetsitako entitateak diren elkarteei gomendatzea (gida baten sorrera bidez) 200 eredua ez aurkezteko aukera. Bide hau 133 elkarteek hartu dute.

3.1. DECLARACIONES PRESENTADAS

¿Cuántas declaraciones se han presentado?

Las declaraciones presentadas en 2023, correspondientes al ejercicio 2022, han ascendido a 25.845, lo cual supone un aumento del 0,5% respecto a las 25.711 del año anterior. A este aumento hay que añadirle el efecto de la recomendación (vía creación de una guia) a las asociaciones que tengan la consideración de entidades parcialmente exentas de la opción de no presentar modelo 200. Se acogen a esta vía 133 asociaciones.

GRÁFICO 3.1. GRAFIKOA
Aitorpen kopuruaren bilakaera
Evolución del número de declaraciones



Erantzukizun mugatuko sozietateak dira ugarienak

Izaera juridikoari erreparatuz gero, lau taldetan banatzen ditugu sozietate aitortzaileak:

- Sozietate anonimoak: 1.880 (%7,3).
- Erantzukizun mugatuko sozietateak: 20.547 (%79,5).
- Sozietate kooperatiboak: 993 (%3,8).
- Bestelakoak: 2.425 (%9,4).

Ugarienak, alde handiz, erantzukizun mugatuko sozietateak dira, eta 2019-2022. epealdian partaidetza irabazten dute. 2019ko ekitaldian partaidetza sozietate guztien %77,1ekoa da eta 2022an %79,5ekoa.

Las sociedades de responsabilidad limitada, las más numerosas

Dividimos las sociedades declarantes en cuatro grupos según su forma jurídica:


- Sociedades anónimas: 1.880 (7,3%).
- Sociedades de responsabilidad limitada: 20.547 (79,5%).
- Sociedades cooperativas: 993 (3,8%).
- Otras: 2.425 (9,4%).

Las sociedades de responsabilidad limitada son, con gran diferencia, las más numerosas, y ganan participación en el periodo 2019-2022. En el ejercicio 2019 representan el 77,1% del total y en el 2022 el 79,5%.

Sozietate anonimoen taldea, azken lau urteetan kopuru osoaren %7,8 baino ez da izan eta urtetik urtera garrantzia galtzen jarraitzen du. 2022an %7,3raino jaitsi dira.

El grupo de las sociedades anónimas, no ha representado más del 7,8% en los últimos cuatro años y sigue perdiendo participación año tras año, disminuyendo hasta el 7,3% en 2022.

GRÁFICO 3.2. GRAFIKOA
Aitortzaile kopuruaren bilakaera izaera juridikoaren arabera
Evolución del número de declarantes según forma jurídica



Zein lurraldetan egin dituzte enpresek beren eragiketak?

Sozietateak eragiketa eremuaren arabera sailkatzen baditugu, hiru talde bereizten dira:

- Eragiketa guztiak Gipuzkoan egin dituztenak: 24.819 (%96,0).
- Eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituztenak, aurreko taldean sartutakoak kanpo utzita: 67 (%0,3).
- Eragiketen zati bat araubide erkideko lurraldean edo Nafarroan egin dutenak: 959 (%3,7).

¿En qué territorio realizan las empresas sus operaciones?


Clasificamos a las sociedades en tres grupos según su ámbito de operaciones:

- Las que realizan la totalidad de sus operaciones en Gipuzkoa: 24.819 (96,0%).
- Las que realizan la totalidad de sus operaciones dentro de la CAPV, excluyendo a las del grupo anterior: 67 (0,3%).
- Las que realizan parte de sus operaciones en territorio de régimen común o en Navarra: 959 (3,7%).

Banaketa hori ia aldaketarik gabe mantendu da urtetik urtera.

Esta distribución se mantiene prácticamente invariable año tras año.

GRÁFICO 3.3. GRAFIKOA
Sozietateen banaketa eragiketa eremuaren arabera
Distribución de las sociedades según ámbito de operaciones



Banaketa araudi aplikagarriaren arabera

Aurkeztutako 25.845 aitorpenak araudi aplikagarriaren arabera sailkatuz gero, honela banatzen dira:

- Gipuzkoako araudikoak: 24.930 (%96,5).
- EAEko beste araudikoak: 158 (%0,6).
- Araudi erkidekoak: 757 (%2,9).

Eragiketa eremuarekin gertatzen den bezala, araudi aplikagarriaren arabera egindako banaketak ez du aldaketa handirik erakusten aurreko urteen aldean. Azken lau urteetan sozietate guztien %96,0k Gipuzkoako araudia aplikatu dute.

Gipuzkoako araudia erabiltzen dute:

- Gipuzkoan zerga-egoitza duten sozietateek eta eragiketa bolumena 10 milioi eurotik beherakoa bada.
- Eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gora duten sozietateek, Euskal Herrian %74,99tik gorako eragiketak egiten badituzte edo Euskal Herrian arituta erkideko lurraldean %75etik beherako eragiketak egiten badituzte, eta Gipuzkoan badute zerga-egoitza.

- Eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gora duten sozietateek, Euskal Herrian

Distribución según la normativa aplicable

La normativa aplicable a las 25.845 declaraciones presentadas muestra la siguiente distribución:

- Normativa de Gipuzkoa: 24.930 (96,5%).
- Normativa resto de la CAPV: 158 (0,6%).
- Normativa Común: 757 (2,9%).

Al igual que ocurre con el ámbito de operaciones, la distribución según la normativa aplicable no presenta variaciones relevantes respecto a años anteriores. En los cuatro últimos ejercicios las sociedades que aplican normativa foral guipuzcoana está próximo al 96,0% del total.


Aplican normativa de Gipuzkoa:

- Las sociedades con domicilio fiscal en Gipuzkoa y volumen de operaciones inferior a 10 millones de euros.
- Las sociedades con volumen de operaciones de más de 10 millones de euros, y que hubieran realizado en el País Vasco el 75 por ciento o más de su volumen de operaciones u operando en el País Vasco realizan en Territorio Común menos del 75% de operaciones, y tienen domicilio fiscal en Gipuzkoa.
- Las sociedades con volumen de operaciones de más de 10 millones de

%74,99tik gorako eragiketak egiten badituzte, Euskal Herritik kanpo badute zerga-egoitza eta Gipuzkoa bada eragiketa kopuru handiena egiten den lurralde historikoa.

euros, que hubieran realizado en el País Vasco el 75 por ciento o más de su volumen de operaciones, tienen el domicilio fiscal fuera del País Vasco y Gipuzkoa es el Territorio Histórico donde se realiza el mayor número de operaciones.

GRÁFICO 3.4. GRAFIKOA
Sozietateen banaketa araudi aplikagarriaren arabera
Distribución de las sociedades según normativa aplicable



3.2. OINARRI LIKIDAGARRIA

Oinarri likidagarri osoa: 17.336 milioi euro

Sozietateek 17.336 milioi euroko oinarri likidagarri osoa aitortu dute 2022an.

Eragiketa eremuari begiratuz gero, honela banatzen da oinarri likidagarri osoa:

- Eragiketa guztiak Gipuzkoan egin dituzten sozietateek 467 milioi euroko oinarri likidagarria eman dute (%2,7).
- Eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituztenak: 216 milioi euro (%1,2).
- Eragiketen zati bat araubide erkideko lurraldean edo Nafarroan egin duten sozietateak: 16.654 milioi euro (%96,1).

Egotzitako oinarri likidagarria: 906 milioi euro

Aitortutako oinarri likidagarri osoari enpresak Gipuzkoan egin duen eragiketa bolumenaren portzentajea aplikatzen bazaio egotzitako oinarri likidagarria kalkulatzen da. Adibidez: 100eko

3.2. BASE LIQUIDABLE

Base liquidable total: 17.336 millones de euros

La base liquidable total declarada por las sociedades para 2022 se eleva a 17.336 millones de euros.

Atendiendo al ámbito de operaciones, la base liquidable total se divide de esta manera:

- Las sociedades que realizan la totalidad de sus operaciones en Gipuzkoa, suman una base liquidable de 467 millones de euros (2,7%).
- Las que realizan la totalidad de sus operaciones dentro de la CAPV, 216 millones de euros (1,2%).
- Las sociedades que realizan parte de sus operaciones en territorio de régimen común o en Navarra, 16.654 millones de euros (96,1%).

Base liquidable imputada: 906 millones de euros

La base liquidable imputada se calcula aplicando a la base liquidable total declarada el porcentaje de volumen de operaciones realizado por la empresa en Gipuzkoa. Así, por ejemplo, si una sociedad

oinarri likidagarria aitortzen duen sozietate batek Gipuzkoan eragiketen %17 bakarrik egiten badu, 17ko oinarri likidagarria egotziko zaio.

Gipuzkoari egotzitako oinarriak 906 milioi euroko zenbatekoa du guztira. Eragiketak non egiten diren kontuan harturik, honela banatzen da egotzitako oinarria:

- Eragiketa guztiak Gipuzkoan egin dituzten sozietateak: 467 milioi euro (egotzitako oinarri osoa: 906 milioi euro).

- Eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egin dituztenek 27 milioi euroko zerga oinarria egotzi diote Gipuzkoari.
- Eragiketen zati bat araubide erkideko lurraldean edo Nafarroan egin duten sozietateak: 411 milioi euro.

Jakina, eragiketen %100 Gipuzkoan egiten duten sozietateen kasuan, oinarri likidagarri osoa bat dator egotzitako oinarri likidagarriarekin.

Hemendik aurrera izango dugun aztergaia honako hau izango da: enpresek gure lurraldean egindako eragiketa bolumenaren arabera **Gipuzkoari egotzitako** oinarri likidagarria eta beronetik eratortzen diren gainerako parametroak.

%45,5k oinarri likidagarri negatibo edo nulua du

Guztira 25.845 enpresa aitortzaile izan badira, horietatik 7.351k (%28,4) kontabilitate emaitza negatiboa (1.630 milioi euroko galerak) aitortu dute, %14,4ak (3.714 enpresa) etekin nulua, eta %57,2k (14.780 enpresa) kontabilitate emaitza positiboa (4.960 milioi euroko irabaziak).

Kontabilitate emaitzari kontabilitatez kanpoko doiketak ezarriz, mikroenpresen zerga konpentsazioa ezarriz, erreserbatara eginiko ekarpenak murriztuz eta aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioak eginez, oinarri likidagarria lortzen da.

Aurkezturiko aitorpenen %45,5ak (11.753 enpresa) oinarri likidagarri negatiboa edo nulua jasotzen dute. Oinarri likidagarri nulua duten enpresek (4.755), kopuru osoaren %18,4 dira.

Oinarri likidagarri negatiboa 1.449 milioi eurokoa izan da orotara, batez beste -207.095 euro enpresa bakoitzeko.

declara una base liquidable de 100, pero realiza en Gipuzkoa sólo el 17% de sus operaciones, tendrá una base liquidable imputada de 17.

El importe global de esa base imputada a Gipuzkoa es de 906 millones de euros. Según dónde realiza la empresa sus operaciones, se distribuye de la siguiente manera:

- Las sociedades que realizan la totalidad de sus operaciones en Gipuzkoa, 467 millones de euros (base imputada total de 906 millones de euros).
- Las que realizan la totalidad de sus operaciones dentro de la CAPV imputan a Gipuzkoa una base imponible de 27 millones de euros.
- Las sociedades que realizan parte de sus operaciones en territorio de régimen común o en Navarra, 411 millones de euros.

Naturalmente, para las sociedades que realizan el 100% de sus operaciones en Gipuzkoa, la base liquidable total coincide con la imputada.

En lo sucesivo, el análisis que efectuamos estará referido a la base liquidable y demás parámetros que de ella derivan **imputados a Gipuzkoa**, en función del volumen de operaciones realizado por las empresas en nuestro Territorio Histórico.

El 45,5% tiene una base liquidable negativa o nula

Del total de 25.845 declarantes, el 28,4% (7.351 empresas) declaran tener resultado contable negativo (pérdidas de 1.630 millones de euros), el 14,4% (3.714 empresas) resultado cero, y el 57,2% (14.780 empresas) resultado contable positivo (ganancias de 4.960 millones de euros).

La base liquidable se obtiene aplicando los ajustes extracontables al resultado contable, aplicando la compensación tributaria de microempresas, minorando la aportación a reservas y compensando las bases imponibles negativas de ejercicios anteriores.

En el 45,5% de las declaraciones presentadas (11.753 empresas) se consigna base liquidable negativa o nula. Las empresas que declaran base liquidable nula suponen el 18,4% del total (4.755 empresas).

El importe total de la base liquidable negativa asciende a 1.449 millones de euros, resultando una media de -207.095 euros por empresa.

14.092 enpresak (kopuru osoaren %54,5ak) oinarri likidagarri positiboa aitortu dute, eta aitortutako zenbatekoa 2.355 milioikoa izan da guztira. Horrekin, batez besteko oinarri positiboa 167.118 eurokoa izan da.

Los declarantes de bases liquidables positivas son 14.092 empresas (54,5% del total) y el importe total por ellas declarado asciende a 2.355 millones, siendo así la base positiva media de 167.118 euros.


%70,7k - 30.000 eta + 30.000 euro bitarteko oinarria aitortu du

Aitorpen gehienak oinarri likidagarriaren erdiko tarteetan pilatzen dira. Izan ere, enpresen %70,8k (18.269) aitortu du Gipuzkoari egotzitako oinarri likidagarria -30.000 eta +30.000 euro bitartekoa dela. Hala ere, beren oinarri likidagarriei dagokienez, aitorpen horien zenbatekoa 35,2 milioi eurokoa da guztira.

El 70,7% declara una base de entre - 30.000 y +30.000 euros

En la parte media de los tramos de base liquidable se concentra la mayor parte de declaraciones. El 70,8% de las empresas (18.269) declara una base liquidable imputada a Gipuzkoa entre -30.000 euros y +30.000 euros. Sin embargo, en cuanto al importe de sus bases liquidables, estas declaraciones totalizan 35,2 millones de euros.

GRÁFICO 3.5. GRAFIKOA
Aitorpen kopurua, egotzitako oinarri likidagarriaren tarteen arabera
Número de declaraciones por tramos de base liquidable imputada



Sozietate anonimoek 573 milioi euroko oinarri likidagarri osotik 906 milioi euro metatu dute.

Enpresa aitortzaileen izaera juridikoaren arabera, sozietate anonimoek, aitortzaile kopuruaren %7,3 baino ez badira ere, oinarri likidagarri osoaren %63,3 (573 milioi euro) biltzen dute.

Erantzukizun mugatuko sozietateek, ugarienak izan arren (aitortzaile guztien %79,5), 853 milioi euroko oinarri likidagarria aitortzen dute (oinarri likidagarri osotik %94,2).

Sozietate kooperatiboek (kopuru osoaren %3,8) 108 milioi euroko ekarpena dute ekitaldiko oinarri likidagarrian.

Bestelako sozietateen taldeak (kopuru osoaren %9,4) -629 milioi euroko ekarpena dute ekitaldiko oinarri likidagarrian.

Las sociedades anónimas acumulan 573 millones de euros de un total de base liquidable de 906 millones de euros.


Según la forma jurídica de las empresas declarantes, las sociedades anónimas siendo solo el 7,3% de los declarantes, aportan el 63,3% (573 millones de euros) de la base liquidable total.

Las sociedades de responsabilidad limitada, aún siendo las más numerosas (79,5% del total de declarantes), declaran base liquidable de 853 millones de euros (94,2% del total de base liquidable).

Las sociedades cooperativas (3,8% del total) aportan 108 millones de euros a la base liquidable del ejercicio.

El grupo de otras sociedades (9,4% del total) aportan -629 millones de euros a la base liquidable del ejercicio.

GRÁFICO 3.6. GRAFIKOA
Aitorpen kopuruaren eta oinarri likidagarriaren banaketa izaera juridikoaren arabera
Distribución del número de declaraciones y la base liquidable según forma jurídica



Batez besteko oinarri likidagarria: sozietate anonimoen taldean sailkatutako sozietateak dira nagusi.

2022ko ekitaldian sozietate anonimoak eta sozietate kooperatiboak taldeek batez besteko oinarri likidagarririk handiena aitortu dute, 304.817 euro eta 108.717 euro hurrenez hurren (batez besteko orokorra 35.046 eurokoa da).

Beste taldeetan kopuru hauek ageri dira:

- Bestelakoak: -259.223 euro.
- Erantzukizun mugatuko sozietateak: 41.533 euro.


Base liquidable media: destacan las sociedades clasificadas como sociedades anónimas.

En el ejercicio 2022 son las clasificadas como sociedades anónimas y como sociedades cooperativas las que declaran mayor base liquidable media: 304.817 euros y 108.717 euros respectivamente (la media general es de 35.046 euros).

Las cuantías para el resto de grupos son las siguientes:

- Otras: -259.223 euros.
- Sociedades de responsabilidad limitada: 41.533 euros.

GRÁFICO 3.7. GRAFIKOA
Batez besteko oinarri likidagarria izaera juridikoaren arabera
Base liquidable media según forma jurídica



3.3. ZERGAREN LIKIDAZIO BATERATUA

Sozietateen gaineko zergaren 2022ko likidazio bateratuaren emaitzak komentatzen hasi aurretik, honako puntuok azpimarratu behar dira:

- Aldi baterako enpresa-batasunek (AEB) eta interes ekonomikoko taldeek (IET) partaidetza portzentajearen arabera egozten dizkiete beren

3.3. LIQUIDACIÓN CONSOLIDADA DEL IMPUESTO

Antes de entrar a comentar los resultados de la liquidación consolidada del Impuesto sobre Sociedades para el ejercicio 2022 conviene destacar algunos puntos a tener en cuenta:

- Las Uniones Temporales de Empresas (UTE) y las Agrupaciones de Interés Económico (AIE) imputan tanto la base liquidable como el resto

bazkideei oinarri likidagarria eta gainerako kenkari eta hobariak. Hori dela-eta, oinarri likidagarritik aurrerako analisia sozietate horiek kontuan hartu gabe egiten da.

- Aipatzen ditugun zenbateko guztiak Gipuzkoari egotzitako kopuruak dira, alegia, entitateak aitortutako eragiketa bolumenaren portzentajea kontuan izanik egotzi direnak.

- Hasieran aipatu dugun bezala, zerga kontsolidazioko erregimenean ordaintzen duten enpresak (talde kontsolidatuak) bakarkako aitorpena eta taldeko aitorpena aurkezten dute. Gure azterketan bakarkako aitorpenen emaitza kontuan hartzen dugu, eta horrek ez du zergatik bat etorri behar taldeak aurkezturiko ordaindu edo itzultzeko likidoarekin (benetan ordaindutako kopurua edo itzuli behar dena).

Oinarri likidagarri negatiboa duten sozietateen likidazioa

Oinarri likidagarria kalkulatzeko, ekitaldiko kontabilitate emaitzari zergaren araudian aurreikusten diren kontabilitatez kanpoko doiketak egin behar zaizkio.

11.753 sozietatek izan dute oinarri likidagarri negatiboa (kopuru osoaren %45,5).

Ondoko eskeman ikusgai jartzen dugu nola iristen den jakitera, kontabilitate emaitzatik abiatuta, zenbat ordaindu edo zenbat itzuli behar den.

Honako datu nagusiak atera daitezke:

- Kontabilitatez kanpoko zuzenketek eta aurreko ekitaldietako oinarri negatiboengatik egindako konpentsazioek amaierako oinarri likidagarria kontabilitate emaitza baino txikiagoa izatea ekarri dute.

- Itzultzeko likido bat sortzen da, zeina atxikipenen eta konturako ordainketen berdina den ia.

de deducciones y bonificaciones a sus socios, según su porcentaje de participación en la misma. Por esta razón, a partir de la base liquidable el análisis se realiza sin tener en cuenta a estas sociedades.

- Todos los importes que mencionamos hacen referencia a cantidades imputadas a Gipuzkoa, según el porcentaje de volumen de operaciones declarado por la entidad.

- Tal y como se ha comentado al inicio, las empresas que tributan por el régimen de consolidación fiscal (Grupos Consolidados) presentan declaración individual y declaración del Grupo. En nuestro análisis tenemos en cuenta el resultado de la declaración individual, que no tiene porqué coincidir con el líquido a ingresar o a devolver presentado por el Grupo (importe realmente ingresado o cuya devolución se solicita).

Liquidación para sociedades con base liquidable negativa

La base liquidable del impuesto se obtiene efectuando sobre el resultado contable del ejercicio los correspondientes ajustes extracontables previstos por la normativa del impuesto.

El número de sociedades con base liquidable negativa asciende a 11.753, el 45,5% del total.

En el siguiente esquema se muestra cómo, partiendo del resultado contable, se llega a conocer la cantidad a ingresar o a devolver.

Los principales datos que se pueden extraer son:


- Las correcciones extracontables y la compensación con bases negativas de ejercicios anteriores, hacen que la base liquidable final sea menor que el resultado contable.

- Se genera un líquido a devolver que coincide casi con las retenciones y pagos a cuenta.

GRÁFICO 3.8. GRAFIKOA

Oinarri likidagarri negatiboa duten sozietateak. Likidazio bateratuaren laburpena

Resumen de la liquidación consolidada para sociedades con base liquidable negativa



Eurotan / En euros

Oinarri likidagarri positiboa duten sozietateen likidazioa

14.092 sozietatek izan dute oinarri likidagarri positiboa (kopuru osoaren %54,5). 3.9. grafikoan ikusgai jartzen dugu nola iristen den jakitera, kontabilitate emaitzatik abiatuta, zenbat ordaindu edo zenbat itzuli behar den.

Bere azterketak honako ondorioak utzi ditu agerian:

- Batez besteko tasa nominala (kuota osoaren eta oinarri likidagarriaren arteko erlazioa) %22,6 da.
- Gutxipenek %20,0 murriztu dute doitutako kuota osoa.
- Herri Ogasunari 420 milioi euroko diru-sarrerak egin zaizkio guztira (atxikipenak + ordainketa zatikatuak + ordaintzeko likidoa).
- Batez besteko tasa efektiboa (Ogasunari ordaindutakoaren eta oinarri likidagarriaren arteko erlazioa) %18,1 da.

Zergaren Foru Arauak II kapituluan arautzen dituen kuota osoko kenkariak, honela banakatzen dira:

- Digitalizazioa sustatzeko kenkaria/TicketBAI-ren inplementazioa: 934 entitatek aplikatu dute kenkaria, eta 834.898 eurokoa izan da.
- Kenkaria aldi baterako neurrien lehengoratzeagatik: 18 entitatek aplikatu dute kenkaria, eta 8.331 eurokoa izan da.
- Zergapetze bikoitzagatik kenkaria: 412 entitatek aplikatu dute kenkaria, eta 7.751.939 eurokoa izan da.
- Kenkaria portu agintaritzek egindako inbertsioengatik: entitate batek aplikatu du kenkaria, eta 24.414 eurokoa izan da.

Liquidación para sociedades con base liquidable positiva

El número de sociedades con base liquidable positiva asciende a 14.092, el 54,5% del total. En el gráfico 3.9. se muestra cómo, partiendo del resultado contable, se llega a conocer la cantidad a ingresar o a devolver.

De su análisis resultan las siguientes conclusiones:

- El tipo medio nominal (relación entre cuota íntegra y base liquidable) es del 22,6%.
- Las minoraciones de la cuota íntegra ajustada reducen ésta en un 20,0%.
- Los ingresos totales en la hacienda pública (retenciones + pagos fraccionados + líquido a ingresar) se elevan a 420 millones de euros.
- El tipo medio efectivo (relación entre ingresos en Hacienda y base liquidable) es del 18,1%.


El desglose de las deducciones de la cuota íntegra reguladas en el capítulo II de la Norma Foral del Impuesto, es el siguiente:

- Deducción para fomentar la digitalización/implantación de TicketBAI: 934 entidades aplican dicha deducción, ascendiendo el importe a 834.898 euros.
- Deducción por reversión de medidas temporales: 18 entidades aplican dicha deducción, ascendiendo el importe a 8.331 euros.
- Deducción por doble imposición: 412 entidades aplican dicha deducción, ascendiendo el importe a 7.751.939 euros.
- Deducción por inversiones realizadas por las Autoridades Portuarias: una entidad aplica dicha deducción, ascendiendo el importe a 24.414 euros.

GRÁFICO 3.9. GRAFIKOA

Oinarri likidagarri positiboa duten sozietateak. Likidazio bateratuaren laburpena

Resumen de la liquidación consolidada para sociedades con base liquidable positiva



Eurotan / En euros

3.4. OINARRI LIKIDAGARRI POSITIBOA DUEN AITORPEN BATERATUAREN TIPOLOGIA

Zergaren zenbait magnitude metatu, oinarri likidagarri positiboaren tarteen arabera

Oinarri likidagarri positiboa duten aitorpenak aztertuko ditugu jarraian. 3.10 grafikoan lotzen ditugu oinarri likidagarri positiboa izan duten aitorpenen kopuru metatua, kuota osoena eta ordaintzeko likidoena, behetik gorako hurrenkeran jarriak eta oinarri likidagarriaren tarteen arabera sailkatuak.

3.4. TIPOLOGÍA DE LA DECLARACIÓN CONSOLIDADA CON BASE LIQUIDABLE POSITIVA


Algunas magnitudes del impuesto acumuladas por tramos de base liquidable positiva

Vamos a centrar la atención en las declaraciones con base liquidable positiva. En el gráfico 3.10 se relacionan los importes acumulados de número de declaraciones que presentan base liquidable positiva, de sus cuotas íntegras y del líquido a ingresar, ordenados por tramos crecientes de base liquidable.

GRAFICO 3.10 GRAFIKOA

Aitorpen kopuruaren, kuota osoaren eta ordaintzeko likidoaren portzentaje metatuak oinarri likidagarri positiboaren tarteen arabera

Nº declaraciones, cuota íntegra y líquido a ingresar acumulados por tramos de base liquidable positiva



Grafikoan ikus daiteke oinarri likidagarriaren azken tartean (6.000.000 eurotik gorakoan) kuota osoaren eta ordaintzeko likidoaren 28,7 eta ordaintzeko likidoaren %31,1 aitortzaileen %0,4k jartzen dute (oinarri likidagarri handienekoek).

En él se puede apreciar la gran concentración de la cuota íntegra y del líquido a ingresar en el último tramo de base liquidable (superior a 6.000.000 euros): el 28,7% del total de cuota íntegra y el 31,1% del líquido a ingresar son aportados por el 0,4% de declarantes (los de mayor base liquidable).

3.4.1. IZAERA JURIDIKOA

Ugarienak: erantzukizun mugatuko sozietateak

Oinarri likidagarri positiboa izan duten 14.092 sozietateak honela banatzen dira:

- Sozietate anonimoak: 1.269 (%9,0).
- Erantzukizun mugatuko sozietateak: 11.920 (%84,6).
- Sozietate kooperatiboak: 523 (%3,7).
- Bestelakoak: 380 (%2,7).

Sozietate anonimoak: proportzionalki oinarri eta kuota handienekoak.

Kopuruz, oinarri likidagarri positiboa duten sozietateetatik, soilik %9,0a izanik, sozietate anonimoek oinarri likidagarriaren %35,3 biltzen dute, kuota osoaren %37,3 eta Ogasunari egindako diru-sarreren %38,6. Hurrengo grafikoan ikusgai jarri dugu zein den talde bakoitzaren portzentajea zenbateko osoarekiko.

3.4.1 FORMA JURÍDICA

El grupo más numeroso: las sociedades de responsabilidad limitada

Las 14.092 sociedades con base liquidable positiva se distribuyen así:

- Sociedades anónimas: 1.269 (9,0%).
- Sociedades de responsabilidad limitada: 11.920 (84,6%).
- Sociedades cooperativas: 523 (3,7%).
- Otras: 380 (2,7%).


Sociedades anónimas: las que proporcionalmente más base y cuota aportan

Las sociedades anónimas concentran el 35,3% de la base liquidable, el 37,3% de la cuota íntegra y el 38,6% de los ingresos en Hacienda, siendo únicamente el 9,0% de las sociedades con base liquidable positiva. En el siguiente gráfico se muestran los porcentajes de cada grupo respecto al total.

GRÁFICO 3.11. GRAFIKOA

Oinarri likidagarria, kuota osoa eta Ogasunari egindako diru-sarrerak. Banaketa izaera juridikoaren arabera

Distribución de la base liquidable, cuota íntegra e ingresos en Hacienda, según forma jurídica



"Bestelakoen" taldeari dagokion oinarri likidagarriak zenbateko osoaren %0,3 hartzen du, eta kuota osoak %0,2, hau da,0,1 puntu gutxiago. Talde honen barruan %0ko karga tasa duten entitateak daudelako gertatzen da hori (entitate salbuetsiak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak eta pentsio planak).

La base liquidable que aporta el grupo de "otras" representa el 0,3% del total, mientras que la cuota íntegra es el 0,2%, 0,1 puntos menos; esto se debe a que dentro de este grupo existen entidades con tipos de gravamen del 0% (entidades exentas, entidades de previsión social voluntaria y planes de pensiones).


Zein taldek jaso du jarduera ekonomikorako pizgarri gehiago?

Jarduera ekonomikorako laguntza fiskalik handienak erantzukizun mugatuko sozietateek jaso dituzte, 46,3 milioi euro guztira, kopuru osoaren %54,0. Hona hemen banaketa taldeen arabera:

¿Qué grupo se beneficia más de los incentivos a la actividad económica?

Las sociedades de responsabilidad limitada son las que más incentivos fiscales a la actividad económica reciben, 46,3 millones de euros, que suponen el 54,0% del total. La distribución por grupos es ésta:

GRÁFICO 3.12. GRAFIKOA
Pizgarri fiskalen banaketa izaera juridikoaren arabera
Distribución de los incentivos fiscales, según forma jurídica



Batez besteko tasak: nominala eta efektiboa

Batez besteko tasa nominalak kuota osoa eta oinarri likidagarria erlazionatzen ditu; adierazten digu oinarriaren zein portzentaje bihurtzen den kuota oso. Oinarri likidagarri positiboa duten entitate guztiak hartuta, tasa hau %22,6 izan da.

Tasarik handiena (%23,9) sozietate anonimoek dute, ekitaldi honetarako ezarritako karga tasa orokorretatik oso gertu. "Bestelakoen" taldeak, aldiz, tasarik txikiena izan du (%16,4), batez besteko orokorraren tasatik oso urrun.

Tipo medio nominal y tipo medio efectivo

El **tipo medio nominal** relaciona la cuota íntegra con la base liquidable; señala qué porcentaje de la base se convierte en cuota íntegra. Para el total de entidades con base liquidable positiva es del 22,6%.

Las sociedades anónimas presentan el tipo más alto, 23,9%, muy cerca de los tipos de gravamen generales del impuesto para este ejercicio. El tipo más bajo es el del grupo de "otras", 16,4%, muy lejos del correspondiente a la media general.


Batez besteko tasa efektiboak Ogasunari egindako diru-sarrerak eta oinarri likidagarria erlazionatzen ditu; adierazten digu oinarriaren zein portzentaje bihurtzen den sarrera. Oinarri likidagarri positiboa duten entitate guztiak hartuta, tasa hau %18,1ekoa da, hots, 100eko oinarri likidagarri bakoitzetik Ogasunari 18,1 euro ordaindu zaizkio.

Kasu honetan ere sozietate anonimoak batez besteko tasarik handiena izan dute, %19,8 hain zuzen (batez besteko orokorra baino 1,7 puntu gehiago). Sozietate kooperatiboak taldean txikiena ageri da, %3,9 (batez besteko orokorra baino 14,2 puntu gutxiago).

El **tipo medio efectivo** relaciona los ingresos en Hacienda con la base liquidable; nos indica qué porcentaje de la base se convierte en ingreso. Para el total de entidades con base liquidable positiva es del 18,1%, es decir, de cada 100 euros de base liquidable se ingresan 18,1 euros.

Son también las sociedades anónimas las que mayor tipo medio efectivo presentan: el 19,8% (1,7 puntos más que la media general) y el grupo de sociedades cooperativas las que menor tipo, el 3,9% (14,2 puntos menos que la media general).

GRÁFICO 3.13. GRAFIKOA
Tasa nominala eta tasa efektiboa. Batez bestekoak izaera juridikoaren arabera
Tipo nominal y tipo efectivo. Medias por forma jurídica



3.4.2. ARAUDI APLIKAGARRIA

Zein araudi aplikatu dute enpresa gehienek?

Oinarri likidagarri positiboa duten enpresak honela banatzen dira araudi aplikagarriaren arabera:

- Gipuzkoako araudikoak: 13.420 (%95,2).
- EAEko beste araudikoak: 119 (%0,8).
- Araudi erkidekoak: 553 (%3,9).

3.4.2. NORMATIVA APLICABLE

¿Qué normativa se aplica la mayoría de las empresas?

Las empresas con base liquidable positiva se distribuyen, según la normativa aplicable, de la siguiente forma:

- Normativa foral Gipuzkoa: 13.420 (95,2%).
- Normativa resto CAPV: 119 (0,8%).
- Normativa común: 553 (3,9%).

Gipuzkoako araudikoak: beren ekarpena oinarriaren eta kuotaren %83,4tik gora dago

Gipuzkoako foru araudia aplikatzen duten enpresak dira kopuruz ugarienak eta, horren ondorioz, portzentajerik handienak biltzen dituzte: oinarri likidagarriaren %84,2, kuota osoaren %83,4 eta Ogasunari egindako diru-sarreren %80,8.

Era berean, azpimarratzekoa da araudi erkideko sozietateak kopuru osoaren %3,9 baino ez izan arren, %12,4ko portzentajea lortu dutela oinarri likidagarrian, %13,1ekoa kuota osoan eta %15,8koa Ogasunari egindako diru-sarreretan.

Normativa foral de Gipuzkoa: aportan más del 83,4% de la base y de la cuota


Las empresas de normativa foral de Gipuzkoa, al ser las más numerosas, acumulan el 84,2% de la base liquidable, el 83,4% de la cuota íntegra y el 80,8% de los ingresos en Hacienda.

También cabe destacar que las sociedades de normativa común, a pesar de representar sólo el 3,9% del total, acumulan el 12,4% de la base liquidable, el 13,1% de la cuota íntegra y el 15,8% de los ingresos en Hacienda.

GRÁFICO 3.14. GRAFIKOA

Oinarri likidagarria, kuota osoa eta Ogasunari egindako diru-sarrerak. Banaketa araudi aplikagarriaren arabera

Distribución de la base liquidable, cuota íntegra e ingresos en Hacienda, según normativa aplicable



Araudi erkidekoak: batez besteko tasa efektiborik handienekoak

Batez besteko tasa nominalik handiena araudi erkideko enpresek izan dute (%24,0, batez besteko orokorra %22,6 izan denean) eta gainera, enpresa horiek eta EAEko araudikoak dira aipatutako batez besteko orokorra gainditu dutenak. Beren batez besteko tasa efektiboa ere hiru taldeetako handiena da: %23,2 (%18,1 izan da orokorra).

Foru araudiko enpresetan, tasa efektiboa eta nominala batez besteko orokorrak baino txikiagoak dira (%22,4 eta %17,4, hurrenez hurren). Batez

Normativa común: las que mayor tipo medio efectivo presentan

Las empresas de normativa común son las que presentan el mayor tipo medio nominal (24,0%, frente al 22,6% de la media general). Estas junto con las de normativa resto CAPV tienen tipo superior a la citada media general. También su tipo medio efectivo es el mayor de los tres grupos: 23,2% frente al 18,1% general.

Las empresas de normativa foral presentan tipo medio nominal y efectivo inferior a la media general: 22,4% y 17,4% respectivamente.

besteko tasa efektibo hau, tasaren arabera xehetuz gero ondorendo emaitza izango dugu:

- %10 : %4,3.
- %18 : %7,6.
- %19 : %12,3.
- %20 : %14,9.
- %24 : %18,6.
- Ondare entitateak : %23,7 (PFEZren aurrezpenaren tasa aplikatzen dute).

%24 tasa orokorra da. 1.953 entitatek tasa hau aplikatzen dute, oinarri likidagarria 1.110 milioi eurokoa da eta kuota efektiboa 206 milioi eurokoa.

%20 tasa mikroenpresak, enpresa txikiak eta babestutako kooperatibak dute. 9.578 entitatek tasa hau aplikatzen dute, oinarri likidagarria 723 milioi eurokoa da eta kuota efektiboa 107 milioi eurokoa.


Desglosando este tipo medio efectivo por tipo de gravamen obtenemos el siguiente resultado:

- 10% : 4,3%.
- 18% : 7,6%.
- 19% : 12,3%.
- 20% : 14,9%.
- 24% : 18,6%.
- Sociedades patrimoniales : 23,7% (aplican la tarifa del ahorro del IRPF).

El 24% es el tipo general. Tributan a este tipo 1.953 entidades, con base liquidable de 1.110 millones de euros y cuota efectiva de 206 millones de euros.

El 20% es el tipo de las microempresas, pequeñas empresas y cooperativas protegidas. Tributan a este tipo 9.578 entidades, con base liquidable de 723 millones de euros y cuota efectiva de 107 millones.

GRÁFICO 3.15. GRAFIKOA
Tasa nominala eta tasa efektiboa. Batez bestekoak araudi aplikagarriaren arabera
Tipo nominal y tipo efectivo. Medias según normativa aplicable



3.4.3. ESKUALDEEN ARABERA

Hiriburu gisa dituen ezaugarri bereziak direla-eta, eskualdeen araberako sailkapena egiterakoan, Donostia hiria Donostialdea eskualdetik kanpo utzi dugu eta beste eskualde bat balitz bezala hartu.

Bestelakoen taldean Gipuzkoatik kanpo helbideratuta dauden sozietateak sartu ditugu.

3.4.3. POR COMARCAS

En la clasificación comarcal hemos dejado fuera de la comarca de Donostialdea a la propia ciudad de Donostia (a causa de sus específicas características como capital) y la hemos considerado como comarca diferente.

En “Otros” agrupamos aquellas sociedades que declaran tener su domicilio fuera de Gipuzkoa.

Aitortzaile kopurua: Donostiak %32,1 metatu du

Oinarri likidagarri positiboa duten 14.092 entitateak helbideraturik dauden eskualdearen arabera sailkatuz gero, banaketa hau ageri da:

- Donostia: 4.515 (%32,0).
- Bidasoa Behea: 1.517 (%10,8).
- Donostialdea: 1.510 (%10,7).
- Urola Kosta: 1.369 (%9,7).
- Oarsoaldea: 1.039 (%7,4).
- Debabarrena: 895 (%6,4).
- Goierri: 887 (%6,3).
- Tolosaldea: 873 (%6,2).
- Debagoiena: 793 (%5,6).
- Bestelakoak: 694 (%4,9).

Donostiak, probintziako hiriburua izaki, badu faktore garrantzitsu bat bere alde, hain zuzen ere, entitate askok bertan dutela helbide soziala, produkzio zentroak probintziako beste toki batzuetan egon arren. Horrek, noski, badu eraginik bai aitorpen kopuruaren eta bai gainerako aldagaien banaketan (oinarri likidagarrian, kuota osoan eta Ogasunari egindako diru-sarreretan), jarraian ikusiko dugunez.

Número de declarantes: Donostia concentra el 32,1%

Si clasificamos a las 14.092 entidades con base liquidable positiva según la comarca donde se halla su domicilio social, la distribución queda de la siguiente manera:


- Donostia: 4.515 (32,0%).
- Bidasoa Behea: 1.517 (10,8%).
- Donostialdea: 1.510 (10,7%).
- Urola Kosta: 1.369 (9,7%).
- Oarsoaldea: 1.039 (7,4%).
- Debabarrena: 895 (6,4%).
- Goierri: 887 (6,3%).
- Tolosaldea: 873 (6,2%).
- Debagoiena: 793 (5,6%).
- Otros: 694 (4,9%).

Donostia, al ser la capital de la provincia, se beneficia de que muchas entidades mantengan allí su domicilio social, aún teniendo sus centros de producción distribuidos en otros puntos de la provincia. Naturalmente, este hecho afecta tanto al reparto del número de declarantes, como a la distribución del resto de variables (base liquidable, cuota íntegra e ingresos en Hacienda), tal y como veremos a continuación.

GRÁFICO 3.16. GRAFIKOA

Oinarri likidagarria, kuota osoa eta Ogasunari egindako diru-sarrerak. Banaketa eskualdeen arabera

Distribución de la base liquidable, cuota íntegra e ingresos en Hacienda, por comarcas



Donostia kontzeptu guztietan gailentzen da

Aitorpen kopuruarekin gertatzen den bezala, Donostia beste eskualde guztiei ere nagusitzen zaie oinarri likidagarrian (%24,2), kuota osoan (%24,0), sartu beharreko likidoa (%26,0) eta Ogasunari egindako diru-sarreretan (%24,8).

Gainerako eskualdeen artean Donostialdea eta Urola Kosta nabarmentzen dira. Donostialdea oinarriaren %13,2, kuotaren %13,1 eta Ogasunari egindako sarreren %12,8rekin. Urola Kosta oinarriaren %8,2, kuotaren %8,2 eta Ogasunari egindako sarreren %7,9rekin.

"Bestelakoen" taldea ere aipatzekoa da: oinarriaren %15,9, kuotaren %16,7 eta Ogasunari egindako sarreren %19,4.

Lauen artean oinarri, kuota eta sarrera osoaren %61,5 baino gehiago hartzen dute; aldiz, gainerako eskualdeen partaidetza txikiagoa da.

Donostia sobresale en todos los conceptos

Al igual que ocurre con el número de declaraciones, Donostia acumula también la mayoría de la base liquidable (24,2%), de la cuota íntegra (24,0%), del líquido a ingresar (26,0%) y de los ingresos en Hacienda (24,8%).

Del resto de comarcas sobresalen Donostialdea y Urola Kosta. Donostialdea con un 13,2% de la base, 13,1% de la cuota y 12,8% de los ingresos en Hacienda. Urola Kosta con un 8,2% de la base, 8,2% de la cuota y 7,9% de los ingresos en Hacienda.

También destaca el grupo de Otros (15,9% de la base, 16,7% de la cuota y 19,4% de los ingresos en Hacienda).

Entre las cuatro se reparten más del 61,5% del total de base, cuota e ingresos, mientras que la aportación de cada una de las comarcas restantes es inferior.

Debagoienak batez besteko tasa nominalik txikiena du

Debagoienan batez besteko tasa nominala %21,8 da, orokorra %22,6koa denean. Hauxe da arrazoia: sozietate kooperatibo askok eskualde honetan dutela helbide soziala eta beren karga tasak orokorra baino txikiagoak direla. Gainera, talde inbertsioko entitate asko daude kokatuta eskualde honetan eta %1 tasa daukate. Bere batez besteko tasa efektiboa ere txikienetakoa da: %13,0, oinarri likidagarri positiboa izan duten aitortzaile kopuru osoarena %18,1 izan denean.

Debagoiena es la comarca con menor tipo medio nominal.

El tipo medio nominal en Debagoiena es del 21,8%, frente al 22,6% general. La razón: en esta comarca se concentra el domicilio social de muchas sociedades cooperativas, con tipos de gravamen inferiores al general, y además están domiciliadas muchas Instituciones de inversión colectiva que tributan al 1%. Su tipo medio efectivo también es el más bajo: el 13,0% frente al 18,1% del total de declarantes con base liquidable positiva.

Debagoienak ere batez besteko tasa nominalaren eta efektiboaren arteko diferentziarik handiena du.

Debagoiena eskualdean batez besteko tasa efektiboa %13,0 da, batez besteko tasa nominala %21,8 den bitartean. Hauxe da arrazoia: Debagoienan kuota osoa %36,6 murriztu da jarduera ekonomikorako pizgarriengatik (kooperatiben kenkaria barne).


Bestalde, aipatzekoa da Donostiak batez besteko tasa efektiborik handiena duela: %18,6. Jarraian Bidasoa Behea kokatzen da %18,5eko tasa efektiboarekin.

Debagoiena también presenta el mayor diferencial entre tipo medio nominal y efectivo.

El tipo medio efectivo en Debagoiena es del 13,0%, frente al 21,8% de tipo medio nominal. La razón: en esta comarca la cuota íntegra se reduce en un 36,6% por incentivos a la actividad económica (incluido deducción por cooperativa).

Por otro lado, cabe destacar que Donostia presenta el mayor tipo medio efectivo: 18,6%, seguido de Bidasoa Behea con el 18,5%.

GRÁFICO 3.17. GRAFIKOA
Batez besteko tasa nominala eta tasa efektiboa eskualdeen arabera
Tipo medio nominal y tipo medio efectivo por comarcas



3.5. ZERGA BATERAKUNTZAREN ARAUBIDEA

3.5.1. TALDE FISKALETAN DAUDEN ETA EZ DAUDEN ENTITATEEN ARTEKO BANAKAPENA

Hasieran esan dugun bezala, sozietateen gaineko zergaren banakako aitorpenen barruan bereiz ditzakegu talde fiskaletan dauden entitateak eta talde fiskaletan ez daudenak.

Horrela, 200 ereduak izan dituen 25.845 aitorpenetatik, 1.441 talde fiskaletan dauden entitateenak dira, kopuru osoaren %5,6. Hortaz, badira 24.404 entitate talde fiskaletako kide ez direnak (kopuru osoaren %94,4).


3.5. REGIMEN DE CONSOLIDACION FISCAL

3.5.1. DESGLOSE ENTRE ENTIDADES PERTENECIENTES Y NO PERTENECIENTES A GRUPOS FISCALES

Tal y como hemos comentado al inicio, dentro de las declaraciones individuales del Impuesto sobre Sociedades podemos diferenciar entre aquellas entidades que pertenecen a un grupo fiscal y aquellas no pertenecientes a grupos fiscales,

Así, del total de 25.845 declaraciones del modelo 200, el número de entidades pertenecientes a grupos fiscales es de 1.441, que representa el 5,6% del total. Como consecuencia, el número de entidades no pertenecientes a grupo fiscal alguno es de 24.404 (94,4% del total).

GRÁFICO 3.18. GRAFIKOA
Talde fiskaletako partaideak direnen eta ez direnen aitorpen kopurua
Número de declaraciones pertenecientes y no pertenecientes a grupos fiscales




Alabaina, zergaren likidazioa osatzen duten kontzeptu nagusien informazioari erreparatzen badiogu, erabateko aldaketa dago entitate kopuruaren proportzioan.

Izan ere, talde fiskaletako entitate partaideek kontabilitate emaitza gisa aitortu duten zenbatekoak zenbateko osoaren %64,7 hartzen du, eta emaitzaren doiketak eta erreserbak, berriz, %73,6 dira.

Pero si observamos la información relativa a los principales conceptos que conforman la liquidación del impuesto se comprueba el vuelco que da la proporción del número de entidades.

Así, el importe que declaran como resultado contable las entidades pertenecientes a grupos fiscales representa el 64,7% del total, y los ajustes y reservas al resultado representan el 73,6%.

GRÁFICO 3.19. GRAFIKOA
Talde fiskaletako partaideak direnen eta ez direnen zenbatekoen pisua
Peso de las magnitudes de los pertenecientes y no pertenecientes a grupos fiscales



Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioei dagokienez, talde fiskaletan dauden entitateek zenbateko osoaren %37,4 metatzen dute. Eta entitateek banaka aitortutako oinarri likidagarri osoari dagokionez, talde fiskaletako entitateek zenbateko osoaren %53,6 hartzen dute. Kuota osoak portzentaje askoz txikiagoa hartzen du (%36,9).

Kuotako hobari eta kenkari guztiei begiratuz gero, talde fiskaletan dauden entitateek zenbateko osoaren %37,3 hartzen dute.

Atxikipenei dagokienez, %9,3 bakarrik dator talde fiskaletan dauden entitateetatik, nahiz eta ordainketa zatikatuetan portzentaje hori %48,5era igotzen den.

Azkenik, banakako aitorpenetan ordaintzeko edo itzultzeko likido gisa aitortu diren 290 milioi

En cuanto a las compensaciones de bases imponibles negativas de años anteriores, las entidades pertenecientes a grupos acumulan el 37,4% del total. Y respecto a la base liquidable total declarada por las entidades de forma individual, las pertenecientes a grupos fiscales acumulan el 53,6% del total. La cuota íntegra representa un porcentaje mucho menor (36,9%).

Analizando el total de bonificaciones y deducciones de la cuota, se observa que las entidades pertenecientes a grupos fiscales acumulan el 37,3% del total.

En cuanto a las retenciones, únicamente el 9,3% lo aportaron las entidades pertenecientes a grupos fiscales, mientras que en los pagos fraccionados el porcentaje se eleva hasta el 48,5%.

Al final, de los 290 millones de euros declarados como líquido a ingresar/devolver por las declaraciones individuales, el 42,0% (122


euroetatik, %42,0 (122 milioi) talde fiskaletako kide diren entitateei dagokie

Oinarri likidagarri positiboa duten aitorpenen batez besteko tasa nominala eta efektiboa aztertzean, ikusten da talde fiskaletan dauden entitateek balio handiagoak dituztela, %24,1 eta %19,3 hurrenez hurren, %21,9 eta %17,5 aldean.

millones) corresponden a entidades pertenecientes a grupos fiscales.

Al analizar el tipo medio nominal y efectivo de las declaraciones con base liquidable positiva, observamos que las declaraciones pertenecientes a grupos fiscales tienen unos valores más elevados, 24,1% y 19,3%, respectivamente, frente a 21,9% y 17,5%.

GRÁFICO 3.20. GRAFIKOA
Batez besteko tasa nominala eta tasa efektiboa talde fiskalekoak direnean eta ez direnean
Tipo medio nominal y tipo medio efectivo según pertenencia o no a grupo fiscal



3.5.2. ZERGA BATERAKUNTZAREN ARAUBIDEAN DAUDEN TALDEEN AITORPENAK

Sozietate taldeek 220 ereduaren bidez aurkeztutako urteko aitorpenen daturik esanguratsuenak aztertzen dira atal honetan. Helburua da datu horiekin osatzea 200 ereduaren banakako aitorpenek emandako informazioa, enpresa sarearen ezaugarriak hobetzeko ulertzeko.

Banakako aitorpenean ez bezala, talde bateratuaren zerga oinarria ez da kalkulatzen taldearen kontabilitate emaitza bateratutik abiatuta, baizik eta taldea osatzen duten entitateen banakako zerga oinarriak batuta.

3.5.2. DECLARACIONES DE GRUPOS EN RÉGIMEN DE CONSOLIDACIÓN FISCAL

En este apartado se analizan los rasgos más relevantes de las declaraciones anuales del modelo 220 que presentaron los grupos de sociedades. El objetivo es completar la información proporcionada por las declaraciones individuales del modelo 200 para, de este modo, comprender mejor las características del tejido empresarial.

A diferencia del modo de declaración individual, la base imponible del grupo consolidado no se determina a partir del resultado contable consolidado del grupo, sino de la suma de las bases imponibles individuales de las entidades que

Oinarri horiek banakako tributazio araubidearen arabera zehazten dira.

Horrela, zerga baterakuntzaren araubideak abantaila hauek ditu besteak beste:

1. Zerga oinarri positiboak ekitaldi berean sortutako zerga oinarri negatiboekin konpentsatu ahal izatea.

2. Taldeak sortutako kenkariak aplikatzea. Kenkariak aplikatzeko ezarrita dauden baldintzak talde fiskalak bete behar ditu. Hau da, kenkariaren mugak talde bateratuaren oinarriari edo kuotari aplikatuko zaizkio.

En 2023 la liquidación del impuesto genera unos ingresos por valor de 1.821 millones de euros, unas devoluciones por importe de 979 millones y una diferencia, con respecto al año anterior, de las cuantías destinadas a compensar futuros devengos del impuesto por importe de -18 millones de euros. El resultado de restar a los ingresos las devoluciones y el incremento de las compensaciones, da lugar al **resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa**, que asciende a 861 millones de euros; 281 millones de euros superior a la obtenida en 2022, lo que supone una tasa de variación interanual positiva del 48,4%.

GRÁFICO 5.9. GRAFIKOA
Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza
Resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa



2020-2023 epealdian Lurralde Historikoari egotzitako emaitza osoa metatua %12,9 igo da. Urte batetik bestera tasak honela aldatu dira:

- 2021ean emaitza % 1,1 handitu da. Kasu horretan, itzulketak sarrerak baino gehiago

A largo del **periodo 2020-2023** el resultado total atribuido al Territorio Histórico ha crecido en términos acumulados un 12,9%. Así han variado las tasas de un ejercicio a otro:

- En 2021 el resultado aumenta un 1,1%. En este caso, a pesar de que las devoluciones

hazi diren arren (+%20,9 eta +%12,1, hurrenez hurren), azken horien zenbateko nominal handiagoaren ondorioz aldakuntza positiboa da.

- 2022an emaitza %24,8 jaitsi da, izan ere, itzulketak (+%33,7) sarrerak (+%3,6) baino neurri askoz handiagoan igo dira.


- 2023an emaitza %48,4 handitu da, izan ere, sarrerak +%8,3 handitu diren bitartean, itzulketak -%10,9 jaitsi dira.

aumentan más que los ingresos (+20,9% y +12,1%, respectivamente), el mayor importe nominal de esos últimos hace que la variación sea positiva.

- En 2022 el resultado disminuye un 24,8%, ya que las devoluciones (+33,7%) aumentan muy por encima de los ingresos (+3,6%).

- En 2023 el resultado aumenta un 48,4%, ya que mientras los ingresos han aumentado un +8,3%, las devoluciones han disminuido un -10,9%.

GRÁFICO 5.10. GRAFIKOA
Emaitzaren bilakaera
Evolución del resultado



Emaitzaren osagaiak aztertuta, hauxe azpimarratu daiteke:

- Konpentsatu beharreko gehikuntzek 25 milioi euro igotzen dira 2021ean (+%432,0), 28 milioi eurotan jaitsi 2022an (-%91,4) eta 21 milioi eurotan jaitsi 2023an (-%795,8)

- Itzulketak 2021ean 142 milioi eurotan egin zuten gora (+%20,9), 2022an 277 milioi euro

Analizando los **componentes del resultado,** cabe destacar lo siguiente:

- Los incrementos a compensar aumentan en 25 millones de euros en 2021 (+432,0%), disminuyen en 28 millones de euros en 2022 (-91,4%) y disminuyen en 21 millones de euros en 2023 (-795,8%).

- Las devoluciones aumentaron en 142 millones de euros en 2021 (+20,9%), aumentaron en

igo ziren (+%33,7) eta 2023 honetan 119 milioi euro jaitsi (-%10,9).

- Sarrerek goranzko joera erakusten dute: +%12,1 2021ean, +%3,6 2022an eta +%8,3 2023an.

Lurralde Historikoaren emaitza subjektu pasiboek erabilitako zergapetze erregimenaren arabera aztertzen badugu, 2023an emaitza 281 milioi eurotan igotzearen arrazoia erregimen guztietan emandako igoera izan da, eta bereziki hileroko itzulketen erregistroan (+160 milioi euro).

Bi erregimenak (orokorra eta erraztua) homogeneizatze aldera, eta batera eta bestera bildutako zergadun kopuruan alde handia dagoenez, emaitzaren bilakaera **zergadun bakoitzeko batez besteko emaitzan** oinarrituta kontrastatu dugu. Horrela, diferentzia adierazgarriak antzeman ditugu:

- Aitortzaile bakoitzeko 2020-2023 epealdiko batez besteko zenbatekoan, erregimen orokorrak 12.422 euroko emaitza erakusten duen bitartean, erregimen erraztuan aitortu duten zergadunen batez bestekoa 1.185 eurokoa izan da.

- Bere bilakaerari dagokionez, erregimen orokorrean egindako aitorpenen batez besteko emaitza -%0,6 jaisten da 2021ean, 2022an berriro jaisten da (-%25,3) eta 2023an hazi egiten da (+%49,0). Erregimen erraztuan egindako aitorpenen batez besteko emaitza igo egin zen 2021ean (+%150,8), 2022an -%16,4 jaitsi eta 2023an berriro igotzen da (+%6,8).

277 millones de euros en 2022 (+33,7%) y en este 2023 disminuyen en 119 millones de euros (-10,9%)

- Los ingresos muestran una tenedencia alcista: aumentan un +12,1% en 2021, +3,6% en 2022 y +8,3% en 2023.

Si analizamos el resultado del Territorio Histórico según el régimen tributario bajo el que declaran los sujetos pasivos, el aumento del resultado en 2023 de 281 millones de euros es consecuencia de un aumento en todos los regímenes, y en especial en el registro de devoluciones mensuales (+160 millones de euros).

Para homogeneizar los dos regímenes (general y simplificado), dada la gran diferencia en cuanto al número de contribuyentes que se acogen a uno u otro, la evolución de su resultado la contrastamos en base al **resultado medio por contribuyente** . Así, apreciamos diferencias significativas:


- En la cuantía media por declarante del periodo 2020-2023, frente a un resultado de 12.422 euros en el régimen general, la media de los contribuyentes del régimen simplificado se sitúa en 1.185 euros.

- Respecto a su evolución, el resultado medio de las declaraciones sujetas al régimen general disminuye un -0,6% en 2021, vuelve a disminuir un -25,3% en 2022 y en 2023 aumenta un +49,0%. El resultado medio de las declaraciones sujetas al régimen simplificado sube en 2021 (+150,8%), baja un -16,4% en 2022 y vuelve a subir en 2023 (+6,8%).

GRÁFICO 5.11. GRAFIKOA

Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako emaitza tributazio erregimenaren arabera

Resultado atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa según el régimen de tributación



Ikus dezagun erregimen orokorraren barruan zein izan den **Iortutako emaitza osoa aitortzaile motaren arabera**:

- Enpresa handiak erregimen orokorrean aitortu duten guztien %2,0 baino ez izan arren, erregimen horretako emaitzaren %80,5 metatu dute 2023an. Emaitzari dagokionez, 2021ean +%4,3 handitzen da, 2022an +%4,8 handitzen da eta 2023 berriro ere handitu egiten da (+%7,9).

- Hileko itzulketen erregistroan inskribatuta daudenen emaitza okertu egiten da 2021ean (-475tik -584 milioi eurora), 2022an berriro okertzen da (-837 milioi euro) eta 2023an hobetu egiten da -677 milioi euro arte. 2023an sarrerak (220 milioi) itzuli beharreko zenbatekoa baino askoz txikiagoak izan dira (910 milioi) eta konpentsatu beharreko gehikuntza 13 milioi eurotan jaisteak emaitzaren jaitsiera zertxobait areagotu du.

Distinguimos dentro del régimen general, el **resultado total obtenido por los distintos tipos de declarantes**:

- Las grandes empresas, que representan sólo el 2,0% del total de declarantes del régimen general, concentran en 2023 el 80,5% del resultado del referido régimen. Su resultado aumenta un +4,3% en 2021, en 2022 aumenta un +4,8% y en 2023 vuelve a aumentar (+7,9%)

- El grupo de los inscritos en el registro de devoluciones mensuales empeora su resultado en 2021 (de -475 a -584 millones de euros), en 2022 vuelve a empeorar (-837 millones de euros) y en 2023 mejora hasta los -677 millones de euros. En 2023 los ingresos (220 millones) se ven ampliamente superados por el importe a devolver (910 millones) y la caída en 13 millones de euros del incremento a compensar también aumenta la disminución del resultado.

- Erregimen orokorrera bildutako gainerakoak erregimen horretako aitortzaileen %96,3 dira, eta zenbatekorik handiena metatzen dute emaitzari dagokionez: %98,5. Eta emaitzak gora egiten du 2021ean (+%13,8), 2022an berriro handitzen da (+%4,5) eta 2023ko urte honetan +%9,1 handitzen da.

- El resto sujeto a régimen general recoge el 96,3% de los declarantes de dicho régimen y acumula la mayor cuantía en cuanto al resultado: el 98,5%. Y ese resultado sube un +13,8% en 2021, en 2022 vuelve a subir (+4,5%) y ese año 2023 aumenta un +9,1%.

5.5. HILEKO ITZULKETEN ERREGISTROA

Subjektu pasiboek eskubidea izango dute hileko aitorpenean beren alde ateratzen den saldoa berreskuratzeko, hileko erregistroan inskribatuta egoten badira.

Zergaren mekanika dela-eta, abenduan jauzi bat gertatzen da itzulketa eskaeretan. Bi dira horren arrazoiak:

- Abendua likidazio-aldiko azken hilabetea da, eta hil horretan ez dago itzulketarako mugarik.

- Gainera, ekitaldian zehar konpentsatu beharreko saldoak ekartzea erabakitzen dutenen eskaerak une horretan metatzen dira.

Horren ondorioz, aztertutako urte guztietan zergaren portaera parekoa da itzulketa zenbatekoari dagokionez. Abenduan goraldi bat dago, baina urtarrilean eta abuztuan zenbatekoa jaitsi egiten da. Lehenengoan, urtearen hasiera delako, eta bigarrenean, jarduera opor garaian murrizten delako.

5.5. REGISTRO DE DEVOLUCIONES MENSUALES

Para poder ejercitar el derecho a la devolución mensual, los sujetos pasivos deberán estar inscritos en el registro de devoluciones mensuales.

Debido a la mecánica del impuesto, en el mes de diciembre se produce un salto en las solicitudes de devolución. Esto obedece a dos motivos:

- Diciembre es el último mes del periodo de liquidación y no existe límite a la devolución.


- Además, se concentra en ese momento la solicitud de aquellos que han optado por arrastrar saldos a compensar a lo largo del ejercicio.

Por ello, en todos los años analizados, el comportamiento en el importe de las devoluciones del impuesto tiene una distribución similar. Junto con el repunte de diciembre, hay dos meses que presentan una menor cuantía: enero y agosto. El primero, por ser el inicio del año; y el segundo, por ser menor la actividad en vacaciones.

GRÁFICO 5.12. GRAFIKOA

Hileko itzulketen erregistroan inskribatutakoei itzulitako BEZaren bilakaera sortzapen hilabeteen arabera

Evolución de las devoluciones de IVA a los inscritos en el registro de devoluciones mensuales y por meses de devengo



Kopuruari dagokionez, sarreran aipatu den bezala, 2018/07/01ean indarrean sartu zen Berehalako Informazio Hornidura (BIH) sistema. BEZaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bitartez eramateko sistema da. Hileko itzulketen erregistroan dauden aitortzaile guztiak, derrigortuta daude BIH sisteman egotea. Hori dela-eta, zergadun batzuk sistema horretan ez egoteagatik, hileko itzulketa erregistrotik atera ziren.

En lo que respecta al número, tal y como se ha comentado en la introducción, el 01/07/2018 entró en vigor el sistema de Suministro de Información Inmediata (SII). Un sistema que consiste en la llevanza de los libros registro del IVA a través de los servicios telemáticos de la Hacienda Foral de Gipuzkoa. Todos los declarantes inscritos en el registro de devoluciones mensuales están obligados a estar en el sistema SII. Como consecuencia de ello, algunos declarantes salieron del registro de devoluciones mensuales para no estar en el sistema SII.

Horrela, 2023an 11.021 hileroko itzulketa eskaera aurkeztu dira, 2022eko 11.382 baino %3,2

Así, en 2023 se han presentado 11.021 solicitudes de devoluciones mensuales, un 3,2% menos que

gutxiago. Bere aldetik, itzulketa eskaeren zenbatekoa neurri handiagoan jaitsi da (-%10,5).

2020-2023 epealdian bilakaera honakoa izan da:

- Eskaera kopurua +%4,5 igo zen 2021ean, +%6,1 2022an eta 2023 -%3,2 jaitsi da. Epealdian, metatuan,+ %7,3 igo da.

- Itzulketen zenbatekoa +%23,2 igo zen 2021ean, +%35,7 2022an eta 2023an jaitsi egiten da (-%10,5). Epealdian, metatuan, +%49,7 igo da.

Bi osagaien bariazio metatua konparatuz gero, agerian geratzen da epealdi honetan itzulketen zenbatekoak askoz igoera handiagoa izan dutela: +%7,3 eskaerek eta +%49,7 itzulketen zenbatekoak.

las 11.382 de 2022. Por su parte, el importe de las solicitudes de devolución ha disminuido en mayor medida (-10,5%).

En el periodo 2020-2023 la evolución ha sido la siguiente:

- El número de solicitudes aumentó en 2021 un +4,5%, un +6,1% en 2022 y disminuye un -3,2% en 2023. En el acumulado del periodo aumenta un +7,3%.

- La cuantía de las devoluciones sube un +23,2% en 2021, un +35,7% en 2022 y en 2023 baja un -10,5%. En el acumulado del periodo aumenta un +49,7%.

Si comparamos la variación acumulada de ambos componentes a lo largo del periodo, se observa que la cuantía de las devoluciones aumenta mucho más: +7,3% las solicitudes y +49,7 la cuantía de devolución.

5.6. BEZa AITORTZAILE MOTAREN ARABERA

2023ko ekitaldian, gainerako ekitaldietan bezalaxe, aitortzaile mota bakoitzak duen garrantzia nabarmen aldatzen da zergaren zein elementu aztertzen dugun arabera.

Zergadun kopuruari dagokionez:

- Kopururik handiena pertsona fisikoek biltzen dute: 36.666 zergadun guztira (kopuru osoaren %58,3).

- Bigarren tokian erantzukizun mugatuko sozietateak daude (%27,7).

- Atzetik, ondasun komunitateak (%6,5).

Ekitaldiko **oinarri ezargarria** 40.534 milioi eurokoa da, eta zergadun kopuruarekin alderatuta banaketa desberdina du taldeen artean. Hau da, zenbatekorik handienak sozietate mota desberdinetan ageri dira: oinarri ezargarri osoaren %51,3 erantzukizun mugatuko sozietateena da, %32,8 sozietate anonimoena, eta %7,9 kooperatibena. Pertsona fisikoek, kopuruz

5.6. IVA SEGÚN TIPO DE DECLARANTE

En el ejercicio 2023, al igual que en el resto de los años, la importancia o representatividad de cada tipo de declarante varía mucho dependiendo de qué elemento del impuesto analicemos.

En el número de **contribuyentes**:

- El tipo de declarante que mayor número concentra es el de las personas físicas: 36.666 contribuyentes (el 58,3% del total).

- En segundo lugar estan las sociedades de responsabilidad limitada (27,7%).

- Le siguen las comunidades de bienes (6,5%).

La **base imponible** del ejercicio asciende a 40.534 millones de euros y su distribución entre los distintos grupos es distinta a la del número de contribuyentes. Esto es, las mayores cuantías se concentran en los diferentes tipos de sociedades: el 51,3% del total de la base imponible corresponde a las sociedades de responsabilidad limitada, el 32,8% a las sociedades anónimas, y el


ugarienak izan arren, oinarri ezargarri osoaren %3,5 baino ez dute hartzen.

Sortutako kuota 7.198 milioi eurokoa da, eta subjektu pasibo desberdinen partaidetza portzentajea oinarri ezargarrian bezala banatzen da: %95,8 sozietateetan, %0,8 ondasun komunitateetan, eta gainerako %3,4a pertsona fisikoetan.

7,9% a las cooperativas. Las personas físicas, aun siendo las más numerosas, representan sólo el 3,5% del total de la base imponible.

La **cuota devengada** ha alcanzado los 7.198 millones de euros, y el porcentaje de participación de los distintos tipos de sujetos pasivos es similar al de la base imponible concentrándose el 95,8% en las sociedades, un 0,8% en las comunidades de bienes, y el restante 3,4% en las personas físicas.

GRÁFICO 5.13. GRAFIKOA
BEZa aitortzalle motaren arabera
IVA según tipo de declarante



Kenkariak aplikatu eta behar den banaketa egin ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotzitako **emaitza** 861 milioi eurokoa da. Kopuru horretatik:

- %69,9 (601 milioi), erantzukizun mugatuko sozietateetatik dator.
- %20,2 (174 milioi), sozietate anonimoek sortua da.

Después de aplicar las deducciones y de realizar la distribución correspondiente, el **resultado** atribuido al Territorio Histórico de Gipuzkoa ha sido de 861 millones de euros. De dicha cuantía:

- El 69,9%, 601 millones, es de las sociedades de responsabilidad limitada.
- El 20,2%, 174 millones, proviene de las sociedades anónimas.

- %15,8 (136 milioi euro), pertsona fisikoei dagokie.
- %4,9 (42 milioi) gainerako sozietateei dagokie.
- Kooperatibak dira zergaren emaitza osoaren zenbateko negatiboa aitortzen duten bakarrak: -125 milioi euro.
- Azkenik, %3,7 (32 milioi), ondasun komunitateei.

- El 15,8%, 136 millones de euros, corresponde a las personas físicas.
- El 4,9%, 42 millones, al resto de sociedades.
- Las cooperativas son las únicas que declaran un resultado global del impuesto negativo: -125 millones de euros.
- Y finalmente, las comunidades de bienes aportan el 3,7% (32 millones).

5.7. BEZa JARDUERA SEKTOREEN ARABERA

Zergadun kopurua, oinarri ezargarria, sortutako kuota eta Gipuzkoari dagokion emaitza sektoreka banatuz gero, 2023ko ekitaldia aurreko urtearen ildo beretik dator.

Zergadun kopuruari dagokionez, banaketa hau dugu sektoreka:

- Zerbitzuen sektorea da zergadun kopururik (26.840) handiena hartzen duena (guztiaren %42,7). Horietan merkataritza eta merkataritzako beste zerbitzu batzuk nagusitzen dira, bien artean zerbitzuen sektoreko aitortzaile guztien %92,0 metatzen dutelako.
- Eraikuntzak aitortzaile kopuru osoaren %7,2 hartzen du: 4.535.
- Industriak zerbait gutxiago, %6,2. Sektore honetan aitortzaile kopururik handiena biltzen duen adarra metal-gaiena da (780 aitortzaile).

Ekitaldiko **oinarri ezargarria** zerbitzuetan eta industrian banatzen da gehienbat. Hona hemen zehazki:

- %60,5a zerbitzuetan metatzen da. Sektore honen barruan, merkataritza nabarmentzen da, 14.018 milioi euroko oinarri ezargarria baitu (zerbitzu sektorearen %57,2). Bigarren tokian merkataritzako beste zerbitzu batzuk

5.7. IVA POR SECTORES DE ACTIVIDAD

En el ejercicio 2023, la distribución por sectores del número de contribuyentes, de la base imponible, de la cuota devengada y del resultado correspondiente a Gipuzkoa se mantiene de forma similar al año anterior.

En cuanto al número de **contribuyentes**, la distribución por sectores es la siguiente:

- La actividad con mayor número (26.840 contribuyentes) corresponde a los servicios, que concentran el 42,7% del total. De entre éstos destacan el comercio y otros servicios comerciales ya que entre ambos concentran el 92,0% del total de declarantes del sector servicios.
- La construcción representa el 7,2% del total de declarantes (4.535).
- La industria, algo menos, el 6,2%. En este sector la rama de artículos metálicos, con 780 declarantes, concentra el mayor número de contribuyentes.

La **base imponible** del ejercicio se reparte en su mayoría entre los servicios y la industria. Concretamente:

- El 60,5% se concentra en los servicios. Entre ellos destaca el comercio: su base imponible (14.018 millones de euros) alcanza el 57,2% del sector servicios. Le sigue la rama de otros servicios comerciales, con una base imponible

daude, 6.920 milioi euroko oinarri ezargarriarekin (sektorearen %28,2).

- %28,5 industriari dagokio. Haren barruan, makineriak lortu du oinarri ezargarririk handiena, eta atzetik metalgaiak, metalezko eraikuntzak, garraioa materiala, oinarrizko metalgintza, papera eta grafikoak, eta elikagaiak, denak ere 1.000 milioi euro baino handiagoko oinarri ezargarriarekin.

- Eraikuntzak, 2.288 milioi eurorekin, oinarri ezargarri osoaren %5,6 hartzen du.

de 6.920 millones de euros (28,2% del sector).

- El 28,5% corresponde a la industria. Dentro de ella, la base imponible más elevada es la de maquinaria, seguida de artículos metálicos, construcciones metálicas, material de transporte, metálicas básicas, papel y gráficas, y alimentación, todas ellas con una base imponible superior a los 1.000 miilones de euros.

- La construcción representa el 5,6% de la base imponible total (2.288 millones de euros).

Sortutako kuotak oinarri ezargarriaren antzeko banaketa du, industriaren eta zerbitzu sektorearen artean dagoen aldea txikiagoa bada ere: zerbitzuek kuota osoaren %58,1 biltzen dute eta industriak %31,4.

Sektore bakoitzaren barruan, adar bakoitzak duen partaidetzaren banaketa portzentualak ia ez du diferentziarik oinarri ezargarriaren banaketarekin alderatuta.


Eraikuntzak sortutako kuota osoaren %6,0 hartzen du.

La **cuota devengada** mantiene una distribución similar a la base imponible, si bien la diferencia entre la industria y el sector servicios es inferior: los servicios concentran el 58,1% del total de la cuota, frente al 31,4% que representa la industria.

Dentro de cada sector la distribución porcentual de la participación de cada rama no presenta apenas diferencias con respecto a la distribución de la base imponible.

La construcción representa el 6,0% del total de la cuota devengada.

GRÁFICO 5.14. GRAFIKOA
BEZa jarduera sektoreen arabera
IVA por sectores de actividad



Gipuzkoari egotzitako **emaitzaren** banaketa aldatu egiten da zerbait aurreko kontzeptuen aldean:

- Zerbitzuen sektorea da berriz ere ekarpen gehien duena: 996 milioi euro.
- Industriak emaitza negatiboa izan du ekitaldian: -264 milioi euro.
- Eraikuntzak %8,7ko partaidetza du emaitza osoan: 75 milioi euro.

Zerbitzuen sektorean merkataritzako beste zerbitzu batzuen adarrak du emaitzarik handiena (476 milioi euro), eta bere atzetik merkataritza dago (391 milioi), eta gero garraio eta komunikazioen adarra dator (105 milioi).

Industrian, emaitza handieneko sektoreen banaketa, aldatu egiten da oinarri eta kuota handienen araberako banaketaren aldean:

- Papera eta grafiken adarrak lortu du zenbatekorik handiena (19 milioi euroko emaitza).
- Bigarren adarrik garrantzitsuena zura eta altzariena da (13 milioi euroko emaitzarekin).
- Hirugarren tokia material elektrikoko adarrak hartzen du: 9 milioi euro.

Bestalde, zenbait adarrek emaitza negatibo nabarmena erakusten dute, sektorearen osorako emaitza zeinu berberera eramanaz:

- Makineriak du emaitza negatiborik handiena: -133 milioi euro.
- Garraio materialek -120 milioi euroko emaitza negatiboa du.
- Metalezko eraikuntzek, metalgaiak eta oinarrizko metalgaiek -33, -14 eta -5 milioi euroko emaitza aitortu dute, hurrenez hurren.

La distribución del **resultado** atribuido a Gipuzkoa varía ligeramente con respecto a los conceptos anteriores:

- El sector servicios sigue siendo el de mayor aportación: 996 millones de euros.
- La industria registra un resultado negativo en el ejercicio: -264 millones de euros.
- La construcción se eleva a un 8,7% del total del resultado: 75 millones de euros.

Dentro del sector servicios, la rama de otros servicios comerciales es la de mayor resultado (476 millones de euros), seguida por el comercio (391 millones), y luego viene el sector del transporte y comunicaciones (105 millones).

En la industria, el reparto de las ramas con mayor resultado varía respecto a la distribución de ramas con mayor base y cuota:

- La rama de mayor cuantía es papel y gráficas, con un resultado de 19 millones de euros.
- La segunda rama en importancia es madera y muebles, con un resultado de 13 millones de euros.
- El tercer lugar lo ocupa la rama de material eléctrico: 9 millones de euros.

Por otro lado, varias ramas muestran un resultado negativo importante, que lleva al conjunto del sector a arrojar el mismo signo:

- La rama de maquinaria muestra el resultado más negativo: -133 millones.
- Material de transporte muestra un resultado negativo de -120 millones de euros.
- Las construcciones metálicas, los artículos metálicos y las metálicas básicas declaran un resultado de -33, -14 y -5 millones de euros, respectivamente.

Zergaren emaitza jarduera sektoreen arabera banatu eta 2019-2022 epealdian izan duen bilakaerari erreparatuz gero, agerian jartzen da zerbitzuen sektorearen ekarpenaren adierazgarritasuna, baita industriak eta eraikuntzak duten etengabeko pisu galera. Bestalde, lehen sektoreak zergan oso partaidetza txikia duela ikus daiteke.

Datorren grafikoan ikus daitekeenez, zerbitzuen sektoreak hartzen du zergaren emaitzan pisurik handiena. Emaitza 852 milioi eurokoa izatetik 2020an, 996 milioikoa izatera pasa da 2023an, hau da, 144 milioi euro gutxiago (+%16,8). 2021ean +%9,5 igo zen, 2022an -%3,8 jaitsi da eta 2023an +%10,9 igo da.

Industriak balio negatiboekin jarraitzen du, eta bere emaitza okertu egin du 2020ko -177 milioiko emaitzatik 2023ko -264 milioira pasatzean (-%49,3). Emaitza okertu egiten da 2021ean -251 milioira pasatzen baita (-%42,0), 2022an berriro okertu egiten da -416 milioi euro arte (-%65,7) eta 2023an hobetu egiten da -264 milioi euro arte (+%36,5).

Eraikuntza sektoreak gorabehera batzuk izan ditu. Horrela, 2021ean behera egin zuen (-%6,9), 2022an gora (+%14,6), eta 2023an gora (+%19,7). Horrela, aztertutako 2020-2023ko epealdian +%27,6 igo da.


La evolución del resultado del impuesto distribuido por sectores de actividad a lo largo del periodo 2020-2023 pone de manifiesto la gran representatividad del sector servicios y la pérdida de peso progresiva del sector industrial y la construcción. También evidencia la poca participación del sector primario en el impuesto.

En el siguiente gráfico se puede apreciar que el sector servicios es el de mayor peso en el resultado del impuesto. Pasa de 852 millones de euros en 2020 a 996 millones en 2023, aumentando su resultado en 144 millones (+16,8%). En 2021 aumenta un +9,5%, en 2022 disminuye un -3,8% y en 2023 aumenta un 10,9%.

La industria sigue en valores negativos, y empeora su resultado respecto a 2020 al pasar de -177 millones a -264 millones de euros en 2023 (-49,3%). El resultado empeora de 2020 a 2021 hasta los -251 millones (-42,0%), para volver a emperorar en 2022 hasta los -416 millones (-65,7%) y mejorar en 2023 hasta esos -264 millones de euros (+36,5%)

El sector de la construcción presenta altibajos. Así, en 2021 baja un -6,9%, en 2022 sube un +14,6% y en 2023 sube un +19,7%. Así, a lo largo de todo el periodo 2020-2023 analizado aumenta un +27,6%.

GRÁFICO 5.15. GRAFIKOA
Gipuzkoari egotzitako emaitza
Resultado atribuido a Gipuzkoa



Industriak eta zerbitzuen sektoreak duten garrantzia dela-eta, jarraian aztertuko dugu zenbateko eragina duen jarduera adar bakoitzak bere sektorearen barruan, eta nolako bilakaera izan duten 2020-2023 lau urtekoan.

Industria sektoreko 14 jardueratik, 12 adarretan emaitza hobetu egin da aurreko urtearekiko eta beste 2 adarretan okertu (energia eta ura -%22,0 eta makineria -%2,5).

Portzentajean hazkunderik esanguratsuenak honakoak dira :

- Material elektrikoa: -2,2tik +8,8 milioi eurora pasa da (-%496,5).
- Papera eta grafikoak: -9,2tik +19,3 milioi eurora pasa da (+%310,2)


Dada la representatividad de los sectores industrial y de servicios, vamos a analizar la contribución de cada rama de actividad dentro de su sector correspondiente, así como su evolución en el cuatrienio 2020-2023.

De las 14 ramas de actividad del **sector industrial,** en 12 ramas el resultado ha mejorado respecto al año anterior y en las 2 restantes ha empeorado (energía y agua -22,0% y maquinaria -2,5%).

Las aumentos más significativas en porcentaje son:

- Material eléctrico: pasa de -2,2 a +8,8 millones de euros (+496,5%).
- Papel y gráficas: pasa de -9,2 a +19,3 millones de euros (+310,2%)

GRÁFICO 5.16. GRAFIKOA
Industri sektorearen emaitza adarren arabera
Resultado del sector industrial por ramas



Kuantitatiboki gehien okertu den industriako adarra papera eta grafikoak, -9,2tik +19,3 milioira pasatzean (28,5 milioi hobeagoa). Metalezko eraikuntza -58,9 milioitik -33,1 milioira pasa da (25,8 milioi hobeagoa), eta oinarrizko metalgintza 24,3 milioi eurotan hobetu da (-29,0 milioitik -4,7 milioira pasa da).

Adarren 2020-2023 epealdiko bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke soilik 5 adarretan

Cuantitativamente la rama industrial que más ha mejorado el resultado ha sido papel y gráficas al pasar de -9,2 a +19,3 millones de euros (28,5 millones mejor). Construcciones metálicas ha pasado de -58,9 a -33,1 millones de euros (mejora en 25,8 millones), mientas que metálicas básicas ha mejorado en 24,3 millones de euros (pasa de -29,0 a -4,7 millones).

Atendiendo a la evolución de las distintas ramas en el periodo 2020-2023, cabe resaltar que sólo

hobetu dela emaitza: papera eta grafikoak (+%1.152,6), kautxoa eta plastikoak (+%217,1), zura eta altzariak (+%38,0), oinarrizko metalgintza (+%34,6) eta material elektrikoa (+%25,6). Jaitsierarik nabarmenenak ema dira metalgaietan (-%182,5, emaitza 2020ko -4,8 milioi eurotik 2023ko -13,6 milioi eurora pasa baita) eta kimikan (-%128,2, emaitza +4,8tik -1,3 milioi eurora pasa baita).

en 5 ramas ha mejorado el resultado: papel y gráficas (+1.152,6%), caucho y plásticos (+217,1%), madera y muebles (+38,0%), metálicas básicas (+34,6%) y material eléctrico (+25,6%). Las disminuciones más significativas se han dado en artículos metálicos (-182,5% al pasar el resultado de -4,8 millones de euros en 2020 a -13,6 millones de euros en 2023) y en química (-128,2% al pasar el resultado de +4,8 a -1,3 millones de euros).

Zerbitzuen sektorea 6 jarduera adarretan banatzen da, eta hauetatik 3k, hobetu dute beraien emaitza 2023an:

- Administrazio publikoak (+%72,3).
- Merkataritza (+%18,8)
- Beste merkataritza zerbitzuak (+%11,7)

Beste hiru adarretan emaitza jaitsi egin da 2022arekin alderatuta:

- Banka eta aseguruak (-%46,0)
- Garraioa eta komunikazioak (-%8,1)
- Merkataritza kanpoko beste zerbitz. (-%7,9).


El **sector servicios** está distribuido en 6 ramas de actividad, 3 de las cuales han mejorado su resultado en 2023:

- Administraciones públicas (+72,3%)
- Comercio (+18,8%)
- Otros servicios comerciales (+11,7%).

En otras tres ramas el resultado disminuye en comparación con 2022:

- Banca y seguros (-46,0%).
- Transporte y comunicaciones (-8,1%).
- Otros servicios no comerciales (-7,9%).

GRÁFICO 5.17. GRAFIKOA
Zerbitzuen sektorearen emaitza adarren arabera
Resultado del sector servicios por ramas



2020tik 2023ra emaitza hobetu egin da honako adarretan: merkataritza (+%23,6), merkataritzako beste zerbitzuetak (+%22,6) eta merkataritzaz kanpoko beste zerbitzuetak (+%10,0).

Zerbitzu sektoreko gainerako adarretan emaitza okertu egin da aztertutako laurtean: adminsitrazio publikoetan -%70,1, banka eta aseguruetan -%67,2, eta, azkenik, garraioa eta komunikazioetan -%2,3.

Entre 2020 y 2023 el resultado ha mejorado en las ramas de comercio (+23,6%), otros servicios comerciales (+22,6%) y otros servicios no comerciales (+10,0%).

En el resto de ramas del sector servicios el resultado ha empeorado en el cuatrienio analizado: administraciones públicas -70,1%, banca y seguros -67,2%, y por último transporte y comunicaciones -2,3%.

ARAUDIARI BURUZKO ERANSKINA

2023ko ekitaldian, erkidegoko araudia duten zerga itunduen foru erregulazioari heldu zaio berriz ere. Hori foru dekretu arauemaileen figura berriaren bidez egin da. BEZaren kasuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea da (GAO, 2023/08/07). Data horretatik aurrera, estatuan egiten diren BEZaren arau aldaketa guztiak foru dekretu arauemaile horretan jasoko dira. Aurretik egindako aldaketetarako, dagokion estatuko araudia zerrendatzen da.

ANEXO NORMATIVO

En el ejercicio 2023 se ha retomado la regulación foral de los impuestos concertados de normativa común. Ello se ha realizado a través de la nueva figura de los Decretos Forales Normativos. En el caso del IVA se trata del Decreto Foral Normativo 3/2023, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido (BOG 07/08/2023). A partir de esa fecha, todos los cambios normativos del IVA que se introduzcan a nivel estatal tendrán su reflejo en el citado decreto foral normativo. Para las modificaciones introducidas con anterioridad, se relaciona la normativa estatal correspondiente.

- **20/2022 Errege Dekretua Legea,** abenduaren 27koa, Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun-egoera batzuei laguntzeko neurriei buruzkoa.

Alde batetik, 2023. urtera arte luzatu egiten dira irailaren 20ko 17/2022 Errege Lege Dekretuan jasotako neurriak. %5eko tasa aplikatuko zaie gas naturalaren entregei, inportazioei eta erkidego barruko eskuratzeei; eta baita biomasatik datozen briketa eta pelleten entrega, inportazio eta eskurapenei, bai eta egurretarako egurrari ere.

Bestalde, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko ekainaren 30era arte (eta Kontsumoko Prezioen Indizearen bilakaeran baldintza jakin batzuk betez), erkidego barruko entrega, inportazio eta

- **Real Decreto-ley 20/2022,** de 27 de diciembre de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad.

Por una parte se prorrogan durante 2023 las medidas recogidas en el Real Decreto-ley 17/2022, de 20 de septiembre. Se aplicará el tipo del 5% a las entregas, importaciones y adquisiciones intracomunitarias de gas natural; y también a las entregas, importaciones y adquisiciones intracomunitarias de briquetas y pellets procedentes de la biomasa y a la madera para leña.

Por otro lado, con efectos desde el 1 de enero de 2023 y hasta el 30 de junio de 2023 (y bajo ciertas condiciones en la evolución del Índice de Precios al Consumo) a las entregas, importaciones y

eskurapenei honako hauek aplikatuko zaizkie: 1) %5eko tasa (%0,62 baliokidetasun errekarguaren kasuan) oliba olioei, haziei eta elikadura pastei; 2) %0ko tasa (baliokidetasun errekarguaren kasuan ere bai) ogiari, okin irinei, esne mota batzuei, gazta, arrautza, fruta, barazki, lekale, tuberkulu, zereal...

adquisiciones intracomunitarias se aplicará: 1) el tipo del 5% (0,62% en el caso del recargo de equivalencia) a los aceites de oliva, semillas y pastas alimenticias; 2) el tipo del 0% (también en el caso del recargo de equivalencia) al pan, las harinas panificables, a determinados tipos de leche, quesos, huevos, frutas, verduras, hortalizas, legumbres, tuberculos, cereales...

- **5/2023 Errege Lege Dekretua,** ekainaren 28koa, zeinaren bidez zenbait neurri hartzen eta luzatzen baitira Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, La Palma uhartea berreraikitzen laguntzeko eta beste kalteberatasun-egoera batzuei laguntzeko; Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egiteko, merkataritza sozietateen egiturazko aldaketei eta gurasoen eta zaintzaileen familia bizitza eta bizitza profesionala uztartzeari buruzkoa; eta Europar Batasuneko Zuzenbidea betearazteko eta betetzeko.

- **Real Decreto-ley 5/2023,** de 28 de junio por el que se adoptan y prorrogan determinadas medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania, de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad; de transposición de Directivas de la Unión Europea en materia de modificaciones estructurales de sociedades mercantiles y conciliación de la vida familiar y la vida profesional de los progenitores y los cuidadores; y de ejecución y cumplimiento del Derecho de la Unión Europea.

Luzatu egiten dira 2023ko abenduaren 31ra arte, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan elikagaien tipoei buruz jasotako neurriak.

Se prorragan hasta el 31 de diciembre de 2023 las medidas recogidas en el Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre sobre los tipos de gravamen de los productos alimenticios.

- **3/2023 Foru Dekretu Arauemallea**, uztailaren 26koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa (GAO 2023/08/07).

Balio erantsiaren gaineko zergaren araudi eguneratua jasotzen du, momentu horretan Estatuan indarrean dagoen araudiaren termino berdinetan. Funtsezkoenean, araudi hori Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean jasotzen da.

- **Decreto Foral Normativo 3/2023**, de 26 de julio, del Impuesto sobre el Valor Añadido (BOG 07/08/2023).

Recoge la normativa actualizada del impuesto sobre el valor añadido, en los mismos términos que los recogidos en la normativa vigente en el Estado en ese momento, que en lo sustancial está recogida en la Ley 37/1992 de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

E.5.1. TAULA ERREGIMEN OROKORREKO OINARRI EZARGARRIEN BANAKETA KARGA TASAREN ARABERA

CUADRO E.5.1. DISTRIBUCIÓN DE BASES IMPONIBLES EN RÉGIMEN GENERAL SEGÚN TIPO DE GRAVAMEN

OINARRI EZARGARRIA	BASE IMPONIBLE	2023		2022		23/22
		Zenbatekoa Importe	%	Zenbatekoa Importe	%	%
Oinarri Ezargarria % 21	Base Imponible 21 %	24.272.563	59,9	24.457.160	60,8	-0,8
Oinarri Ezargarria % 10	Base Imponible 10 %	6.318.201	15,6	6.083.597	15,1	3,9
Oinarri Ezargarria % 5	Base Imponible 5 %	489.612	1,2	0	0,0	0,0
Oinarri Ezargarria % 4	Base Imponible 4 %	572.650	1,4	1.594.224	4,0	-64,1
Oinarri Ezargarria % 0	Base Imponible 0 %	1.239.294	3,1	0	0,0	0,0
Tasa orokorren OE	BI tipos generales	32.892.320	81,1	32.134.981	79,9	2,4
Baliokidetasun errekarguaren OE %5,2	BI recargo de equivalencia 5,2%	79.030	0,2	76.795	0,2	2,9
Baliokidetasun errekarguaren OE %1,75	BI recargo de equivalencia 1,75%	192.332	0,5	0	0,0	0,0
Baliokidetasun errekarguaren OE %1,4	BI recargo de equivalencia 1,4%	119.831	0,3	339.293	0,8	-64,7
Baliokidetasun errekarguaren OE %0,5	BI recargo de equivalencia 0,5%	186.507	0,5	193.167	0,5	-3,4
Baliokidetasun Errekarguen OE	BI Recargo de equivalencia	577.700	1,4	609.255	1,5	-5,2
Batasun barruko eskurapenen OE	BI Adquisiciones intracomunitarias	4.578.518	11,3	4.655.852	11,6	-1,7
Subjektu pasiboaren alderanzketaren OE	BI Inversión sujeto pasivo	2.485.415	6,1	2.795.449	7,0	-11,1
GUZTIRA	TOTAL	40.533.953	100,0	40.195.537	100,0	0,8

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.2. TAULA SORTUTAKO BEZa ETA BATEZ BESTEKO KARGA TASA ERREGIMEN OROKORREAN

CUADRO E.5.2. IVA DEVENGADO Y TIPO MEDIO DE GRAVAMEN EN RÉGIMEN GENERAL

KONTZEPTUA	CONCEPTO	2020	2021	2022	2023	%		
						21/20	22/21	23/22
Tasa orokorren oinarri ezargarria	Base imponible tipos generales	24.799.915	27.977.513	32.134.981	32.892.320	12,8	14,9	2,4
Sortutako kuota	Cuota devengada	4.443.018	5.058.307	5.785.426	5.780.753	13,8	14,4	-0,1
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	17,92	18,08	18,00	17,57	0,9	-0,4	-2,4
Baliokidetasun errekarguaren OE	Base imponible recargo equivalencia	588.089	577.202	609.255	577.700	-1,9	5,6	-5,2
Sortutako kuota	Cuota devengada	9.305	9.218	9.685	10.052	-0,9	5,1	3,8
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	1,58	1,60	1,59	1,74	0,9	-0,5	9,5
Batasun barruko eskurapenen OE	BI adquisiciones intracomunitarias	3.369.776	4.018.102	4.655.852	4.578.518	19,2	15,9	-1,7
Sortutako kuota	Cuota devengada	666.447	783.706	929.043	906.647	17,6	18,5	-2,4
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	19,78	19,50	19,95	19,80	-1,4	2,3	-0,8
Subjektu pasiboaren alderanzketaren OE	BI inversión sujeto pasivo	1.725.805	2.540.389	2.795.449	2.485.415	47,2	10,0	-11,1
Sortutako kuota	Cuota devengada	333.760	500.395	553.821	500.962	49,9	10,7	-9,5
Batez besteko karga tasa	Tipo medio gravamen	19,34	19,70	19,81	20,16	1,9	0,6	1,7

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.3. TAULA BEZaren KENKARIAK ERREGIMEN OROKORREAN

CUADRO E. 5.3. IVA TOTAL DEDUCCIONES DEL RÉGIMEN GENERAL

KENKARIAK	DEDUCCIONES	2020	2021	2022	2023	%		
						21/20	22/21	23/22
Barne eragiketak	Operaciones Interiores	3.829.702	4.535.280	5.422.104	5.142.998	18,4	19,6	-5,1
Inportazioak	Importaciones	202.295	272.717	366.429	303.268	34,8	34,4	-17,2
Batasun barruko eskurapenak	Adquisiciones intracomunitarias	661.791	780.778	925.618	903.161	18,0	18,6	-2,4
Nekazaritza, abletzantza eta arrantzko erregimen berezia	Régimen especial agricultura, ganaderia y pesca	2.807	3.354	3.906	3.461	19,5	16,5	-11,4
KENKARIAK, GUZTIRA	TOTAL DEDUCCIONES	4.696.595	5.592.129	6.718.057	6.352.888	19,1	20,1	-5,4

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.4. TAULA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOARI EGOTZITAKO EMAITZA TRIBUTAZIO ERREGIMENAREN ARABERA

CUADRO E.5.4. RESULTADO ATRIBUIDO AL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA SEGÚN EL RÉGIMEN DE TRIBUTACIÓN

TRIBUTAZIO ERREGIMENA	RÉGIMEN TRIBUTARIO	GIPUZKOARI EGOTZITAKO EMAITZA RESULTADO ATRIBUIDO A GIPUZKOA				% BARIAZIO TASA TASA VARIACIÓN %		
		2020	2021	2022	2023	21/20	22/21	23/22
Erregimen Orrokorra	Régimen General	760.401	765.930	575.914	856.452	0,7	-24,8	48,7
Enpresa handiak	Grandes empresas	584.704	609.776	639.136	689.674	4,3	4,8	7,9
Hileko itzulketen erregistroa	Registro de devoluciones mensuales	-474.576	-584.068	-836.670	-677.158	-23,1	-43,2	19,1
Bestelakoak (*)	Resto (*)	650.273	740.222	773.448	843.936	13,8	4,5	9,1
Erregimen Erraztua	Régimen Simplificado	1.944	4.822	4.074	4.284	148,0	-15,5	5,2
GUZTIRA	TOTAL	762.345	770.752	579.988	860.736	1,1	-24,8	48,4

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

(*) Erregimen orokorrera eta erregimen erraztura bildutako zergadunak hartzen ditu: 2020an 123, 2021ean 125, 2022an 131 eta 2023an 130
Incluye contribuyentes acogidos al régimen general y al régimen simplificado: 123 en 2020, 125 en 2021, 131 en 2022 y 130 en 2023.

E.5.5. TAULA HILEKO ITZULKETEN ERREGISTROAN INSKRIBATUTAKOEI BEZan ITZULITAKOAREN BILAKAERA SORTZAPEN HILABETEEN ARABERA

CUADRO E.5.5. EVOLUCIÓN DE LAS DEVOLUCIONES DE IVA A LOS INSCRITOS EN EL REGISTRO DE DEVOLUCIONES MENSUALES POR MESES DE DEVENGO

HILABETEAK	MESES	2020		2021		2022		2023	
		Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución	Kopurua Número	Itzulketa Devolución
Urtarrila	Enero	844	45.393	882	50.987	920	72.170	902	68.118
Otsaila	Febrero	846	51.367	879	56.649	920	77.445	904	83.613
Martxoa	Marzo	861	43.952	898	62.303	937	85.001	904	75.313
Apirila	Abril	848	46.430	886	56.730	944	75.619	907	68.887
Maiatza	Mayo	848	42.408	885	59.745	944	90.179	912	55.352
Ekaina	Junio	862	41.860	899	65.162	976	93.880	912	72.436
Uztaila	Julio	858	46.332	898	58.861	948	78.018	923	100.555
Abuztua	Agosto	857	34.269	894	46.255	945	75.653	925	55.352
Iraila	Setiembre	860	47.217	902	67.270	976	88.497	927	72.436
Urria	Octubre	858	52.095	896	66.598	945	86.203	933	84.234
Azaroa	Noviembre	859	44.417	899	73.975	943	80.067	925	72.999
Abendua	Diciembre	875	111.939	918	84.075	982	113.428	947	100.555
GUZTIRA	TOTAL	10.272	607.679	10.731	748.610	11.382	1.016.160	11.021	909.849

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

E.5.6. TAULA AITORPEN BATERATUA
CUADRO E.5.6. DECLARACION CONSOLIDADA

KONTZEPTUA	CONCEPTO	HILEKO AITORPENAK DECLARACIONES MENSUALES			HIRUHILEKO AITORPENAK DECLARACIONES TRIMESTRALES				GUZTIRA
		Enpresa handiak Grandes empresas	Hileko itzulketen erregistroa Registro devoluciones mensuales	Guztira Total	Erregimen Orokorra Régimen General	Erregimen Erraztua Régimen Simplificado	Erregimen Orokor+Erraztua Régimen General+Simplif.	Guztira Total	TOTAL
OINARRI EZARGARRIA (OE)	BASE IMPONIBLE (BI)								
Oinarri Ezargarria %21	Base Imponible 21%	9.611.669	6.574.734	16.186.403	8.084.632		1.528	8.086.160	24.272.563
Oinarri Ezargarria %10	Base Imponible 10%	1.628.033	1.758.398	3.386.431	2.931.648		122	2.931.770	6.318.201
Oinarri Ezargarria %5	Base Imponible 5%	141.391	330.338	471.729	17.883		0	17.883	489.612
Oinarri Ezargarria %4	Base Imponible 4%	283.000	204.510	487.510	85.139		1	85.140	572.650
Oinarri Ezargarria %0	Base Imponible 0%	333.458	629.048	962.506	276.788		0	276.788	1.239.294
Baliokidetasun errekarguaren OE %5,2	BI Recargo de equivalencia 5,2%	24.556	25.997	50.553	28.477		0	28.477	79.030
Baliokidetasun errekarguaren OE %1,75	BI Recargo de equivalencia 1,75%	191.669	0	191.669	663		0	663	192.332
Baliokidetasun errekarguaren OE %1,4	BI Recargo de equivalencia 1,4%	40.530	15.972	56.502	63.329		0	63.329	119.831
Baliokidetasun errekarguaren OE %0,5	BI Recargo de equivalencia 0,5%	147.254	37.548	184.802	1.705		0	1.705	186.507
								0	
Batasun barruko eskurapenen OE	BI Adquisiciones intracomunitarias	1.649.353	2.370.888	4.020.241	558.274		3	558.277	4.578.518
Subjektu pasiboaren alderanzketaren OE	BI Inversión sujeto pasivo	417.890	1.567.072	1.984.962	500.453		0	500.453	2.485.415
SORTUTAKO KUOTA	CUOTA DEVENGADA								
Sortutako Kuota %21	Cuota Devengada 21%	2.020.021	1.384.269	3.404.290	1.696.929		321	1.697.250	5.101.540
Sortutako Kuota %10	Cuota Devengada 10%	162.804	175.840	338.644	293.170		12	293.182	631.826
Sortutako Kuota %5	Cuota Devengada 5%	7.070	16.517	23.587	894		0	894	24.481
Sortutako Kuota %4	Cuota Devengada 4%	11.320	8.180	19.500	3.406		0	3.406	22.906
Baliok.Errek. sortutako kuota %5,2	Cuota devengada Rec. Equi 5,2%	1.277	1.352	2.629	1.481		0	1.481	4.110
Baliok.Errek. sortutako kuota %1,75	Cuota devengada Rec. Equi 1,75%	3.354	0	3.354	12		0	12	3.366
Baliok.Errek. sortutako kuota %1,4	Cuota devengada Rec. Equi 1,4%	547	201	748	895		0	895	1.643
Baliok.Errek. sortutako kuota %0,5	Cuota devengada Rec. Equi 0,5%	736	188	924	9			9	933
Batasun barruko eskurapenetan sortutako kuota	Cuota devengada Adq. Intracomunitarias	316.129	480.944	797.073	109.573		1	109.574	906.647
Subjektu pasiboaren alderanzketak sortutako kuota	Cuota devengada Inversión sujeto pasivo	84.604	320.719	405.323	95.639		0	95.639	500.962
Sortutako Kuota, Guztira (1)	Total Cuota Devengada (1)	2.607.862	2.388.210	4.996.073	2.202.008		334	2.202.342	7.198.415
KENKARIAK	DEDUCCIONES:								
Barne eragiketak	Operaciones Interiores	1.510.427	2.403.739	3.914.166	1.228.735		97	1.228.832	5.142.998
Inportazioak	Importaciones	99.998	182.187	282.185	21.083		0	21.083	303.268
Batasun barruko eskurapenak	Adquisiciones intracomunitarias	314.795	480.759	795.554	107.607		0	107.607	903.161
N.A. eta A.ko erregimen berezia	Rég. Esp. Agr. Gan. y Pesca	676	865	1.541	1.920		0	1.920	3.461
Inbertsioen erregularizazioa	Regularización inversiones	-7.709	-2.182	-9.891	-1.034		0	-1.034	-10.925
Kendutako Kuota, Guztira (2)	Total Cuota Deducida (2)	1.918.187	3.065.368	4.983.555	1.358.309		97	1.358.406	6.341.961
ERREGIMEN OROKORREKO DIFERENTZIA (3)=(1)-(2)	DIFERENCIA RÉGIMEN GENERAL (3)=(1)-(2)	689.674	-677.158	12.518	843.699		237	843.936	856.454
ERREGIMEN ERRAZTUA	RÉGIMEN SIMPLIFICADO								
Moduluak, Guztira	Total Módulos					5.134	199	5.333	5.333
Batasun barruko eskurapenak	Adquisiciones intracomunitarias					216	6	222	222
Beste sortzapen batzuk	Otros Devengos					495	91	586	586
Sortutako Kuota, Guztira	Total Cuota Devengada					5.845	296	6.141	6.141
Kenkariak	Deducciones					1.785	73	1.858	1.858
ERREGIMEN ERRAZTUKO DIFERENTZIA (4)	DIFERENCIA RÉGIMEN SIMPLIFICADO (4)					4.060	224	4.284	4.284
GIPUZKOARI EGOTZITAKO EMAITZA (5) = (3) + (4)	RESULTADO ATRIBUIDO A GIPUZKOA (5) = (3) + (4)	689.675	-677.158	12.517	843.699	4.060	461	848.220	860.737
ORDAINDU BEHARREKOA	A INGRESAR	698.534	220.063	918.597	897.434	4.702	493	902.629	1.821.226
ITZULI BEHARREKOA	A DEVOLVER	14.147	909.849	923.996	54.216	550	33	54.799	978.795
KONPENTSATZEKOA (gehikuntza)	A COMPENSAR (incremento)	-5.288	-12.628	-17.916	-481	92	-1	-390	-18.307
Batasun barruko salmentak	Entregas intracomunitarias	817.408	5.377.869	6.195.277	387.666	652	251	388.569	6.583.846
Esportazioak	Exportaciones	1.029.878	4.465.117	5.494.995	307.525	119	169	307.813	5.802.808
Aitortzaile kopurua	Número de contribuyentes	1.177	1.033	2.210	57.537	3.001	130	60.668	62.878
Aitorpen kopurua	Número de declaraciones	13.694	12.013	25.707	217.825	11.469	514	229.808	255.515

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

E.5.7.TAULA AITORPEN BATERATUA AITORTZAILE MOTAREN ARABERA
CUADRO E.5.7. DECLARACION CONSOLIDADA SEGUN TIPO DE DECLARANTE

KONTZEPTUA	CONCEPTO	SOZIETATEAK / SOCIEDADES					ONDASUN KOMUNITATEAK	PERTSONA FISIKOAK	GUZTIRA
		Sozietate Anonimoak Sociedades Anónimas	Erantzun Mugatuko Sozietateak Sociedades de Responsabilidad Limitada	Sozietate Kooperatiboak Sociedades Cooperativas	Gainerako Sozietateak Resto de Sociedades	Sozietateak Guztira Total Sociedades	COMUNIDAD DE BIENES	PERSONAS FÍSICAS	TOTAL
OINARRI EZARGARRIA (OE)	BASE IMPONIBLE (BI)								
Oinarri Ezargarria %21	Base Imponible 21%	8.297.104	12.217.968	1.815.288	828.843	23.159.203	182.924	930.436	24.272.563
Oinarri Ezargarria %10	Base Imponible 10%	1.139.333	3.973.077	373.978	215.683	5.702.071	196.209	419.921	6.318.201
Oinarri Ezargarria %5	Base Imponible 5%	378.595	81.374	23.730	5.249	488.948	172	492	489.612
Oinarri Ezargarria %4	Base Imponible 4%	358.762	178.644	27.352	4.296	569.054	531	3.065	572.650
Oinarri Ezargarria %0	Base Imponible 0%	296.675	676.699	190.406	40.804	1.204.584	8.079	26.631	1.239.294
Baliokidetasun errekarguaren OE %5,2	BI Recargo de equivalencia 5,2%	30.404	40.983	2.917	2.191	76.495	438	2.097	79.030
Baliokidetasun errekarguaren OE %1,75	BI Recargo de equivalencia 1,75%	191.669	3	0	0	191.672	0	660	192.332
Baliokidetasun errekarguaren OE %1,4	BI Recargo de equivalencia 1,4%	28.536	78.999	3.236	1.972	112.743	2.684	4.404	119.831
Hondakinak zabortegian uztearen gaineko Zerga	Impto s/ el depósito de residuos en vertederos	0	1.144	0	0	0	1.144
Ezabatutako beste zeharkako zergak	Otros imp. indirectos extinguidos	0	0	0	0	0	0
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA	TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	1.802.714	1.932.054	161.602	181.710	1.964.316	2.113.763
Bingoa	Bingo	874	961	0	0	874	961
Makinak	Máquinas	8.942	9.315	96	8	9.038	9.322
Kasinoak eta beste batzuk	Casinos y otros	1.829	1.821	68	61	1.897	1.882
Joko tasa, guztira	Total tasa de juego	11.645	12.097	164	69	11.810	12.166
Berandutza interesak	Intereses de demora	0	0	4.507	5.547	4.507	5.547
Zorrak eta errekarguak	Sanciones y recargos	0	0	9.422	10.633	9.422	10.633
Bestelako sarrerak	Otros ingresos	0	0	0	0	0	0
BESTE KONTZEPTUAK, GUZTIRA	TOTAL OTROS CONCEPTOS	11.645	12.097	14.093	16.248	25.738	28.345
Aurrekontuan aplik.sar.,guztira	Tot.Ingr.aplicados al presupuesto	4.702.251	5.133.681	308.394	336.137	5.010.645	5.469.819
Aurrek.aplik.ez diren sarrerak	Ingresos no aplicados al presupuesto	10.725	12.089	12.238	20.311	22.963	32.400
Udalen berezko zergak sarrera	Ingr.por Imp.propios municipales			18.444	18.348	18.444	18.348
ENTITATE LAGUNTZAILEEN BITARTEZ EGINDAKO SARRERAK, GUZTIRA	TOTAL INGRESOS A TRAVÉS DE ENTIDADES COLABORADORAS	4.712.976	5.145.770	339.075	374.797	5.052.051	5.520.568

Zenbatekoa mila eurokotan / Importe en miles de euros

8. ALDUNDIAREN JARDUERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA. 2023KO EKITALDIA

8.0. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuaren likidazioak 40.155.882 euroko superabita eman du.

Finantza alorrean, ekitaldi honetako superabita erabilgarriaren txikitzeagatik eman da, batez ere (ikus eranskinaren E.8.2. taula). GFAren egoera finantzario garbia negatiboa egiten da: 75 milioi euro negatibo 2023an, 2022ko 25 milioi positiboren aldean.

2023ko ekitaldian zerga itunduak %6,5 igo dira, eta erakundeekiko konpromisoak %6,7 gora egin dute. Horren ondorioz, GFAri egotzitako zerga itunduak %5,2 igo dira.

Egotzitako zerga itunduen hazkundea erakundeekiko konpromisoena baino txikiagoa zergatik izan den ulertzeko hainbat faktore hartu behar dira kontuan:

1) Kupoaren eguneratze indizea jaitsi egin da (-%3,5) eta Gipuzkoako zerga-bilketa berriz %6,5 igo da. Estatuari ordaindu beharreko kupoaren gastuak Gipuzkoako zergan igoera baina txikiagoa izan da.

2) Kupoaren likidazioa hurrengo urtera aldatzeak fluxu zehatzak sortzen ditu. Aurten, saldo hori lurraldeko baliabideen kontrakoa izan da, 2023an ordaindutako kupoa (2022. ekitaldiko kupoaren likidazioa + 2023ko behin-behineko kupoa) 2023. ekitaldiko behin betiko kupoa baino handiagoa izan baita.

3) Gipuzkoako ekarpenaren indize horizontala %33,45etik %33,41era jaitsi da, eta horrek lurralde baliabideak igo ditu.

4) Gipuzkoan zerga-bilketak EAEkoak baino gehiago igo dira.

Faktore horien eraginez, erakundeekiko konpromisoak zerga itunduak baino 0,2 puntu gehiago igo dira.

Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak %4,5eko igoera izan du. Hori dela eta, 316 milioi euroko

8. ACTIVIDAD ECONÓMICO–FINANCIERA FORAL. EJERCICIO 2023

8.0. INTRODUCCIÓN

La liquidación del presupuesto de 2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha arrojado un superávit de 40.155.882 euros.

En el plano financiero, el superávit de este ejercicio se ha debido , sobre todo, a la disminución del disponible (véase cuadro E.8.2. del anexo). La variación de la posición financiera neta de la DFG se hace negativa: 75 millones de euros negativo frente a 25 millones de euros positivo de 2022.

En 2023 los tributos concertados han aumentado un 6,5%, el conjunto de los compromisos institucionales ha aumentado un 6,7% y, como consecuencia, los tributos concertados imputados a la DFG han subido el 5,2%.

Este menor aumento de los tributos concertados imputados en relación con la variación del importe de los compromisos institucionales es el resultado de la combinación de los siguientes factores:

1) El índice de actualización del cupo disminuye el 3,5%, y la recaudación de los tributos de Gipuzkoa aumenta el 6,5%: el gasto del cupo al Estado aumenta menos que los tributos guipuzcoanos.

2) El desplazamiento de la liquidación del cupo al año siguiente genera determinados flujos. En 2023 ese saldo ha perjudicado a los recursos del territorio dado que el cupo pagado en el ejercicio (liquidación cupo ejercicio 2022 + cupo provisional 2023) es mayor al cupo definitivo correspondiente al ejercicio 2023.

3) El índice horizontal de aportación de Gipuzkoa ha disminuido del 33,45% al 33,41%: aumentan los recursos guipuzcoanos.

4) La recaudación guipuzcoana aumenta más que la recaudación de tributos concertados de la CAPV.

La incidencia de estos factores provoca que los compromisos institucionales aumenten 0,2 puntos porcentuales más que los tributos concertados.

El Fondo Foral de Financiación Municipal ha aumentado un 4,5%. Por todo ello, el aumento de

erakundeekiko konpromisoen igoera (+%6,7) zerga itunduena baino 0,2 puntu portzentual handiagoa izan da (+%6,5), eta hala ere, GFAri egotzitako zergak, foru entearen gastu propioak finantzatzeko erabiltzen direnak, igo egin dira: +%5,2.

316 millones de euros de los compromisos institucionales (+6,7%) ha sido mayor en 0,2 puntos porcentuales al de los tributos concertados (+6,5%). Aún así, los tributos imputados a la DFG, que se destinan a la financiación de los gastos propios del Ente Foral, han aumentado: el +5,2%.

8.1. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN AURREKONTU PROPIOA

8.1.0. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak, gainerako foru aldundienak bezalaxe, gastu masa handia hartzen du bere baitan. Haren zenbatekoa aurrekontua egin baino lehen finkatzen da lege edo foru arau bidez, eta erakundeekiko konpromisoak izenburupean biltzen da. Hauek dira konpromisoak:

- Estatuarentzako kupoa.
- Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak.
- Udalak Finantzatzeko Foru Fondoa.

8.1. grafikoan ikus daitekeenez, konpromiso horien zenbatekoa Foru Aldundiaren gastu ez-finantzario osoaren hiru laurden baino gehiago da. Gastu horien tamaina kontuan izanik eta aurretik finkatutako kopuruak direnez, komenigarri egiten da superabit/defizita, aurrezkia, inbertsioa eta abar bezalako ratioak elaboratzea konpromiso horiei lotu gabe dauden gainerako gastu eta sarrera masak aintzat hartuz.

Gastu osoaren eta erakundeekiko konpromisoen arteko diferentziak gastu propioa ematen digu, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantza eta aurrekontu politika gidatzen duen aldagaia.

Era berean, zerga itunduen bidez bildutako sarreretatik erakundeekiko konpromisoen zenbatekoa kentzen bada GFAri egotzitako zerga itunduak lortzen dira, eta gainerako sarrerak gehituz gero, orduan sarrera propioak lortzen ditugu.

Aurrekontu osotik gastuen eta sarreren kopuru bera kentzen denez, aurrekontu propioaren sarrera eta gastu masen arteko saldoak (aurrezkia edo superabit/defizita) bat datoz aurrekontu osoaren saldoekin.

8.1. PRESUPUESTO PROPIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

8.1.0. INTRODUCCIÓN

El presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa, al igual que el del resto de las diputaciones forales, contiene una importante masa de gasto cuya cuantía está predeterminada por Ley o Norma Foral anterior al presupuesto y que se agrupa bajo la denominación común de Compromisos Institucionales:

- El cupo al Estado.
- Las aportaciones al Gobierno Vasco.
- El Fondo Foral de Financiación Municipal.


El importe de estos compromisos, como se aprecia en el gráfico 8.1., viene a suponer más de las tres cuartas partes del total del gasto no financiero de la DFG. La magnitud de este gasto y su carácter predeterminado aconsejan que los ratios de superávit/déficit, ahorro, inversión, etc... se elaboren en relación al resto de la masa de gastos e ingresos no afectos a estos Compromisos.

La diferencia entre el gasto total y la cuantía de los compromisos institucionales da lugar al gasto propio, que es la variable sobre la que actúa la política financiera y presupuestaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Del mismo modo, si a los ingresos por recaudación de los tributos concertados se les resta la cuantía correspondiente a los compromisos institucionales se obtienen los tributos concertados imputados a la DFG, y sumados el resto de los ingresos se obtienen los ingresos propios.

Dado que se detrae del presupuesto total un mismo importe, tanto de los gastos como de los ingresos, los saldos entre las diferentes masas de ingresos y gastos del presupuesto propio, como el ahorro o el superávit/déficit, coinciden con los del presupuesto total.

GRÁFICO 8.1. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu ez-finantzarioak
Ingresos y gastos no financieros



Kapitulu honetako lehen atalean foru aldundiaren superabit/defizita aztertzen da, hiru saldo desberdin kalkulatuz:

- Finantzazio ahalmena/beharra.
- Superabit/defizit primarioa.
- Kutxako superabit/defizit ez-finantzarioa.

En el primer apartado de este capítulo se analiza el superávit/déficit de esta Diputación Foral, calculando tres saldos distintos:

- La capacidad/necesidad de financiación.
- El superávit/déficit primario.
- El superávit/déficit de caja no financiero.

Bigarren atalean finantza arloa aztertzen da eta honako hauek dira aztergaiak: tresna finantzario desberdinek eta Foru Aldundiaren zorrak 2020-2023 epealdian izan duten portaera, egoera finantzario garbiaren bilakaera, urte arteko bariazioa (kutxako superabit/defizit ez-finantzarioarekin bat datorrena), eta azkenik, haren osagaiak.

El segundo apartado centra el estudio en el plano financiero, analizando el comportamiento de los distintos instrumentos financieros así como el de la deuda de la Diputación Foral en el periodo 2020-2023, la evolución de su posición financiera neta, su variación interanual (que coincide con el superávit/déficit de caja no financiero) y sus diferentes componentes.

Hurrengo atalak, sarrera eta gastu propio ez-finantzarioei buruzkoak, honako aztergaiak ditu: aurrekontu propio ez-finantzarioaren egitura, epealdiko bilakaera, eta aurrekontua osatzen duten sarrera eta gastuen kapituluen portaera.

El siguiente apartado, correspondiente a los ingresos y gastos propios no financieros, se centra en la estructura del presupuesto no financiero propio y su evolución en el periodo, así como en el comportamiento de los distintos capítulos de ingresos y gastos que lo componen.

Amaitzeko, aurrekontu funtzio bakoitzean kudeaketa propioko gastu ez-finantzarioak 2020-2023 epealdian izan duen bilakaera aztertzen da. Horrela, gastu horren bilakaerari eta helburuari buruzko analisia lortzen dugu.

Por último, se analiza la evolución en el periodo 2020-2023 del gasto no financiero de gestión propia de cada función presupuestaria. Así obtenemos un análisis de la evolución de dicho gasto y su finalidad.

8.1.1. SUPERABIT/DEFIZITA

Hemen aipatzen dugun lehen kontzeptua, "superabit/defizitarena", Europako Kontuen Sisteman (EKS) definitutako "finantzazio ahalmen/beharrarena" da. Foru Aldundiari dagokionez, sarreren egoerako 1etik 7ra bitarteko kapituluetako eskubide onartuen eta gastuen egoerako 1etik 7ra bitarteko kapituluetako obligazio onartuen arteko diferentzia jaso da, betiere erakundeekiko konpromisoak sarreretatik nahiz gastuetatik kendu eta gero. Aldea positiboa denean, bere finantzazio ahalmena adieraztea lortzen dugu, eta negatiboa bada, orduan bere finantzazio beharra adierazten dugu.

2023an 1.091.913 mila euroko **sarrera propio ez-finantzarioak** izan dira, Gipuzkoarako aurreikusitako BPGren %3,6.

2020-2023 epealdian sarrera horiek %37,4 igo dira: lehen urteko 794 milioi eurotik 1.092 milioi eurora pasatu da. Bilakaera honen arrazoia dugu 2021. urtean ematen den igoera handia eta ondorengo urteetan ematen den igoera:

- 2021. urtean igo egin dira: +%25,1 eta 200 milioi euro.
- 2022. urtean igo egin dira: +%4,4 eta 44 milioi euro.
- Azken urtean igo egin dira: +%5,2 eta 54 milioi euro.

8.1.1. SUPERÁVIT/DÉFICIT


El primer concepto de “superávit/déficit” al que nos referimos aquí es el de “capacidad/necesidad de financiación” definido en el Sistema Europeo de Cuentas (SEC). En el caso de la DFG se recoge la diferencia entre los derechos reconocidos de los capítulos uno a siete del estado de ingresos y las obligaciones reconocidas de los capítulos uno al siete del estado de gastos, una vez detraída, tanto en ingresos como en gastos, la cuantía correspondiente a los compromisos institucionales. Así se consigue expresar su capacidad de financiación si es positiva y su necesidad de financiación en caso de ser negativa.

En 2023 los **ingresos propios no financieros** han ascendido a 1.091.913 miles de euros, el 3,6% del PIB guipuzcoano estimado.

A lo largo del periodo 2020-2023 han aumentado un 37,4%: de 794 millones de euros en el primer año a 1.092 millones. Esta evolución se debe al importante aumento producido en 2021 y consolidado en los ejercicios posteriores:

- En 2021 aumentan: +25,1%, en 200 millones de euros.
- En 2022 aumentan: +4,4%, en 44 millones de euros.
- En el último año aumentan: +5,2%, en 54 millones de euros.

GRÁFICO 8.2. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu propio ez-finantzarioaren bilakaera
Evolución de los ingresos y gastos propios no financieros



Gastu propio ez-finantzarioek, beren aldetik, 1.051.758 mila euroko zenbatekoa dute azken ekitaldian, Gipuzkoako BPGren %3,5.

Aztertu diren lau urteetan, gastuak igo egin dira, +%29,8 hain zuzen (2020ko 810 milioi eurotik 2023ko 1.052 milioi eurora pasa da). Gastuen bilakaerari erreparatuta, hazkunde tasak sarrerenak eta gastuenak ezberdinak dira, orokorrean:

- 2021ean 81 milioi euro handitu dira (+%10,1).
- 2022an 50 milioi euro handitu dira (+%5,6).
- 2023an 110 milioi euro handitu dira (+%11,7).

2023an sarreren igoera txikiagoak, gastu propio ez-finantzarioen igoeraren aldean saldoan islatzen da argi eta garbi, aurtengo superabita aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa delako: 40 milioi euroko superabita 2023an eta 96 milioi euroko superabita 2022an.

Por su parte, los **gastos propios no financieros** han alcanzado los 1.051.758 miles de euros en el último ejercicio, el 3,5% del PIB del territorio.

En los cuatro años recogidos del periodo, los gastos registran crecimiento, con una tasa del +29,8% (desde 810 millones de euros en 2020 hasta 1.052 millones en 2023). La evolución de los gastos muestra unas tasas muy diferentes, en general, a las de los ingresos:

- En 2021 aumentan 81 millones de euros (+10,1%).
- En 2022 aumentan 50 millones de euros (+5,6%).
- En 2023 aumentan 110 millones de euros (+11,7%).

Este menor aumento de los ingresos frente al gasto propio no financiero en 2023 se refleja claramente en el saldo, ya que este ejercicio se produce superávit inferior al del ejercicio anterior : 40 millones de euros de superávit frente a los 96 millones de superávit del ejercicio 2022.


Bere bi osagaien portaera dela-eta, bien arteko saldoak (superabit/defizitak) igoera metatu du epealdian:

- 2021an 118 milioi euro igo da saldoa, 16 milioiko defizita izatetik 102 milioiko superabita izatera: (+%740,6).
- Hurrengo urtean, saldoa 6 milioi jaitsi da, 102 milioiko superabita izatetik 96 milioiko superabita izatera: (-%5,8).
- 2023an, azkenik, saldoa 56 milioi jaitsi da, 96 milioiko superabita izatetik 40 milioiko superabita izatera: (-%58,3).

Dado el comportamiento de sus dos componentes, el saldo entre ambos (superávit/déficit) presenta un aumento acumulado en el periodo:

- En 2021 el saldo aumenta en 118 millones, de déficit de 16 millones a superávit de 102 millones: +740,6%.
- El siguiente ejercicio, el saldo disminuye en 6 millones, de superávit de 102 millones a superávit de 96 millones: -5,8%.
- Finalmente, en 2023, el saldo disminuye en 56 millones, de superávit de 96 millones a superávit de 40 millones: -58,3%.

GRÁFICO 8.3. GRAFIKOA
Sarrera propio ez-finantzarioen erabileraren bilakaera
Evolución del destino de los ingresos propios no financieros



Bilakaera hori 8.3. grafikoan jasotzen da argi eta garbi. Bertan ikus daiteke nola erabili edo banatu diren sarrera propio ez-finantzarioak hiru elementuen artean. Hona hemen zeintzuk diren:

- Zorraren interes pasiboei aurre egiteko erabilitako gastu propio ez-finantzarioak.
- Gainerako gastuak, kudeaketa propioko gastuak deiturikoen parte direnak.

Esta evolución aparece claramente recogida en el gráfico 8.3., en el que se muestra el destino o reparto de los ingresos propios no financieros entre los tres elementos:

- La parte de los gastos propios no financieros destinada a hacer frente a los intereses pasivos de la deuda.
- El resto de los gastos que forman los denominados gastos de gestión propia.

- Aldea edo saldoa, ekitaldiko superabit/defizitari dagokiona.

Aztertutako lau urteetan hauxe ikusten da:

- Kudeaketa propioko gastuak %29,7 igo dira epealdian. Horrela, urte oro sarrera propioen %89,5etik gora dira ekitaldi guztietan.
- Interesen gastuak %43,7 igotzen dira, 2020. urtean sarreren %0,3 dira eta 2023an ere bai.
- Defizita eman da 2020ko ekitaldian (16 milioi euro eta sarreren -%2,0). 2021eko ekitaldian 102 milioi euroko superabita eman da (sarrera propio ez-finantzarioen +%10,3) eta 2022ko ekitaldian 96 milioi euroko superabita (sarreren +%9,3). 2023ko ekitaldian superabita eman da, 40 milioi euro (sarreren +%3,7).

Magnitude horiek beste modu batera ere aztertu daitezke, hau da, ekitaldi bakoitzean Gipuzkoak izan duen BPGrekin erlazionatuz, eta haien bilakaera lurraldeko ekonomiaren portaerarekin alderatuz. Txosten honetan, BPGri buruzko zifrak aurreikuspen bat dira 2022ko ekitaldiari dagokionez eta aurrerapen bat 2023rako.

BPGren portzentajeari erreparatuta, honako hau antzematen da epealdian:

- Sarrera ez-finantzarioak ez dira aldatzen, eta BPGren %3,3an kokatzen da ekitaldiko lehen urtean, %3,8a bigarren urtean, %3,7a ekitaldiko hirugarren urtean eta %3,6a azken urtean.
- Kudeaketa propioko gastu ez-finantzarioak ere ez du aldaketa handirik epealdian: %3,4an mantentzen da lehen urteetan eta 2023an %3,5koa da.
- Interes pasiboek %0,01 dira ekitaldi guztian.
- Defizita, horren ondorioz, -%0,1ekoa da 2020an. 2023an %0,1eko superabita daukagu. 2021ean %0,4ko superabita eta 2022an %0,3koa.

- La diferencia o saldo que corresponde al superávit/déficit del ejercicio.

En los cuatro años recogidos se produce:

- Un aumento de los gastos de gestión propia (+29,7%) que representa más del 89,5% de los ingresos propios en todos los ejercicios.
- Un aumento del gasto en intereses del 43,7%: 0,3% de los ingresos en 2020 y en 2023.
- Se ha producido déficit en el ejercicio 2020 (16 millones de euros y el -2,0% de los ingresos). En el ejercicio 2021 se produce un superábit de 102 millones de euros (+10,3% de los ingresos propios no financieros) y en 2022 un superávit de 96 millones de euros (+9,3% de los ingresos). En 2023 se produce superávit, 40 millones de euros (+3,7% de los ingresos).

Otra forma de analizar estas magnitudes es relacionándolas con el PIB guipuzcoano para cada ejercicio, comparando así su evolución con respecto al comportamiento de la economía del territorio. En este informe, las cifras relativas al PIB corresponden a una previsión para el 2022 y a un avance para el 2023.

En términos de **porcentaje del PIB** se aprecia que a lo largo del periodo:

- Los ingresos no financieros no varían en el periodo y representan el 3,3% del PIB en el primer ejercicio, el 3,8% en el segundo, el 3,7% en el tercero y el 3,6% en el último ejercicio.
- El gasto no financiero de gestión propia tampoco experimenta grandes cambios: se mantiene en el 3,4% al principio del periodo y termina siendo el 3,5% en 2023.
- Los intereses pasivos son del 0,01% durante todo el periodo.
- El déficit, en consecuencia, es del -0,1% en 2020. En 2023 tenemos un superávit del 0,1%. En 2021 tenemos un superávit del 0,4% y en 2022 del 0,3%.

Kontuan eduki behar den beste magnitude bat "**superabit/defizit primarioa**" da, alegia, sarrera propio ez-finantzarioen eta kudeaketa propioko gastuen arteko diferentzia. Hau da, aurreko superabit/defizit bera da, baina interes pasiboei aurre egiteko gastuak kontuan hartu gabe. Horren ondorioz, ekitaldi guztietan bere zenbatekoa aurreko saldoa baino handiagoa da.

Epealdi osoa hartuta, baina, igoera lehen aipatu dugun superabit/defizitarena baino handiagoa izan da, interes pasiboen eraginez (2021. eta 2022. urteetan jaisten dira, eta 2023. urtean gora egiten du) eta:

- Sarrera propio ez-finantzarioen -%1,7 da 2020. urtean eta %4,0 2023an.
- BPGarekiko: %0,3n inguruan dabil (2020an -%0,1, 2021ean %0,4, 2022an %0,3 eta 2023an %0,1 izan da).

8.4. eta 8.5. grafikoetan bi superabit/defizit mota horien eta Gipuzkoako BPGren arteko erlazioa jaso dugu 2020-2023 epealdiari dagokionez.

8.4. grafikoan ikus daitekeenez, 2020ko superabit/defizitak BPGren -%0,1eko tasa lortzen dute. 2021ean %0,4ko tasa lortzen da, epealdiko portzentajerik altuena. 2022an %0,3ko tasa lortzen da. 2023an, %0,1eko tasa lortzen da.

Otra magnitud que hay que tener en cuenta es el "**superávit/déficit primario**": la diferencia de los ingresos propios no financieros y los gastos de gestión propia. Es decir, es igual al superávit/déficit anterior sin contar los gastos destinados a los intereses pasivos. Por ello, presenta en todos los ejercicios una cuantía superior al saldo anterior.

En el periodo, no obstante, ha aumentado en mayor proporción que el superávit/déficit antes comentado debido a la incidencia de los intereses pasivos, que disminuyen en 2021 y 2022, para aumentar en 2023:

- Representa el -1,7% de los ingresos propios no financieros en 2020 y el 4,0% en 2023.
- Respecto al PIB: se mantiene entorno al 0,3% (-0,1% en 2020, 0,4% en 2021, 0,3% en 2022 y 0,1% en 2023).

La relación entre los dos tipos de superávits/déficits y el PIB guipuzcoano viene recogida en los gráficos 8.4 y 8.5. para el periodo 2020-2023.

El superávit/déficit (gráfico 8.4.) en 2020 obtuvo tasa negativa (-0,1% del PIB). En 2021, sube al 0,4%, porcentaje más alto del período. En 2022, baja al 0,3%,. En 2023, se sitúa en el 0,1%.

GRÁFICO 8.4. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu propio ez-finantzarioak eta superabit/defizita BPGrekiko erlazioan
Ingresos y gastos propios no financieros y superávit/déficit en relación al PIB





GRÁFICO 8.5. GRAFIKOA

Sarrera propio ez-finantzarioak, kudeaketa propioko gastuak eta superabit/defizit primarioa BPGrekiko erlazioan

Ingresos propios no financieros, gastos de gestión propia y superávit/déficit primario en relación al PIB



Bi grafikoetan argi ikus daitekeenez, 2021ean sarrerak gastuak baina gehiago handitzen dira, beraz aurreko urteko defizita superabit handi batean bihurtzen da (BPGarekiko portzentajea ere igo egiten da). 2022an sarrerak gastuak baina gutxiago handitzen dira, beraz aurreko urteko superabita superabit txikiago batean bihurtzen da (BPGarekiko portzentajea ere jaitsi egiten da). 2023an sarrerak gastuak baina gutxiago handitzen dira, beraz aurreko urteko superabita superabit txikiago batean bihurtzen da (BPGarekiko portzentajea ere jaitsi egiten da).

Como se puede apreciar claramente en ambos gráficos, en 2021 aumentan los ingresos en mayor proporción que los gastos, por lo que el déficit del año anterior se convierte en un gran superávit, al igual que aumenta su porcentaje respecto al PIB. En 2022 aumentan los ingresos en menor proporción que los gastos, por lo que el superávit del año anterior se convierte en un menor superávit, al igual que disminuye su porcentaje respecto al PIB. En 2023 aumentan los ingresos en menor proporción que los gastos, por lo que el superávit del año anterior se convierte en un menor superávit, al igual que disminuye su porcentaje respecto al PIB.

Badago hirugarren saldo bat, "**kutxako superabit/defizit ez-finantzarioa**" deiturikoa, ondoko hauen arteko aldea jasotzen duena:

- Sarreren 1etik 7ra arteko kapituluetan egindako kobrantzak.
- Gastuen 1etik 7ra arteko kapituluetan egindako ordainketak.

Existe un tercer saldo denominado **"superávit/déficit de caja no financiero"** que recoge la diferencia entre:

- Los cobros realizados correspondientes a los capítulos uno al siete de ingresos.
- Los pagos realizados relativos a los capítulos uno al siete del estado de gastos.

Hau da, saldoa kalkulatzen da diruzaintzako fluxuen ikuspegitik. Horretarako, ekitaldian egindako kobrantzak eta ordainketak baino ez dira kontuan hartzen, eskubidea edota obligazioa noiz sortu den alde batera utziz.

Es decir, se calcula el saldo desde el punto de vista de los flujos de tesorería. Para ello, se tienen en cuenta únicamente los cobros y pagos realizados durante el ejercicio, independientemente del momento en que se generó el derecho y/o la obligación.


2023an kutxako superabit/defizit ez-finantzarioa negatiboa izan da, hots, urte horretan 75 milioi euroko defizita izan da. Zenbateko horrek bi kopuru hartzen ditu: 40 milioi euroko superabit batetik eta eragiketa ez-finantzarioen

En 2023 el superávit/déficit de caja no financiero es negativo, es decir, hay un déficit de caja no financiero de 75 millones de euros. Esta cuantía está formada por los 40 millones de superávit y por una cuantía negativa de 115 millones de euros

desplazamendu negativo garbia bestetik, hau da, 115 milioi euro. Kontzeptu honek unean uneko finantzazio ahalmen edo beharra jartzen du agerian.

del desplazamiento neto de operaciones no financieras. Este concepto pone de manifiesto la capacidad o necesidad de financiación coyuntural.

GRÁFICO 8.6. GRAFIKOA
Kutxako saldo ez-finantzarioaren bilakaera
Evolución del saldo de caja no financiero



8.6. grafikoan "superabit/defizitaren" eta "kutxako superabit/defizit ez-finantzarioaren" bilakaera ikus daiteke 2020-2023 epealdiari dagokionez. Honako hau nabarmendu daiteke urte horietan:

- 2020an desplazamendu garbien ekarpena positiboa da, eta aurrekontuko defizita eman da.
- 2021ean desplazamendu garbien ekarpena positiboa da, eta aurrekontuko superabita eman da.
- 2022an desplazamendu garbien ekarpena negatiboa da, eta aurrekontuko superabita eman da.
- 2023an desplazamendu garbien ekarpena negatiboa da, eta aurrekontuko superabita eman da.

En el gráfico 8.6. se recoge la evolución tanto del "superávit/déficit" como del "superávit/déficit de caja no financiero" referido al periodo 2020-2023. En estos años cabe destacar:

- En 2020, la aportación del desplazamiento neto es positivo, y se da déficit presupuestario.
- En 2021, la aportación del desplazamiento neto es positivo, y se da superávit presupuestario.
- En 2022, la aportación del desplazamiento neto es negativo, y se da superávit presupuestario.
- En 2023, la aportación del desplazamiento neto es negativo, y se da superávit presupuestario.

8.1.2. EMAITZA FINANTZARIOA ETA ZORRA

Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna finantzario desberdinak erabiltzen ditu eskura dauzkan diru baliabideak denboran zehar ahal den ondoen aplikatzeko:

- Kutxako defizit ez-finantzarioa dagoen ekitaldian pasibo finantzarioak gehitu egiten dira edota aktibo finantzarioak murrizten.
- Kutxako superabit ez-finantzarioa sortzen denean, pasibo finantzarioak murrizten dira edota aktibo finantzarioak gehitzen.
- Normalean mugimendu finantzario desberdinen arteko konbinazioa gertatzen da:
    - Defizitaren kasuan, Foru Aldundiaren Egoera Finantzario Garbia murriztea dakarte (aktibo finantzarioak ken pasibo finantzarioak).
    - Superabitaren kasuan, berriz, Egoera Finantzario Garbia gehitzen dute.

2023. urtean GFAren Egoera Finantzario Garbia 75 milioi eurotan okertu da, hain zuzen ere, kutxako defizita ez-finantzarioak ekitaldian lortu duen zenbatekoan. Emaitza hori hainbat mugimendu finantzarioren ondorioz gertatu da, eta batik bat ondoko hauek direla eta:

- Aktibo finantzarioan: jaisten dira aurrekontuz kanpoko bestelako aktiboak eta erabilgarria, igotzen dira partaidetzak eta emandako maileguak. Batera hartuta, jaitsiera 300 milioi eurokoa da.
- Pasibo finantzarioan: aurrekontuz kanpoko bestelako pasiboak igotzen dira, eta jesapenak eta jasotako maileguak gora egiten dute. Guztira, 225 milioi euro jaitsi dira. Jaitsiera hau aurreko ekitaldiko 55 milioiko igoera baino txikiagoa delarik.

8.1.2. RESULTADO FINANCIERO Y DEUDA

La Diputación Foral de Gipuzkoa utiliza diferentes instrumentos financieros para optimizar la asignación intertemporal de recursos:

- En el ejercicio en el que se produce un déficit de caja no financiero aumentan los pasivos financieros y/o disminuyen los activos financieros.
- Cuando se genera un superávit de caja no financiero disminuyen los pasivos financieros y/o aumentan los activos financieros.
- Más frecuentemente se produce una combinación de diferentes movimientos financieros que:
    - En el caso del déficit dan lugar a una disminución de la Posición Financiera Neta de la Diputación Foral (activos financieros menos pasivos financieros).
    - En el caso del superávit, a un aumento de su Posición Financiera Neta.

En 2023 se produce un empeoramiento de la Posición Financiera Neta de la DFG por importe de 75 millones de euros, es decir, por la cuantía correspondiente al déficit de caja no financiero alcanzado en el ejercicio. Este resultado final se obtiene a partir de diversos movimientos financieros, cuyos principales componentes han sido:

- En el activo financiero: disminuyen los otros activos no presupuestarios y el disponible, aumentan las participaciones y préstamos concedidos. En conjunto disminuyen en 300 millones de euros.
- En el pasivo financiero: aumentan los otros pasivos no presupuestarios, y disminuyen los empréstitos y préstamos recibidos. En conjunto disminuyen en 225 millones de euros, importe inferior al aumento de 55 millones del ejercicio anterior.

GRÁFICO 8.7. GRAFIKOA
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoera Finantzario Garbiaren bilakaera
Evolución de la Posición Financiera Neta de la Diputación Foral de Gipuzkoa





GRÁFICO 8.8. GRAFIKOA
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoera Finantzario Garbiaren bi osagaien bilakaera
Evolución de los dos componentes de la Posición Financiera Neta de la Diputación Foral de Gipuzkoa



Egoera finantzario garbiak 2020-2023 epealdian izan duen bilakaera aztertzen badugu, honako hau ikus daiteke:

- Pasibo finantzarioek behera egin dute epealdian, batez ere "Jesapenak eta jasotako maileguak " apartatuan. 2020an jaitsiera eman da (4 milioi eurokoa). 2021ean igoera eman da, 116 milioi euro eta 2022an berriro igoera eman da, 55 milioi euro. 2023an jaitsiera handia ematen da, 225 milioi euro.

- Aktibo finantzarioek behera egin dute epealdiko azken ekitaldian, pasiboak baino kopuru handiagoan. 2020an, 2021ean eta 2022an gora egin dute (+29 milioi, +318 milioi , +79 milioi). 2023an behera egiten dute, 300 milioi euro.

- Bien arteko eragina: egoera finantzario garbia hobetuz joan da urtetik urtera 2022ra arte (2020an +33 milioi, 2021ean 202 milioi eta 2022an +25 milioi). 2023an okertu egin da joera eta, 75 milioi euroko defizita izan da.

Si analizamos la evolución de la posición financiera neta en el periodo 2020-2023, podemos observar:

- Una disminución en el periodo de los pasivos financieros, sobre todo el apartado de "Empréstitos y Préstamos recibidos". Comenzamos el periodo con una bajada de 4 millones de euros (año 2020). En 2021 aumenta en 116 millones de euros y en 2022 se produce otro aumento, con un total de 55 millones de euros. En 2023 se da un importante descenso, con un total de 225 millones de euros.

- Los activos financieros disminuyen en el último ejercicio del período más que los pasivos, con aumentos en 2020 (+29 millones), 2021 (+318 millones) y 2022 (+79 millones). En 2023 disminuyen en 300 millones.

- El efecto conjunto: la posición financiera neta ha ido mejorando cada ejercicio hasta 2022 (en 2020 +33 millones, en 2021 +202 millones y en 2022 +25 millones). En 2023 empeora, y tiene un resultado de 75 millones de euros de déficit.

Egoera finantzario garbiaren analisia egitean interesgarria izaten da osagai bakoitza bere urteko bariazioaren arabera aztertzea, hau da, ekitaldiaren hasieratik amaiera bitartean zein diferentzia dagoen ikustea. Era horretan aztertu daiteke zein saldo sortu diren ekitaldi bakoitzean eta nola sortu diren. Kontuan eduki behar da, baita ere, urte bakoitzeko egoera finantzario garbiaren bariazioa ekitaldiko kutxako superabit/defizit ez-finantzarioarekin bat datorrela.

Dentro del análisis de la posición financiera neta resulta interesante estudiar cada componente en base a su variación anual, es decir, la diferencia entre su situación al inicio del ejercicio y al final del mismo. Así se analiza qué saldos y cómo se han generado en cada ejercicio. También ha de tenerse en cuenta que la variación de la posición financiera neta de cada año coincide con el superávit/déficit de caja no financiero del ejercicio.

Analisi horrek erakusten du epealdiko egoera finantzario garbia positiboa dela. 2020an 33 milioi igotzen da, +114 milioira iritsiz. 2021ean 202 milioi igotzen da, +315 milioira iritsiz. 2022an 25 milioi igotzen da, +340 milioira iritsiz. 2023an 75 milioi jaisten da, +266 milioira iritsiz.

Con este análisis se aprecia que la posición financiera neta del periodo es positiva. En 2020 aumenta en 33 millones para alcanzar una cifra positiva de 114 millones. En 2021 aumenta en 202 millones para alcanzar una cifra positiva de 315 millones. En 2022 aumenta en 25 millones para alcanzar una cifra positiva de 340 millones. En 2023 disminuye en 75 millones para alcanzar una cifra positiva de 266 millones.

Urtez urteko bariazioek portaera desberdina dute aztertu den epealdian (8.9 grafikoa):

- Pasibo finantzarioek, gehienbat "Jesapenak eta jasotako maileguak " 2020. urtean 4 milioiko jaitsiera izan dute. 2021ean gora egiten dute, 116 milioietan, eta 2022an ere gora egiten dute, 55 milioi euro. 2023an 225 milioi euro jaisten dira.

- Aktibo finantzarioak epealdiko mailarik baxuena lortzen dute 2023an. 2020an, 2021ean eta 2022an igoera ematen da.

- Horren ondorioz, egoera finantzario garbiaren gorabeherak ditu epealdian: 2020an 33 milioi euro igotzen da, 2021ean 202 milioi euro igotzen da (epealdiko igoera handiena) eta 2022an 25 milioi euro igotzen da. 2023an 75 milioi euro jaisten da (epealdiko jaitsiera bakarra).


Las variaciones anuales producidas en el periodo (gráfico 8.9.) presentan distinto comportamiento:

- Los pasivos financieros, en su mayoría "Empréstitos y Préstamos recibidos" en el ejercicio 2020 experimentan una disminución de 4 millones de euros. En 2021 aumentan en 116 millones de euros, para aumentar en el ejercicio 2022 en 55 millones de euros. En 2023 disminuyen en 225 millones de euros


- Los activos financieros: alcanzan el mínimo del periodo en 2023. Aumentan en 2020, 2021 y 2022.

- En consecuencia, la posición financiera neta presenta altibajos en el período: en 2020 aumenta 33 millones de euros, en 2021 aumenta 202 millones de euros (mayor aumento del período) y en 2022 aumenta 25 millones de euros. En 2023 disminuye 75 millones de euros (única disminución del período).

GRÁFICO 8.9. GRAFIKOA
GFAren Egoera Finantzario Garbiaren eta bere osagaien bariazioaren bilakaera
Evolución de la variación de la Posición Financiera Neta de la DFG y de sus componentes



EGOERA FINANTZARIO GARBIAREN BARIAZIOA
VARIACIÓN DE LA POSICIÓN FINANCIERA NETA



8.1.3. SARRERA ETA GASTU PROPIO EZ-FINANTZARIOEN EGITURA

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egitura aztertzean bi eragiketa mota bereizten ditugu, bai sarreretan eta bai gastuetan:

- Eragiketa arruntak.
- Kapital eragiketak.

Era berean, sarrera arrunt propioen barruan honako hauek bereizten dira:

- Jasotako transferentzia arruntak (4. kapitulua).
- Ondare sarrerak (5. kapitulua).
- Zerga sarrerak (1etik 3ra arteko kapituluak), eta hauen barruan:
  - Zerga itundu propioak, hau da, zerga itunduak ken erakundeekiko konpromisoen zenbatekoa.
  - Gainerako zerga sarrerak.

Gastu arrunt propioen artean ondoko hauek ditugu:

- Finantza gastuak (3. kapitulua).
- Kudeaketa gastuak, honela osatuak:
  - Langileria gastuak (1. kapitulua).
  - Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa (2. kapitulua).
  - Transferentzia arrunt propioak, hau da, transferentzia arruntak (4. kapitulua) ken erakundeekiko konpromisoen zenbatekoa.

Epealdiko **sarrera arrunt propioak** honela banatu dira:

- Portzentajerik handiena zerga itundu propioek metatu dute: %88,4 eta %92,5 bitartean.
- Transferentzia arruntak %6,0 eta %8,0 inguru dira.
- Itundu gabeko beste zergak sarreren %1,4 eta %2,8 bitartean dabiltza.
- Ondare sarrerak dira garrantzi gutxien dutenak: %0,05 eta %0,85 bitartean.

2020 eta 2023 bitartean sarrera arrunt propioak %34,4 handitu dira. Hazkunderik handiena 2021. urtean (+%23,1) ageri da, bere atzean 2022ko hazkundea dator, +%5,4ko tasarekin. 2023an sarrera arrunt propioak %3,6 gora egiten dute. 2023ko sarrera horien osagaiek joera desberdina

8.1.3. ESTRUCTURA DE LOS INGRESOS Y GASTOS PROPIOS NO FINANCIEROS

Al analizar la estructura del presupuesto propio no financiero distinguimos, tanto para ingresos como para gastos, entre:

- Las operaciones corrientes.
- Las operaciones de capital.

Dentro de los ingresos corrientes propios diferenciamos entre:

- Transferencias corrientes recibidas (capítulo 4).
- Ingresos patrimoniales (capítulo 5).
- Ingresos tributarios (capítulos 1 a 3) y dentro de estos:
  - Los tributos concertados propios: los tributos concertados menos el importe de los compromisos institucionales.
  - El resto de ingresos tributarios.

Los gastos corrientes propios se dividen entre:

- Los gastos financieros (capítulo 3).
- Los gastos de gestión, formados por:
  - Gastos de personal (capítulo 1).
  - Compra de bienes corrientes y servicios (capítulo 2).
  - Transferencias corrientes propias: transferencias corrientes (capítulo 4) menos la cuantía de compromisos institucionales.

Los **ingresos corrientes propios** del periodo se distribuyen de la siguiente forma:

- Los tributos concertados propios son el concepto con mayor concentración: entre el 88,4% y el 92,5%.
- Las transferencias corrientes suponen entre el 6,0% y el 8,0%.
- Los otros tributos no concertados varían entre el 1,4% y el 2,8% de los ingresos.
- Los ingresos patrimoniales son el concepto con menor representatividad: entre el 0,05% y el 0,85%.

Entre 2020 y 2023 los ingresos corrientes propios han aumentado un 34,4%. El mayor incremento corresponde a 2021 (+23,1%). En 2023 han aumentado el 3,6%. En 2022 los ingresos corrientes propios aumentan el 5,4%. Los conceptos que forman estos ingresos de 2023


daukate guztiarekin konparatuta:


- Zerga itundu propioak %0,2 igo dira
- Itundu gabeko beste zergak %93,2 igo dira.
- Transferentzia arruntak %17,9 igo dira eta ondare sarrerak %562,7 igo.

muestran distinto comportamiento que el total:

- Los tributos concertados propios crecen el 0,2%.
- Los otros tributos no concertados aumentan el 93,2%.
- Las transferencias corrientes crecen el 17,9% y los ingresos patrimoniales aumentan el 562,7%.

GRÁFICO 8.10. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu arrunt propioen egitura
Estructura de los ingresos y gastos corrientes propios





Gastu arrunt propioetan, ordea, kontzeptu bakoitzaren partaidetza banatuago dago:

- Gastu finantzarioek garrantzia gehitzen dute epealdian, eta 2020. urtean gastuen %0,3 izatetik %0,4 izatera pasatu dira 2023an.
- Transferentzia arrunt propioak epealdiko gastu arrunt propioen erdia baino gehiago dira: %62,4 eta %63,7 bitartean.
- Langileria gastuek %16,6 eta %17,6 bitartean metatzen dute.
- Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak 2020ko %19,3tik 2021eko eta 2022ko %19,8ra bitartean mugitzen dira.

En los **gastos corrientes propios**, en cambio, la participación de cada concepto se encuentra más repartida:

- Los gastos financieros suben su importancia en el periodo: del 0,3% de los gastos en 2020 al 0,4% en 2023.
- Las transferencias corrientes propias suponen más de la mitad de los gastos corrientes propios en el periodo: entre el 62,4% y el 63,7%.
- Los gastos de personal concentran entre el 16,6% y el 17,6%.
- Las compras de bienes corrientes y de servicios varían entre el 19,3% de 2020 y el 19,8% de 2021 y 2022.


Aztertutako lau urteetan gastuek %19,7ko igoera metatua dute:

- 2021ean hazkundea dute (+%3,7 eta tasa positibo handiena ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak kapituluak izan du (+%6,3).
- 2022an hazkundea dute (+%7,2 eta tasa positibo handiena transferentzia arruntak kapituluak izan du (+%7,7).
- 2023an hazkundea dute (+%7,6 eta zenbateko positibo handiena transferentzia arruntak kapituluak izan du (+%21,4 eta 92 milioi).

Los gastos en los cuatro ejercicios del periodo recogido muestran un aumento acumulado del 19,7%:

- En 2021 aumenta (+3,7%). Las compras de bienes corrientes son el capítulo de mayor aumento (+6,3%).
- En 2022 aumenta (+7,2%). Las transferencias corrientes son el capítulo de mayor aumento (+7,7%).
- En 2023 aumenta (+7,6%). Las transferencias corrientes son el capítulo de mayor aumento en importe (+21,4% y 92 millones).

GRÁFICO 8.11. GRAFIKOA
Sarrera eta gastu arrunt propioen eta aurrezkiaren bilakaera
Evolución de los ingresos y gastos corrientes propios y del ahorro



Sarrera arrunt propioei gastuak kentzen bazaizkie ekitaldiko **aurrezkia** lortzen da. 8.11 grafikoan ikus daitekeenez, aurrezkiak gorako joera izan du 2022. urte arte, eta 2023an jaitsiera txiki bat izan du:

- 2021. urtean 260 milioira igo da.
- 2022. urtean 261 milioira igo da.
- 2023. urtean 240 milioira jaitsi da.

Bestalde, aurrezkia sarrera arrunt propioekin erlazionatuz gero, agerian jartzen da epealdian (2020-2023) egoera asko hobetzen dela 2021ean eta, 2022an eta 2023an mantentzen da. Zehazki

Si a los ingresos corrientes propios se le restan los gastos se obtiene el **ahorro** del ejercicio. Como se puede apreciar en el gráfico 8.11., el ahorro presenta línea ascendente hasta 2022, para bajar un poquito en 2023.

- En 2021 sube hasta los 260 millones.
- En 2022 sube hasta los 261 millones
- En 2023 baja hasta los 240 millones.

Por otro lado, si relacionamos el ahorro con los ingresos corrientes propios, en el periodo 2020-2023 se da una importante mejoría en 2021 y se mantiene en 2022 y 2023. Concretamente de

esanda, 2020an %13,2 izatetik 2021ean %26,8 izateraino igo da (ekitaldiko portzentaje handiena). 2022an %25,5a da eta 2023an %22,7a.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egituraren beste zatia, **kapital eragiketak** alegia, sarrera eta gastuen 6. eta 7. kapituluek osatzen dute. Analisia egiterakoan, honela taldekatu ditugu:

- Inbertsio garbia, hau da, egindako inbertsioen eta inbertsioak besterentzearen arteko diferentzia.
- Ordaindutako kapital transferentziak.
- Jasotako kapital transferentziak.

Inbertsio garbia %77,1 igo da epealdian, eta 2020an 83 milioi eurokoa izatetik 148 milioi eurokoa izatera pasatu da 2023an. Epealdian igoera gertatu da 2021ean (+%44,4, epealdiko igoera handiena). 2023an %37,1 igotzen da eta 2022an %10,5 jaisten da.

Ordaindutako kapital transferentziak, beren aldetik, %97,9 igo dira epealdian. Zenbatekoen bariazioak handiak dira: 43 milioi eurotik 2020an 85 milioi eurora igaro da 2023an. Epealdian igoerak gertatu dira 2021ean (+%35,9), 2022an (+%24,4) eta 2023an (+%17,1) .

Aldundiko inbertsioaren kanpoko finantzazioa, hau da, **jasotako kapital transferentziak**, %378,5 igo dira: 7 milioi eurotik 2020an 34 milioi eurora pasatu da 2023an. Ekitaldi guztietan, 2022. ekitaldia izan ezik, igoera gertatu da. Sarrera propio ez-finantzarioen aurrean duen pisua 2023ko %3,1etik 2020ko %0,9ra bitartean dabil.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren emaitza kalkulatzeko, hau da, **ekitaldiko superabit edo defizita** ezagutzeko, bi zatiak elkartu behar ditugu (aurrekontu arrunta eta kapital eragiketak) eta sarrerak eta gastuak modu honetara bereizi:

- Aurrezkiari (aurrekontu arruntaren saldoari) jasotako transferentziak gehituz.
- Inbertsio garbiak eta ordaindutako kapital transferentziak batuz.

Bi magnitude horien arteko aldeak ekitaldiko superabit edo defizita ematen digu, 8.12 grafikoan ikus daitekeena.

suponer el 13,2% en 2020, ha aumentado hasta el 26,8% en 2021 (porcentaje máximo del período). En 2022 supone el 25,5% y en 2023 el 22,7%.

La otra parte de la estructura del presupuesto propio no financiero, **las operaciones de capital**, está compuesta por los capítulos 6 y 7 de ingresos y gastos. Para realizar el análisis, los agrupamos de la siguiente manera:

- La inversión neta: diferencia entre las inversiones realizadas y la enajenación de inversiones.
- Las transferencias de capital pagadas.
- Las transferencias de capital recibidas.

La **inversión neta** ha aumentado a lo largo del periodo un 77,1%, y de 83 millones de euros en 2020 se ha situado en 148 millones en 2023. En los años recogidos se ha producido aumento en 2021 (44,4%, máximo del periodo). En 2023 aumenta el 37,1% y en 2022 disminuye el 10,5%.

Por su parte, las **transferencias de capital pagadas** han aumentado un 97,9% en el periodo. Las variaciones cuantitativas producidas pasan a ser significativas, ya que han pasado de 43 millones de euros en 2020 a 85 millones en 2023. En los años recogidos se ha producido aumentos en 2021 (+35,9%), 2022 (+24,4) y 2023 (+17,1%).


La financiación externa de la inversión foral, las **transferencias de capital recibidas**, han aumentado en un 378,5%: de 7 millones de euros en 2020 a 34 millones en 2023. En todos los ejercicios, excepto el ejercicio 2022, se ha producido aumento. Su peso frente a los ingresos propios no financieros varía entre el 3,1% de 2023, y el 0,9% de 2020.

Para calcular el resultado del presupuesto propio no financiero, es decir, **el superávit o déficit del ejercicio**, hemos de agrupar ambas partes (el presupuesto corriente y las operaciones de capital) diferenciando los ingresos y los gastos de la siguiente manera:

- Agregamos al ahorro (saldo del presupuesto corriente) las transferencias de capital recibidas.
- Sumamos las inversiones netas y las transferencias de capital pagadas.

La diferencia entre ambas magnitudes nos da como resultado el superávit o déficit del ejercicio, recogido en el gráfico 8.12.

GRÁFICO 8.12. GRAFIKOA
Aurrekontu propio ez- finantzarioaren emaitzaren bilakaera
Evolución del resultado del presupuesto propio no financiero



Saldo honek, kapitulu honetako lehen apartatuan jada aztertu denak, superabita erakusten du ekitaldiko urte guztietan, 2020an izan ezik (defizita erakusten du). Lau ekitaldi hauetan:

- Aurrezkia %131,5 igo da, baina jasotako kapital transferentziak %378,5 igotzen direnez, batera hartuta, %147,1 igo dira.

- Inbertsioak eta ordaindutako kapital transferentziak igo egin dira: +%84,2.

Aurrekontu propio ez-finantzarioaren egitura aztertzerakoan interesgarria gertatzen da 8.13 grafikoan ageri diren ondorengo ratioak nabarmentzea:

- Aurrezkia sarrera arrunt propioekin erlazionatzen duena.
- Inbertsio garbia kudeaketa propioko gastu arruntekin erlazionatzen duena.
- Aldundiaren baliabide propioekin finantzatutako inbertsioak jasotzen dituena. Hau da, bi hauek erlazionatzen dituena:

  - Kanpoko finantzaziorik gabeko inbertsioak (inbertsio garbiak – jasotako kapital transferentziak).
  - Kudeaketa propioko gastu arruntak.

Este saldo, ya analizado en el primer apartado del capítulo, muestra superávit en todos los ejercicios del período, menos en 2020, que muestra déficit. En estos cuatro ejercicios:

- El ahorro ha aumentado un 131,5%, tasa corregida por el aumento del 378,5% de las transferencias de capital recibidas. En conjunto han aumentado un 147,1%.


- Las inversiones y las transferencias de capital pagadas han aumentado: +84,2%.

A la hora de analizar la **estructura del presupuesto propio no financiero** resulta interesante resaltar los siguientes ratios recogidos en el gráfico 8.13:

- El que relaciona el ahorro con los ingresos corrientes propios.
- El que relaciona la inversión neta con los gastos corrientes de gestión propia.
- El que recoge la parte de las inversiones financiada con los recursos propios de la diputación. Es decir, la relación entre:

  - Las inversiones sin financiación externa (inversiones netas – transferencias de capital recibidas).
  - Los gastos corrientes de gestión propia.

GRÁFICO 8.13. GRAFIKOA
Kudeaketa propioko gastuaren egituraren ratio nagusiak
Principales ratios de la estructura del gasto propio de gestión



Aurrezkiak sarrera arrunt propioetan duen partaidetza aztertzean datu hauek geratzen dira agerian epealdian zehar:

- 13,7 puntu portzentualeko bariazio positiboa egon da 2021. urtean, 1,3 puntu portzentual negatiboa 2022. urtean eta 2,9 puntu portzentual negatiboa azken urtean: %25,5 2022an eta %22,7 2023an. +9,5 puntuko bariazioa 2020-2023 epealdian.

Inbertsio garbiak eta **kudeaketa propioko gastu arruntak** erlazionatzen dituen **ratioak** baditu aurrekoarekiko aldeak:

- Tartea txikitu egiten da: +5,9 puntu portzentualekoa da, 2020ko %12,2tik 2023ko %18,1era pasatzen delako.
- Joera positiboa epealdian: 2021ean 4,8 puntu irabazi, 2022an 2,8 puntu galtzen ditu eta 2023an 3,9 puntu irabazten ditu.

Azken **ratioak** **inbertsio propioa** eta **kudeaketa propioko gastu arrunta** erlazionatzen ditu. Aurreko inbertsio garbiari jasotako kapital transferentziak kentzean, kanpoko finantzazioaren bilakaera aldakorraren eragina ezabatzea lortzen da. Kasu honetan, portzentajeak finkatzen dira:

Al analizar el **ahorro en términos de participación de ingresos corrientes propios**, ya comentado anteriormente, se aprecia que en el periodo presenta:

- Una variación de 13,7 puntos porcentuales positivos en 2021, 1,3 puntos porcentuales negativos en 2022 y 2,9 puntos porcentuales negativos en el último año: desde el 25,5% de 2022 al 22,7% de 2023. Variación de +9,5 puntos en el período 2020-2023.

El **ratio** que relaciona las **inversiones netas** con los **gastos corrientes de gestión propia** presenta diferencias con el anterior:

- Menor amplitud de intervalo: +5,9 puntos porcentuales desde el 12,2% del 2020 al 18,1% de 2023.
- Tendencia positiva en el período: aumenta en 4,8 puntos en 2021, disminuye en 2,8 puntos en 2022 y aumenta en 3,9 puntos el último año.

En el último **ratio** se relaciona la **inversión propia** con el **gasto corriente de gestión propia**. Al restar a la inversión neta anterior las transferencias de capital recibidas, se consigue eliminar el efecto de la evolución errática de esta financiación externa. Los porcentajes se estabilizan:

- Tartearen zabalera txikiagoa da: +2,8 puntu portzentual, 2020ko %11,2tik 2023ko %14,0ra.
- Gorabeherak txikitzen dira: 2021ean 2,8 puntu igo da, eta 2022an 1,9 puntu jaitsi da. Azken ekitaldian 1,9 puntu igo da.

- Jaitsierako eta igoerako joera. Azken ekitaldian urteko inbertsio garbien %14,0 baliabide propioekin finantzatu da.

Beraz, azken bi ratioak konparatzen badira (inbertsio garbia eta baliabide propioekin finantzatutako inbertsioa kudeaketa propioko gastu arruntarekin erlazionatzen dituztenak), ondorio hauxe atera dezakegu: gastuaren egiturari dagokionez, inbertsioak geroz eta gehiago igotzen dira. Hori dela medio, 2020an etekinak behera egiten du eta 16 milioi euroko defizita eman da. 2021ean etekinak gora egiten du eta 102 milioi euroko superabita eman da. 2022an etekinak gora egiten du eta 96 milioi euroko superabita eman da. 2023an 40 milioi euroko superabita eman da.

Laburbilduz, 2023. urtean sarrera arrunt propioak gastu arrunt propioak baino gutxiago igo dira eta horrek aurrezkiaren ratioaren jaitsiera ekarri du (-%8,1). Gainera, urte horretan eman den inbertsioen igoerak (40 milioi euro), ekarri du aurreko ekitaldiko superabita 56 milioi eurotan murriztea, eta 96 milioiko superabita izatetik 40 milioiko superabita izatera pasatu da.

- La amplitud del intervalo es menor: +2,8 puntos porcentuales desde el 11,2% de 2020 al 14,0% de 2023.
- Las fluctuaciones disminuyen: aumenta en 2,8 puntos en 2021 y disminuye en 1,9 puntos en 2022. En el último ejercicio aumenta en 1,9 puntos.
- Tendencia de subida y bajada. En el último ejercicio son financiadas con recursos propios el 14,0% de las inversiones netas realizadas durante el año.

En consecuencia, si se comparan los dos últimos ratios (los que relacionan la inversión neta y la inversión financiada con recursos propios, con el gasto corriente de gestión propia) se desprende que la estructura del gasto es de aumento cada vez mayor de las inversiones. Este comportamiento ha producido en 2020 un empeoramiento del resultado y se produce un déficit de 16 millones de euros. En 2021 mejora el resultado y se produce un superávit de 102 millones de euros En 2022 mejora el resultado y se produce un superávit de 96 millones de euros. En 2023 el superávit es de 40 millones de euros.

En resumen, en 2023 los ingresos corrientes propios han aumentado en menor medida que los gastos corrientes propios, lo que ha producido que el ratio del ahorro disminuya un 8,1%. Así mismo, el aumento de las inversiones (40 millones de euros) ha ocasionado que el superávit del ejercicio anterior disminuya en 56 millones de euros: disminuye de 96 millones de superávit a 40 millones de euros de superávit.

8.1.4. KUDEAKETA GASTUAK

Kudeaketa propioko gastu ez-finantzarioak honako gastuok biltzen ditu:

- Langileria gastuak.
- Ondasun eta zerbitzuen erosketa arruntak.
- Transferentzia arruntak (erakundeekiko konpromisoak sartu gabe).
- Inbertsio errealak.
- Kapital transferentziak.

Aurrekontuko sailkapen funtzionala kontuan hartuz aztertu daiteke gastu ez-finantzarioa:

- Zor publikoa.
- Oinarrizko zerbitzu publikoak.
- Babes eta sustapen sozialeko jarduketak.

8.1.4. GASTOS DE GESTIÓN

El gasto no financiero de gestión propia recoge los siguientes gastos:

- Los de personal.
- Compras corrientes de bienes y servicios.
- Transferencias corrientes (excluidos los compromisos institucionales).
- Inversiones reales.
- Transferencias de capital.

El gasto no financiero se puede analizar en base a la clasificación funcional recogida en el presupuesto:

- Deuda pública.
- Servicios públicos básicos.
- Actuaciones de protección y promoción social.

- Lehentasunezko ondasun piblikoen ekoizpena.
- Jarduketa ekonomikoak.
- Jarduketa orokorrak.

2023an, kudeaketa propioko gastuaren helburu nagusia babes eta sustapen sozialeko jarduketak izan dira, eta horretarako gastuaren %46,7 bideratu da. Diru gehien metatu duen bigarren funtzioa jarduketa ekonomikoak dira (%26,9).

8.14 grafikoan ikus daitekeenez, kudeaketa propioko gastuaren gainerako %26,4a honela banatu da:

- Jarduketa orokorrak: %13,3.
- Oinarrizko zerbitzu publikoak: %7,2.
- Lehentasunezko ondasun piblikoen ekoizpena: %5,7.

Bestalde, kudeaketa propioko gastua 240 milioi euro igo da epealdian: +%29,7. Igoera handiena 2023an gertatu da (+%11,6). 2021ean %10,1 igo da eta 2022an %5,6.

- Producción de bienes públicos de carácter preferente.
- Actuaciones de carácter económico.
- Actuaciones de carácter general.

En 2023, el destino principal del gasto de gestión propia son las actuaciones de protección y promoción social, función a la que se destina el 46,7% del gasto. La siguiente función que más dinero concentra son las actuaciones de carácter económico con el 26,9%.

Como se puede apreciar en el gráfico 8.14., el restante 26,4% del gasto de gestión propia se encuentra repartido entre:

- Actuaciones de carácter general: 13,3%.
- Servicios públicos básicos: 7,2%.
- Producción de bienes públicos de carácter preferente: 5,7%.

Por otro lado, el gasto de gestión propia a lo largo del periodo ha aumentado en 240 millones de euros: un +29,7%. Este aumento se ha producido en 2021 (+10,1%), en 2022 (+5,6%) y en 2023 (+11,6%, mayor incremento).

GRÁFICO 8.14. GRAFIKOA
Kudeaketa propioko gastuaren banaketa funtzionala
Distribución funcional del gasto propio de gestión





GRÁFICO 8.15. GRAFIKOA
Kudeaketa propioko gastuaren bilakaera funtzionala
Evolución funcional del gasto propio de gestión



8.2. ZERGA ITUNDUAK ETA ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOAK

8.2.0 SARRERA

8.1 apartatuan Foru Aldundiaren aurrekontu propioa aztertu da, eta ikusi dugu 2023. urtean 1.052 milioi euroko gastu propio ez-finantzarioa izan duela. GFAren gastu ez-finantzario guztiak, ordea, 6.154,9 milioi eurokoak izan dira eta horietatik 5.103,1 milioi erakundeekiko konpromisoei dagozkie, hau da, beste erakunde publikoekin dauden lege obligazioak betetzeko erabili dira (Estatuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako udalen gastuak finantzatzeko). Zifra horietatik ondorioztatu daitekeenez, foru administrazioa baliabideak banatzen dituen administrazioa da beste ezeren gainetik.

8.2. TRIBUTOS CONCERTADOS Y COMPROMISOS INSTITUCIONALES

8.2.0 INTRODUCCIÓN

En el apartado 8.1 se ha analizado el presupuesto propio de la Diputación Foral cuyo gasto propio no financiero asciende a 1.052 millones de euros en 2023. Sin embargo, los gastos no financieros totales de la DFG son 6.154,9 millones de los que 5.103,1 corresponden a compromisos institucionales derivados de obligaciones legales para financiar los gastos de otras instituciones públicas como son el Estado, el Gobierno Vasco y los Ayuntamientos de Gipuzkoa. Como puede colegirse de las cifras anteriores, la administración foral es ante todo una administración distribuidora de recursos.

Bestalde, aurreko apartatuan aipatu dugu GFAri egotzitako zerga itunduak, hau da, foru entearen gastu propioak finantzatzeko erabilitakoak, 941,3 milioi eurokoak izan direla, zerga itunduengatik 2023an bildutakoa 5.960,5 milioi eurokoa izan denean. Jakina denez, lehen zifra hori (941,3 milioi) bi kontzeptu hauen arteko diferentziaren emaitza da:

- Zerga itunduak: 5.960,5 milioi, ken
- Erakundeekiko konpromisoak: 5.019,2 milioi euro:

Dena den, esan behar da GFAri zerga itunduengatik egotzitako zifrak aurkeztean bazterrean utzi dela GFArentzat oso garrantzitsua den jarduera bat, zerga itunduen bilketa alegia.

8.2 apartatu honetan hiru gai aztertuko ditugu:

- Zergabilketa jarduera.
- Baliabideak banatzeko eginkizuna.
- GFAri egotzitako zerga itunduen zehaztapena.

Foru Ogasunaren txosten honetako 7. kapituluan informazio zehatza eman dugu jada zerga itunduen bilketa lanari dagokionez. Nolanahi ere, apartatu honetan esparru zabalagoan kokatuko ditugu emaitzak, EAEko beste aldundietan izandako bilketarekin konparatuz eta sarrera publikoak Gipuzkoako ekonomiarekin erlazionatuz.

Erakundeekiko konpromisoak ez ditu GFAk erabakitzen.

- Kupoa Estatuaren Kupo Legean jasotzen diren irizpideen arabera finkatzen da.
- Ekarpenak Eusko Legebiltzarrak onartzen duen Ekarpenen Legean finkatzen dira.

- Udalak finantzatzeko foru fondoa Batzar Nagusiek onartzen duten foru arauaren bidez finkatzen da, baina Ekarpenen Legean jasotako gomendioei jarraikiz.

Por otro lado, el apartado anterior se ha referido a los 941,3 millones de tributos concertados imputados a la DFG que se destinan a financiar los gastos propios del Ente Foral, cuando la recaudación por tributos concertados asciende a 5.960,5 millones en el ejercicio 2023. Como se sabe, la primera cifra (941,3 millones) se obtiene por diferencia entre:

- Los tributos concertados: 5.960,5 millones
- Los compromisos institucionales: 5.019,2 millones de euros:

Pero la presentación de las cifras de tributos concertados imputadas a la DFG obvia una actividad importante para la DFG como es la actividad recaudadora de los tributos concertados.

En este apartado 8.2 se van a tratar tres cuestiones:

- La actividad recaudatoria.
- La función distribuidora de recursos.
- La determinación de los tributos concertados imputados a la DFG.

La actividad recaudatoria de tributos concertados ya se ha mostrado de forma detallada en el capítulo 7 de este informe de la hacienda foral, pero en este apartado se sitúan los resultados en un marco más amplio: se compara con la recaudación de las otras diputaciones de la CAPV y se relacionan los ingresos públicos con la economía del Territorio.

Los compromisos institucionales vienen determinados de forma exógena a la DFG:

- El cupo se determina a partir de los criterios que se recogen en la Ley del Cupo del Estado.
- Las aportaciones vienen determinadas en la correspondiente Ley de Aportaciones aprobada por el Parlamento Vasco.
- El fondo foral de financiación municipal se determina mediante Norma Foral que, si bien aprueban las Juntas Generales del Territorio, sigue las recomendaciones existentes en la Ley de Aportaciones.

Zerga itunduen kudeaketa foru organoen erantzukizuna bada ere, Aldundiak maila instituzional desberdinen artean banatu behar ditu bere baliabideak aurrez ezartzen diren irizpideei jarraiki. Horrek esan nahi du bere sarreren kudeaketa eta kudeaketa gastuetarako dituen baliabideak disoziatu behar direla. Bada, disoziazio horren ondorioa ondoko hauen eboluzio desberdina da:

- Zerga itunduena.
- GFAri egotzitako zerga itunduena.

Apartatu honetan agerian jarri nahi da zentzuk diren alde hori eragiten duten faktore nagusiak, hau da, erakundeekiko konpromisoen zenbatekoa erabakitzen dutenak.

Azalpena egiteko honako faktoreak aukeratu dira:

- Estatuko autonomia erkidegoei laga gabeko zerga itunduen bilakaera, zerga horiek kupoaren eguneratze indizea konfiguratzen dutelako.
- EAEko zerga itunduen bilakaera, lehen esandako indizearekin batera Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenak finkatzeko erabiltzen dena.
- Ekarpenaren indize horizontala, kupoa eta ekarpenak lurraldeen artean banatzen dituena.
- Kupoaren desplazamendu efektua, haren likidazioa hurrengo urtean egiteagatik gertatzen dena.
- Udalak finantzatzeko foru fondoaren bilakaera.

8.2.1. ZERGA ITUNDUAK. KONPARAZIOA EAE-REKIN

Hemen aztertzen den zergabilketa Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zerga itunduen bilketa likidoari dagokio. Zerga horiek banaketari lotuta daude eta honela sailkatzen dira:

- Zuzeneko zergak.
- Zeharkako zergak.
- Tasak eta bestelako sarrerak.
- Doikuntzen bidez bildutakoa.

Los órganos forales son responsables de la gestión de los tributos concertados; sin embargo, deben repartir los recursos entre los diferentes niveles institucionales siguiendo criterios predeterminados. De aquí nace una disociación entre la gestión de sus ingresos y los recursos disponibles para sus gastos de gestión. Disociación que se traduce en una evolución dispar de:

- Los tributos concertados.
- Los tributos concertados imputados a la DFG.

En este apartado se pretende aislar aquellos factores más relevantes que explican esta disparidad y que no son otros que los factores que determinan la cuantía de los compromisos institucionales.

Los factores explicativos seleccionados son:

- La evolución de los tributos concertados del Estado no cedidos a las CCAA que configuran el índice de actualización del cupo.
- La evolución de los tributos concertados de la CAPV que, junto con el anterior, determinan las aportaciones al Gobierno Vasco.
- El índice horizontal de aportación que reparte el cupo y las aportaciones entre los territorios.
- El efecto desplazamiento del cupo que se produce por el hecho de que éste se liquide el año posterior al de referencia.
- La evolución del fondo foral de financiación municipal.

8.2.1. TRIBUTOS CONCERTADOS. COMPARACIÓN CON LA CAPV


La recaudación aquí analizada corresponde a la recaudación líquida de los tributos concertados afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas y que están sujetos a reparto. Estos tributos se clasifican entre:

- Impuestos directos.
- Impuestos indirectos.
- Tasas y otros ingresos.
- Recaudación vía ajuste.

Datuak hiru lurralde historikoek 2019tik 2023a bitartean egindako bilketatik hartu dira, eta horien batura EAEri dagokiona da.

Los datos provienen de la recaudación realizada desde 2019 a 2023 por los tres territorios históricos y el sumatorio de ellos es el correspondiente a la CAPV.

GRÁFICO 8.16. GRAFIKOA
Zerga itunduen bilketa BPGren aldean lurraldeen arabera
Recaudación de tributos concertados en relación con el PIB por territorios



2002ko ekonomia itunak, 28/2007 legeak aldatuak, apenas ekarri du aldaketarik hiru lurralde historikoetako bilketan. 8.16. grafikoan ikus daitekeenez, epealdian egindako zergabilketa lurralde bakoitzeko BPG nominalaren %18,8-%20,5 inguruan dabil. Zehazki esanda:

- Portzentajerik handiena Bizkaian ageri da: bere BPGren %19,6 eta %20,5 bitartekoa. Epealdiaren hasieran portzentajea %19,9koa da. 2020an %19,6ra jaisten da (epealdiko balio txikiena). 2021. ekitaldian %20,5era igotzen da, epealdiko tasa altuena. 2022. ekitaldian %20,4ra jaisten da. 2023. ekitaldian %20,0ra jaisten da.

- Gipuzkoako bilketa %18,8 eta %20,5 bitartean dago. Epealdiaren hasieran portzentajea %18,8koa da, epealdiko tasa baxuena. 2020. ekitaldian %19,3ra igotzen da eta 2021ean berriro gora egiten du, %20,5 (epealdiko balio handiena). 2022an behera egiten du, %19,7. 2023an gora egiten du, %19,8.

El concierto económico de 2002, modificado por la Ley 28/2007, apenas supone una variación en la recaudación de los territorios históricos. Como se puede apreciar en el gráfico 8.16., a lo largo del periodo la recaudación representa en torno al 18,8%-20,5% del PIB a precios corrientes de cada territorio. En concreto:

- Bizkaia es el territorio con mayor porcentaje: entre el 19,6% y el 20,5% de su PIB. Al inicio del periodo el porcentaje es del 19,9%. En 2020 baja al 19,6% (mínimo del período). En 2021 sube al 20,5% (máximo del período). En 2022 baja al 20,4%. En 2023 baja al 20,0%.

- Gipuzkoa presenta una recaudación entre el 18,8% y el 20,5%. Al inicio del periodo el porcentaje es del 18,8%, mínimo del periodo. En 2020 sube al 19,3% y en 2021 vuelve a subir al 20,5% (máximo del período). En 2022 baja al 19,7%. En 2023 sube al 19,8%.

- Arabak portzentaje berdintsuak ditu: bere BPGren %19,3 eta %20,4 bitartean. 2022. urtean portzentaje handiena du eta 2020. urtean portzentaje baxuenera iristen da.

- Araba muestra porcentajes similares: entre el 19,3% y el 20,4% de su PIB. Presenta el punto más alto en 2022 y en 2020 alcanza el punto más bajo.

Lurralde historiko bakoitzak EAEko bilketa osoan duen **partaidetzaren** datuak aztertzean Bizkaiak zergabilketan duen pisu handia nabarmentzen da, bildutako guztiaren erdia baino gehiago hari baitagokio urtero. Atzetik Gipuzkoa dator kopuru osoaren herenarekin, eta azken tokia Arabak hartzen du gainerako %16,0rekin.

Al analizar los datos sobre la **participación de cada territorio histórico** frente al total de la CAPV, se aprecia el importante peso recaudatorio de Bizkaia que en todos los años representa más de la mitad del total recaudado. Le sigue Gipuzkoa, que supone un tercio del total y, por último, Araba con el 16,0%.

Aztertutako bost urteetan ez dago ia batere aldaketarik:

En los cinco años recogidos apenas se aprecian pocas variaciones:

- Bizkaian bere pisu erlatiboa mantendu egiten da epealdian. 2021ean ekitaldiko pisu erlatibo txikiena du (%51,0). 2022an pisu erlatiboa %51,4a da, eta 2023an eta 2019an %51,7. 2020an pisu erlatibo hau %51,1 da.

- Bizkaia mantiene su peso relativo a lo largo del periodo En 2021 tiene el peso relativo más bajo del periodo (51,0%). En 2022 el peso relativo es del 51,4% y en 2023 y 2019 del 51,7%. En 2020 este peso relativo es del 51,1%

- Gipuzkoan ere bere pisu erlatiboa mantendu egiten da: 2021ean ekitaldiko pisu erlatibo altuena du (%33,5). 2019an %32,5 pisua du. 2020an pisu erlatiboa %33,2 izan zen. 2022ko eta 2023ko pisua %32,7 da.

- Gipuzkoa también mantiene su peso relativo: En 2021 tiene el peso relativo más alto del periodo (33,5%). En 2019 representa el 32,5%. El peso relativo en 2020 fue del 33,2%. En 2022 y en 2023 el peso asciende al 32,7%


- Araban: 2022an portzentajea %16,0 da, (epealdiko altuena). 2019. urtean bere pisu erlatiboa %15,8 da. 2020an behera egiten du, %15,7. 2021ean berriro behera egiten du, %15,6 (epealdiko tasa baxuena). 2023an epealdiko tasa baxuena ematen da berriro (%15,6).


- Araba: en 2022 el porcentaje es del 16,0% (máximo del periodo). En 2019 supone el 15,8%. En 2020 baja al 15,7% y en 2021 vuelve a bajar, 15,6% (mínimo del periodo). En 2023 se da nuevamente la tasa más baja del periodo (15,6%).

Epealdiko **bilketaren bilakaerari** dagokionez, bistakoa da Bizkaiak garrantzi handia duela zergabilketan eta bere bariazioak beste inorenak baino gehiago eragiten duela EAEko emaitza osoan. Azken honen bariazioa bide beretik dator, baina modu apalagoan. Horrela, zergabilketa osoak behera egiten du 2020. urtean, 2021ean igoera handi bat izateko, eta 2022an eta 2023an igoeran mantentzen da: 2020an %9,8 jaisten da. 2021ean %14,4 igotzen da, eta 2022an %7,3 gora egiten du. 2023an %6,3 egiten du gora.

Con respecto a la **evolución de la recaudación** en el periodo, es patente la importancia recaudatoria de Bizkaia, por lo que su variación es la que más afecta al comportamiento del total de la CAPV, que se mueve en el mismo sentido aunque de forma más suavizada. Así, la recaudación total baja en 2020, para tener un gran incremento en 2021 y mantenerse en positivo en 2022 y 2023: En 2020 baja el 9,8%. En 2021 sube el 14,4% y en 2022 sube el 7,3%. En 2023 sube el 6,3%.

GRÁFICO 8.17. GRAFIKOA
Zerga itunduen bilketaren bilakaera lurraldeen arabera
Evolución de la recaudación de tributos concertados por territorios





Lurraldeka aztertuta, aldeak ikusten dira horien artean:

- Bizkaiko zergabilketa 2022an %8,2 igo da. 2023an gora egiten du, %6,9 (hiru lurraldeen arteko igoera handiena). 2020an %10,9 jaitsi da (hiru lurraldeen arteko jaitsiera handiena). 2021ean %14,2 igo da.

- Gipuzkoak, 2022an %4,8ko igoera izan du. 2023an %6,5 egiten du gora. 2020an %7,8 jaitsi da, eta 2021ean %15,2 egin du gora (hiru lurraldeen arteko igoera handiena).

- Arabak, 2022an %9,9 gora egiten du (hiru lurraldeen arteko igoera handiena). 2023an %4,0 gora egiten du. 2020an %10,5% behera egiten du. 2021ean %13,4 egiten du gora.

Bi **zerga talde nagusiek** epealdian eman duten bilketari erreparatuz gero (ikus 8.18 eta 8.19 grafikoak) agerian jartzen da zeharkako zergek garrantzi handiagoa hartzen dutela zuzeneko zergen kaltetan, 2022 urte arte. 2023an zuzeneko zergak garrantzi handiagoa dute. Era berean, bietan gorakadak daudela ikusten da, bi zerga

Por territorios, existen diferencias entre ellos:

- La recaudación de tributos en Bizkaia en 2022 crece el 8,2%. Crece el 6,9% en 2023 (mayor aumento de las tres provincias). En 2020 decrece el 10,9% (mayor disminución de las tres provincias). En 2021 crece el 14,2%.

- Gipuzkoa, en 2022 tiene un incremento del 4,8%. Crece el 6,5% en 2023. En 2020 decrece el 7,8% y en 2021 aumenta el 15,2% (mayor aumento de las tres provincias).

- Araba, en 2022 crece el 9,9% (mayor aumento de las tres provincias). En 2023 aumenta el 4,0%. En 2020 decrece el 10,5%. En 2021 crece el 13,4%.

La recaudación de los dos **grupos principales de impuestos** a lo largo del periodo (gráficos 8.18. y 8.19.) pone de manifiesto la importancia mayor de los tributos indirectos frente a los directos hasta 2022. En 2023 tienen mayor importancia los tributos directos. Así mismo, muestra aumentos de ambos pero con una evolución distinta entre los

moten bilakaera desberdina bada ere.

Zeharkako zergak %11,1 gehitu dira epealdian, eta 2019ko 7.953 milioi eurotik 2023ko 8.834 milioi eurora pasa dira. Urteak aurrera joan ahala igoera eta jaitsiera joerak txandakatzen dira:


- 2020an %14,8 jaitsi da.
- 2021ean %20,1 igo da.
- 2022an %8,0 igo da.
- 2023an %0,6 igo da.

dos tipos de impuestos.

Los **impuestos indirectos** crecen un 11,1% en el periodo: de 7.953 millones de euros en 2019 a 8.834 millones en 2023. A lo largo de los años se alternan tendencias de subidas y bajadas:

- En 2020 disminuye un 14,8%.
- En 2021 aumenta un 20,1%.
- En 2022 aumenta un 8,0%.
- En 2023 aumenta un 0,6%.

GRÁFICO 8.18. GRAFIKOA
Zerga itundu nagusien bilketa
Recaudación de los principales tributos concertados



Zuzeneko zergak, %25,1 igo dira epealdian: hasierako 7.407 milioi eurotik 9.266 milioi eurora pasatu da 2023an. Epealdian hazkunde tasak hauexek izan dira:

- 2020an %4,1 jaitsi da.
- 2021ean %8,9 igo da.
- 2022an %7,4 igo da.
- 2023an %11,5 igo da.

Los **impuestos directos**, crecen en el periodo el 25,1%: de los 7.407 millones de euros iniciales a los 9.266 millones recaudados en 2023. En el periodo presenta las siguientes tasas de crecimiento:

- En 2020, decrece el 4,1%.
- En 2021, crece el 8,9%.
- En 2022, crece el 7,4%.
- En 2023, crece el 11,5%.

GRÁFICO 8.19. GRAFIKOA

Zerga itunduen bilketa osoaren bilakaera zerga kontzeptuen arabera

Evolución de la recaudación total de tributos concertados por conceptos impositivos





GRÁFICO 8.20. GRAFIKOA

Zeharkako zergen bilketaren bilakaera

Evolución de la recaudación de los impuestos indirectos



Zeharkako zergek 2019 urtean duten zuzeneko zergek baino pisu handiagoa 2020an aldatzen da, baina 2021ean eta 2022an leheneratu da.

El **mayor peso de la imposición indirecta** en detrimento de los impuestos directos del ejercicio 2019, se ve alterada en 2020, pero se restablece

2023an berriz zuzeneko zergek pisu handiagoa dute. Pisu handiago honen zergatia da 1997. urteaz geroztik zerga bereziak biltzen hasten direla, eta horiek zeharkako zergen barruan sartuta daudela. Horien barruan, bi sarrera bide erabiltzen dira bilketa egiteko: kudeaketa propioa eta doikuntzak.

Kudeaketa propioaren eta doikuntzen arteko banaketa aztertuz gero, lehenengoa bigarrenari nagusitzen zaiola ohartzen gara. Epealdiko bilakaerari dagokionez, alde esanguratsuak ageri dira:

- Kudeaketa propioak igoerako joera du: %2,6 2023an, %16,3 2021ean (epealdiko handiena) eta %2,6 2022an. 2020an %13,4 jaisten da.

- Doikuntzen bidez lortutako sarreretan gorabehera handiagoak ikusten dira: 2022an %27,8 egiten dute gora. 2020an %20,4 jaisten dira. 2023an %5,5 jaisten dira. 2021ean %36,8 igotzen dira.

en 2021 y 2022. **En 2023 la imposición directa vuelve a tener mayor peso**. Este mayor peso obedece a que, a partir de 1997, se inicia la recaudación de los tributos especiales incluidos en los impuestos indirectos. Dentro de ellos, la recaudación se realiza por dos vías de ingresos: gestión propia y ajustes.

Si analizamos la distribución entre gestión propia y vía ajustes, podemos apreciar la importancia de la primera frente a la segunda. En cuanto a la evolución en el periodo, existen diferencias significativas:

- La vía de gestión propia presenta una tendencia de subidas: aumenta el 2,6% en 2023, el 16,3% en 2021 (máximo del periodo) y el 2,6% en 2022. Baja el 13,4% en 2020 .

- Los ingresos vía ajustes muestran variaciones más acentuadas: en 2022 suben el 27,8%. En 2020 disminuyen el 20,4%. En 2023 bajan el 5,5%. En 2021 suben el 36,8%.

8.2.2. ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOAK

Erakundeekiko konpromisoek gastu masa handi bat eratzen dute, eta beren zenbatekoa aurrekontua egin aurretik finkatzen da lege edo foru arau bidez. Hauek dira:

- Estatuarentzako Kupoa.
- Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak.
- Udalak Finantzatzeko Foru Fondoa.

Kupoa Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztientzako kontribuzioa da, eta Ekonomia Itunean dator jasota. Bertan hauxe ezartzen da:

– Kalkulurako metodologia bat.

– Bost urtetarako lege baten beharra. Lege horrek epealdiko kupoa finkatzeko metodologia zehazteaz gainera, bosturtekoaren lehen urtean aplikatuko den kupoa ere onartu behar du. 2019-2023 epealdiari, abenduaren 28ko 11/2017 Legea (2017-2021) eta apirilaren 3ko 10/2023 Legea (2022-2026) aplikatu zaizkio.

Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak erabiltzen dira Ekonomia Itunaren kudeaketatik eratortzen diren sarrerak Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren eta foru ogasunen artean banatzeko, betiere beren titularitzapean dauden eskumen edota zerbitzuen arabera. Baliabideak banatzeko metodologia eta lurralde historiko bakoitzaren ekarpenak Herri Finantzen Euskal Kontseiluak erabaki behar ditu eta Eusko Legebiltzarrean lege moduan aurkeztu. Aztertutako epealdian, honako araudia egon da indarrean: abenduaren 28ko 11/2017 Legea, 2017-2021 bosturtekoarentzako, eta urriaren 13ko 4/2021 Legea, 2022-2026 bosturtekoarentzako.

Azkenik, **Udalak Finantzatzeko Foru Fondoak** lurralde historikoko udalek zerga itunduen kudeaketatik eratorritako emaitzan duten partaidetza adierazten du. Bere metodologia eta kudeaketa azaroaren 23ko 15/1994 Foru Arauan, Udalak Finantzatzeko Foru Fondoari buruzkoan, jasotzen dira, eta arau horrek indarrean darraio oraindik, nahiz eta kupoa eta ekarpenak aldatzearen ondorioz zenbait aldaketa ere izan dituen.

8.2.2.1. KUPOA

8.21 grafikoak agerian uzten du zein den 2023. urterako behin betiko Kupoa EAEri dagokionez.

8.2.2. COMPROMISOS INSTITUCIONALES

Los Compromisos Institucionales son una importante masa de gasto cuya cuantía está predeterminada por Ley o Norma Foral anterior al presupuesto. Se trata de:

- El Cupo al Estado.
- Las Aportaciones al Gobierno Vasco.
- El Fondo Foral de Financiación Municipal.

El **Cupo** representa la contribución a todas las cargas del Estado que no asume la Comunidad Autónoma, y viene recogido en el Concierto Económico, en el que se establece:

– Una metodología de cálculo.

– La necesidad de una ley quinquenal que: determine la metodología de señalamiento del cupo que ha de regir en el periodo, y apruebe el cupo del primer año del quinquenio. Dentro del periodo analizado 2019-2023, está en vigor la Ley 11/2017 (2017-2021), de 28 de diciembre, y la Ley 10/2023 (2022-2026), de 3 de abril.

Las **Aportaciones al Gobierno Vasco** son el medio para distribuir, entre la Hacienda General del País Vasco y las Haciendas Forales, los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico, en función de las competencias y/o servicios de los que sean titulares. La metodología de distribución de los recursos y la determinación de las aportaciones de cada Territorio Histórico debe aprobarse por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas y elevarse al Parlamento Vasco en forma de ley. La normativa vigente en el periodo recogido, es la Ley 11/2017, de 28 de diciembre, para el quinquenio 2017-2021, y la Ley 4/2021, de 13 de octubre, para el quinquenio 2022-2026 .

Por último, el **Fondo Foral de Financiación Municipal** representa la participación de los municipios del Territorio Histórico en el resultado de la gestión de los tributos concertados. Su metodología y gestión está recogida en la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal, normativa que sigue vigente y que ha sufrido diversas modificaciones a raíz de los cambios del cupo y las aportaciones.

8.2.2.1. CUPO

El Cupo definitivo para 2023, a nivel de la CAPV, viene recogido en el gráfico 8.21.. En él se muestra

Grafikoak 2022-2026 bosturtekoan indarrean dagoen likidazio eskema berria erakusten digu, eta ikus daiteke aurreko urteetakoa baino sinplifikatuagoa dela EAEk beste eskumen batzuk bereganatu dituelako, besteak beste, Ertzaintzarena eta INSALUD eta IMSERSOrena. Aurreko urteetan eskumen horiek bosturtekoaren eguneratze oinarrian sartzen ziren eta, gainera, urtero likidatzen ziren.

el nuevo esquema de liquidación vigente en el nuevo quinquenio (2022-2026). Este esquema es más simplificado que en los años anteriores dado que la CAPV ha asumido como competencias propias, entre otras, la Ertzaintza y el INSALUD e IMSERSO. Anteriormente estas competencias se incluían en la base de actualización del quinquenio y, además, se liquidaban todos los años.

Kupoaren legea indarrean dagoen urte bakoitzean ondorengo eragiketak egiten dira bosturtekoaren lehen urtean (2022an) kalkulatu den eguneratze oinarritik abiatuta:

- Oinarria aldatzen da bere osagaietan izandako aldaketak kontuan hartuta
- EAEk bere gain hartzen dituen eskumen berriak kentzen dira, betiere abiaburu-urtearen arabera baloratuak, hau da, eskumen horiek urte horretan zuten zenbatekoaren arabera. 2022an horien zifra 0 da. Emaitza berrikusitako eguneratze oinarria da (1.749 milioi).
- Haren gainean ekitaldiko eguneratze indizea aplikatzen da (0,9489785 indizea 2023an), eta horrela kupo eguneratua lortzen da: 1.659 milioi euro.
- Emaitza horri hauek kentzen zaizkio:
    - Menpekotasuna, Hezkuntza eta Sanitatearen finantzazioa: 454,2 milioi.
    - Zerga bereziak lagatzeagatik egin beharreko konpentsazio finantzarioak: 76,2 milioi euro.
- Azken eragiketa horren emaitza behin betiko kupoa da (1.129 milioi euro).


En cada año de vigencia de la ley del cupo, se parte de la base de actualización del quinquenio calculada el primer año del mismo (en 2022) y se realizan las siguientes operaciones:

- Se modifica la base en función a los cambios de los datos que la componen.
- Se restan las nuevas competencias que asuma la CAPV, valoradas siempre con respecto al año base, es decir, por el importe que dichas competencias tenían en dicho año. En 2022 son 0. El resultado es la base de actualización revisada (1.749 millones).
- Sobre ella se aplica el índice de actualización del ejercicio (en 2023 es 0,9489785) y se obtiene el cupo actualizado: 1.659 millones de euros.
- A este resultado se le restan:
    - La financiación de Dependencia, Sanidad y Educación: 454,2 millones.
    - Las cuantías por compensaciones financieras derivadas de la cesión de los impuestos especiales: 76,2 millones de euros.
- El resultado de esta última operación es el cupo definitivo (1.129 millones de euros).

Bosturtekoaren lege berriak eragin dituen aldaketak argi eta garbi ikusten dira **kupotik datozen kargak** aztertzen direnean (8.22. grafikoa). Epealdiaren barruan (2019-2023) karga horiek handiak dira kopuruz EAErekin itundutako zergei dagokienez. Aldiz, azken ekitaldietan kupoari dagozkion zenbatekoak baino ez dira jasotzen, gainerako kargak EAEren eskumen izatera igaro direlako.

Los cambios producidos con la nueva ley quinquenal se aprecian claramente al analizar las **cargas derivadas del cupo** (gráfico 8.22.). A lo largo del periodo recogido (2019-2023) estas cargas han supuesto una cuantía importante con respecto a los recursos concertados con la CAPV. Sin embargo, en los últimos ejercicios únicamente se recogen los importes correspondientes al cupo, dado que el resto de cargas han pasado a ser competencia de la CAPV.

GRÁFICO 8.21. GRAFIKOA
Epealdiko kupoa
Cupo del periodo



Mila eurokotan / En miles de euros

GRÁFICO 8.22. GRAFIKOA
Kupotik datozen kargak eta EAEren baliabideak
Cargas derivadas del cupo y recursos de la CAPV





GRÁFICO 8.23. GRAFIKOA
Kupoaren eta zergabilketaren indizeen bilakaera %-tan
Evolución porcentual de los índices del cupo y de recaudación



Eguneratze indizea Estatuak araubide komuneko autonomia erkidegoen esku uzten ez dituen zergen bilketa kontuan hartuz kalkulatzen da, hau da, alde bakarreko kalkulua da, Estatuko sarreretan bakarrik oinarritzen dena eta EAEren bilketak duen portaerarekin zerikusirik ez duena. Horrek arrisku bat sortzen du autonomia erkidegoarentzat. Izan ere:

El **índice de actualización** se calcula en base a la recaudación por parte del Estado de los tributos no cedibles a las Comunidades Autónomas de Régimen Común. Por ello, es un cálculo unilateral determinado únicamente por las cifras de ingresos del Estado y es independiente del comportamiento de la recaudación de la CAPV. En consecuencia se genera un riesgo para la comunidad autónoma de tal modo que:

- EAEko baliabideen bilakaera Estatuan baino txikiagoa bada, kupoak baliabide horietan duen proportzioa handiagoa izango da.

- Aldiz, baliabide gehiago sortzen badira, kupoaren proportzioa txikiagoa izango da.

Eguneratze indizeak eta EAEko zerga itunduen bilketak bilakaera desberdina dute beren bariazio tasetan (8.23 grafikoa). Hona hemen 2019-2023 epealdiko bilakaera:

- Kupoaren indizeak hazkunde erritmo ezberdina izan du: 2019an %0,4 gehitzen da. 2020an %21,6 egiten du behera eta 2021ean %35,1 igotzen da. 2022an (oinarri urtea) %14,8 jaisten da. 2023an %3,5 jaisten da.

- EAEko zergabilketa, kupoaren indizea baina gutxiago hazi da 2021ean (+%14,4). 2022an %7,3 hazi da, 2019an %3,3 hazi, 2023an %6,3 hazi eta 2020an %9,8 jaitsi (lau urte hauetan kupoaren indizea baina gehiago).

Portaera horren ondorioz:

- Kupoaren eguneratze indizearen bariazio tasa 2021ean, bilketarena baino handiagoa da, eta kupoak urte hauetan baliabide gutxiago izatea dakar.

- Bilketaren bariazio tasa 2019an, 2020an, 2022an eta 2023an nagusitzen da. Izan ere, kupoak karga gutxiago sortzen du baliabideekiko.

Bestalde, kupoaren metodologia dela-eta, urte bati dagokion likidazioa hurrengo urtean egiten da, eta horren ondorioz, diferentzia bat agertzen da behin betiko kupoaren eta ekitaldian benetan ordaindutakoaren artean. 8.24 grafikoan erakusten denez, aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioa eta urte horretarako kalkulatzen den behin-behineko kupoa urte berean ordaintzen dira.

- Si la evolución de los recursos en la CAPV es más reducida que en el Estado, la proporción que representa el cupo sobre esos recursos será mayor.

- En cambio, una mayor generación de recursos supondrá que el cupo represente una proporción inferior.

Las tasas de variación del índice de actualización y de la recaudación del conjunto de los tributos concertados de la CAPV (gráfico 8.23.) muestran a lo largo del periodo 2019-2023 una evolución diferente:

- El índice del cupo presenta un ritmo de crecimiento desigual: En 2019 aumenta el 0,4%, para disminuir en 2020 el 21,6% y aumentar en 2021 el 35,1%. En 2022 (año base) disminuye el 14,8%. En 2023 disminuye el 3,5%.

- La recaudación de la CAPV, crece menos que el índice del cupo en 2021 (+14,4%). En 2022 crece un 7,3% , en 2019 crece el 3,3%, en 2023 crece el 6,3% y en 2020 decrece el 9,8% (estos cuatro años por encima del índice del cupo).

Dado este comportamiento:

- La tasa de variación del índice de actualización del cupo es superior a la de recaudación en el año 2021; ejercicio en el que el cupo representa una mayor detracción de recursos.


- La tasa de variación de la recaudación es superior en los ejercicios 2019, 2020, 2022 y 2023. En estos años, el cupo representa una menor carga con respecto a los recursos.

Por otro lado, la metodologia del cupo provoca que la liquidación de un año se realice al año siguiente, por lo que existe una diferencia entre el cupo definitivo y el realmente pagado en el ejercicio. En un mismo año, según muestra el gráfico 8.24., se abona la liquidación del cupo del ejercicio anterior y el cupo provisional calculado para ese año.

GRÁFICO 8.24. GRAFIKOA

Ordaindutako kupoaren eta behin betiko kupoaren arteko aldea

Diferencia entre cupo pagado y cupo definitivo



Epealdian zehar, urte bateko behin betiko kupo likidoa ondoko hauen batura da:

- Ekitaldian ordaindutako behin-behineko kupoa.
- Hurrengo urtean egindako likidazioa.

A lo largo del periodo, el cupo líquido definitivo de un año es la suma de:

- El cupo provisional pagado en el ejercicio.
- La liquidación realizada al año siguiente.

Alabaina, kupoa ekitaldi desberdinetan ordaintzen denez, fluxu finantzarioak sortzen dira Estatuaren eta EAEren artean, eta nolako zeinua duten, banatu beharreko baliabideak gehiago edo gutxiago izan daitezke:

- Aldea positiboa izateak esan nahi du autonomia erkidegoak ekitaldian ordaindu duena urte horri dagokion behin betiko kupoa baino handiagoa dela. 2020. eta 2023. urteak.
- Aldiz, zeinua negatiboa izanez gero, Estatuak kobratzen duena kupoagatik jaso beharko lukeena baino txikiagoa da eta, beraz, autonomia erkidegoan banatu beharreko baliabideak gehitu egiten dira. 2019., 2021. eta 2022. urteak.

Pero, al ser abonado en ejercicios diferentes, se crean unos flujos financieros entre el Estado y la CAPV que, dependiendo del signo, suponen una mayor o menor disponibilidad de recursos a distribuir:

- Diferencia positiva: la comunidad autónoma ha pagado en el ejercicio mayor cuantía de la que supone el cupo definitivo de ese año. Años 2020 y 2023.
- Diferencia negativa: el Estado cobra menos de lo que tendría que percibir en concepto de cupo, de forma que aumentan los recursos a distribuir en la comunidad autónoma. Años 2019, 2021 y 2022.

Hortaz, zerga itunduen bilketatik abiatzen bagara, **baliabide erabilgarrien bariazioa** hauxe izango da: bilketaren gehikuntza gehi kupoaren diferentzia negatiboa edo bilketaren gehikuntza ken kupoaren diferentzia positiboa. Hau da, EAEren urte bateko baliabideek aurreko urtearekiko duten bariazioan

Por lo tanto, partiendo de la recaudación de los tributos concertados, la **variación de los recursos disponibles** será igual a: el incremento de la recaudación más la diferencia negativa del cupo ó menos la diferencia positiva del cupo. Es decir, la variación de los recursos de la CAPV de un año en

ondoko faktore hauek eragiten dute:

- Hauen arteko diferentzia:
  - Kupoak erabilitako eguneratze indizea, ken
  - Bilketaren benetako gehikuntza.
- Kupoa hurrengo ekitaldian likidatzeagatik Estatuaren eta EAEren artean sortzen den fluxua.

relación al año anterior se ve afectada por dos aspectos al mismo tiempo:

- La diferencia entre:
  - El índice de actualización utilizado por el cupo.
  - El incremento real de la recaudación.
- El flujo entre el Estado y la CAPV derivado de la liquidación del cupo en el ejercicio siguiente.

8.2.2.2. EUSKO JAURLARITZAREN ALDEKO EKARPENAK

Eusko Jaurlaritzaren aldeko ekarpenak kalkulatzeko, lehendabizi banatu beharreko baliabideen zenbatekoa zehazten da eta, gero, horietatik Eusko Jaurlaritzari zenbat dagokion finkatzen da.

Banatu beharreko baliabideen kalkulua (8.25. grafikoa) zerga itunduen urteko bilketatik abiatzen da, eta bilketa horri behar diren interesak gehituz ekitaldiko baliabideak lortzen dira. Emaitza horri kenkari jakin batzuk eginez, ekitaldian banatu beharreko baliabide guztiak lortzen dira.

Kenkari aplikagarriak bi taldetan bana daitezke:

- Kupoaren metodologiatik datozenak, hau da, ekitaldiko kupoa kalkulatzeko erabilitako kopuruak. 2002tik aurrera, kenkari horiek sinplifikatu egin dira, eta bosturtekoan honako hauek ditugu: ekitaldian ordaindutako kupoa (behin-behinekoa eta aurreko ekitaldiko likidazioa) eta Ertzaintza eta Miñoiak.
- Gainerako kenkariak ekarpenen legean jasota daude eta bereganatutako eskumen berrien finantzazioa biltzen dute.

2007ko ekitaldian eskumen berriak izan direnez, kontzeptu honen kenkaria 539,0 milioi eurokoa da 2023. urtean.

8.2.2.2. LAS APORTACIONES AL GOBIERNO VASCO

Para el cálculo de las aportaciones al Gobierno Vasco se obtiene previamente la cuantía de los recursos a distribuir y posteriormente la parte de éstos que corresponde al Gobierno Vasco.


El cálculo de los recursos a distribuir (gráfico 8.25.) parte de la recaudación de tributos concertados realizada en el año a la que se le añaden los intereses correspondientes y así obtener el total de los recursos del ejercicio. A este resultado se le restan unas deducciones determinadas y se obtiene el total de recursos a distribuir en el ejercicio.

Las **deducciones** aplicables se pueden clasificar en dos grupos:

- Las provenientes de la metodología del cupo que son las cuantías empleadas para el cálculo del cupo del ejercicio. A partir de 2002 estas deducciones se simplifican y durante el quinquenio son: el cupo pagado en el ejercicio (tanto el provisional como la liquidación del ejercicio anterior) y la Ertzaintza y Miñones.
- El resto de deducciones están contenidas en la ley de aportaciones y recogen la financiación de nuevas competencias asumidas.

En el ejercicio 2007 se adjudicaron nuevas competencias por lo que la deducción por este concepto en 2023 es de 539,0 millones de euros.

GRÁFICO **8.25. GRAFIKOA**
2023ko ekarpenak. Banatu beharreko baliabideak
Aportaciones 2023. Recursos a distribuir




Mila eurokotan / En miles de euros

Batera hartuta, 2002. urteko aldaketa izan eta gero, kenkariek zenbateko txikia hartzen dute baliabide guztiekin erlazionatuz gero, baliabideen %10,0 inguru baino ez baitute hartzen. 2019-2023 epealdiko bilakaera izan da: %11,1 2019an, eta 2020an %12,4raino igotzen da. 2021ean %8,7 igotzen da, eta 2022an %8,6raino jaisten da (epealdiko baliorik txikiena). 2023an %9,9raino igotzen da.

En conjunto, a partir del cambio producido en 2002 todas las deducciones han pasado a suponer sólo entorno al 10,0% de los recursos. La evolución en el periodo 2019-2023 es la siguiente: 11,1% en 2019, y en 2020 sube hasta el 12,4%. En 2021 sube el 8,7% y en 2022 baja hasta el 8,6% (mínimo del período). En 2023 sube hasta el 9,9%.

GRÁFICO 8.26. GRAFIKOA
Ekarpenak. Banatu beharreko baliabideen bilakaera
Aportaciones. Evolución de los recursos a distribuir




Edozein modutara ere, epealdiko kenkaririk garrantzitsuenak kupotik datoz. Hori dela eta, kupoaren portaerak berebiziko garrantzia du banatu beharreko baliabideen kalkuluan.

En cualquier caso, las deducciones más significativas son las provenientes del cupo. Por ello, el comportamiento del cupo tiene una gran importancia a la hora de calcular los recursos a distribuir.

8.26 grafikoan ikus daitekeenez, 2007ko lege berrian kenkariek oso zama gutxi dute eta, horren ondorioz, EAEn banatu beharreko baliabideak nabarmen gehitu dira. Hori guztia, jakina, autonomia erkidegoak eskumen gehiago bereganatzearen ondorioa da.

Como se puede apreciar en el gráfico 8.26., en la ley quinquenal de 2007 las deducciones tienen poco peso y, por consiguiente, se ha producido un aumento importante de los recursos a distribuir en la CAPV. Consecuencia lógica de la asunción de más competencias por parte de la comunidad autónoma.

GRÁFICO 8.27. GRAFIKOA
2023ko ekarpenak, guztira.
Total Aportaciones. 2023



Mila eurokotan / En miles de euros

Banatu beharreko baliabideak ekitaldi bakoitzean bildutako zerga itunduekin erlazionatzen baditugu ikus daiteke epealdian %90,0 proportzio inguruari eusten zaiola. 2019an banatu beharreko baliabideak bildutako zerga itundu guztien %88,9 dira. 2020an %87,6 dira eta 2021. ekitaldian %91,3. 2022an %91,4 dira (epealdiko altuena) eta 2023an %90,1.

